# MUNDUKO TOKIRIK EDERRENA

IÑIGO ARANBARRI



IÑIGO ARANBARRI

# Munduko tokirik ederrena

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.eus/ebook

© 2018 Iñigo Aranbarri
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2018ko azaroa
Edizio hau: 2018ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

# Ibai ondoko jendea

Zain-zain egoten ginen maixuak bere gauzak noiz batuko, liburuak, koadernoak, zumeka eta eguneroko agur erori hura, aulki-hots artean presaka jaiki, eskaizko maleta astunak hartu eta ibairantz jotzeko. Kamineroen etxe ondotik igarotzen genuen trenbidea, Hilario Herrenak ehiza-txakurrak izaten zituen txabolatik egiteko belazean behera, ibiliak urraturiko zidorretik.

Uhaldeko bidexkara iritsiaz batera agintzen zigun Pirisek non etzan behar zen bat-bedera, hilerri gaineko belardietara inoiz heldu ohi ziren soldaduei maniobretan ikusita bezala, elkarren artean tartea utzita beti.

– Zertarako tartea, Piris?

– Egin kasu, ostia!

Orduan pisua zuen taldean ostia ondo esaten jakiteak. Eta Pirisek aho betean esaten zuen, nagusien moduan ia. Ez zegoen, haatik, agindu handirik eman beharrik tropari. Denok geunden atezuan, hari batean zegoen dohakabe haren bizia, eta gure esku lantegiari erremate ona ematea.

– Isiltzeko, ostia!

Luzaroan egoten ginen halaxe, behegainean luze, belarria lurraren kontra zapal, zirkinik txikiena egin gabe. Begiak zabaldu eta pointerren zaunka besterik ez zitzaigun iristen.

– Herren ostia horrek goseak zauzkak.

Murtik ez, txakur haien zaunkak ez beste.

– Hemen ez duk pitorik aditzen.

Egindakoa ez desibiltzen ikasi genuen. Han goian ez zegoen inor zertan genbiltzan begira.

– Seguru hemen dela?

Hatsa tunpaka zoru gogorraren kontra.

– Ba hilda zagok orduan.

Bigarren egunerako etorri ziren ika-mikak, emaitzarik lortzen ez eta geure artean hasi ginenean xextran non ikusten genuen batzuek eta non besteek lurra berriturik. Hurrengo ahaleginerako, arakatu beharreko esparrua zabaltzea erabaki genuen aho batez. Ikustekoa zen: eskolako maletak eta berokiak ibai ondoko bidezidor bazterrean tropoiloan utzita, bost-sei mutil koskor belauniko, herriko azkarrenak ere ezin asmatu zertan, nahita ere.

– Hemen egon behar dik.

Nahi aldean arin aspertzen ginen denok, ordea. Ausartu nintzen batean esan nion Pirisi ala denok gortu ginela kolpetik ala han ez zegoela ezer, ez bizirik behintzat. Aurreneko bider elkar ezagutzen genuenetik, ez zuen gaizki hartu kontra egin izana. Handik atzera, dena aldatu zen. Historiak emana zigun arduraz atzendurik, geure ahalegintxoa egin, Pirisen esanera jaiki, eskuak elkarren kontra hiru-lau bat bider jo, belaunburuetako hautsa ahal zen moduan garbitu eta gero eta errazago hartzen genuen ibaian behera, geure hatuak erdi arrastaka genituela. Panpano tantaiak ilaran hazten ziren parera jaisten ginen, gu baino zaharragoek txabola egina zuten parajetik pasatu gabe badaezpada, harrika ekiteko abarketa-fabrika abandonatuan bistaratzen genituen arratoiei.

Nik ez dakit nola konbentzitu gintuen. Kontua da lauzpabost egun eman genuela ezpondan, inoiz garbiegi azaldu ez zigun istorio haren aitzakian. Nahikoa izan zen egun batez Piris gripeak jota ohean gelditu beharra, bilaketa behin betiko eteteko. Gerora jabetu ginen kontakizunaren absurdoaz, tximinoarenak ez baitzuen ez buru eta ez oin. Entzun ziela, zioen, Eskola Profesionaleko maestriako mutil batzuei, orubean urtero ezarri ohi zuten zirkuak bizirik sartu zuela tximu

bat lurpean, kutxa handi batean gordea, antigoaleko Egipton faraoiak bezala, bidaia luzerako prest, nahikoa janari eta edarirekin, zergatik eta, agindua jasoa zuen arren, saio batean bitxiak osteagatik publiko arteko emakume bati.

Zirkua aspaldi joana zen herritik, itxura guztien arabera, lapurra bertan utzita. Luze gabe ateratzen ez bagenuen, hantxe hilko zen, eta gogoz azpimarratzen zituen hitzak Pirisek, lurpean itota. Ez zagok animaliarik munduan, genioen guztiok ere, hainbeste eusteko gauza denik. Onenean, eta azkar libratzera, sator bat bezain itsu aurkituko genuen, ez zituen salbatzaileen aurpegiak ezagutuko. Izena ere eman genion, egun batean zirkuko animaliak gobernatzen zituen langileari entzuna omen zion bera: Winston.

A zer paolak botatzen zizkigun Pirisek.

Baina orduan bezala orain, praka motxen adinean, horiek eta handiagoak bizitza bera dira. Eta Pirisek, ez dakit ondo nola, nornahi liluratzeko solasteko manera zeukan. Inork gutxik bezala zekien taldea bere nahierara ekarri eta behar zuen erara moldatzen. Bikaina gorputzez, hitz egiten egokia, ohi ez bezalako apunteria zeukan harri-tiraka. Hark bakarrik lagako zizun arratoia txikitua, odol argia porlanezko tutuan. Eta

hantxe lehortuko zen, orbana ilunduta eta kartoizko eginik, zaparradak hasi eta ibaiak lehenbiziko uraldian eraman arte. Izan ere, zer gehiago behar da jendea mendean erabiltzeko. Lider onei bezalaxe zetozkion hitzak ahora.

– Datorren urtean agertzen denean, su emango zioagu.

Mehatxu batekin amaitu ziren zirkuarekikoak. Gripea sendatu zitzaionerako erabakia zeukan tximua tragatuta zegoela eta ez zuela segitzea merezi.

Hurrengo udazkenean ere, ohi zuten sasoian heldu ziren kamioi gorri koloretsuak, roulotteak eta bozgorailuak herrira. Egun bakar batean tentetu zituzten mastak tatuajedun langile beltzaranek eta zerupean zabaldu urteroko olana maiztua. Ordurako beste zeregin garrantzitsuago batzuetan genbiltzan eta, ezin sinetsizkoa bada ere, inork ez zuen ezertarako ahomentatu Winstonen izena.

Tximuarena, gogoan dudan aurrena izan zen. Pirisek beti izan zituen, alabaina, uhaldeko istorioak berarekin. Gu jaiotzerako harrak gobernatzen zebilen amerikar antropologo bat aipatzen zuen sarri, zioenez, herrian agertzen zenetan bertako kontu zaharrak biltzen ibili zena Estatu Batuetako aldizkari inportante batera-

ko, trikuharrietan eta mendi-putzuen hondoetan gordetako altxorrena, Anbotoko Majurena, Xandrue bandidoarena eta horrelakoak. Bada, gizon honek esanda utzi omen zuen gure ibai bazterreko jendea arrunt zela izaera berezikoa inguruetakoaren aldean. Batean eta bestean franko ibiliagatik, ez zuela halakorik inon ezagutu. Halaxe zioen, nonbait; zuhaitzei eta landareei nola, dohain berezia eman ziola ur-goaiak bertako biztanleei. Zintzoak omen ginen, garbiak, egoskorrak, ekinak, apustuzaleak, elkarren artean endredatuzaleak, eta hala berean, elizkoiak. Horiek ziren, gutxiasko, Pirisek esatera, interbiu batean amerikarrak gutaz botatakoak. Hortik gora, edozer. Ibaiarena zen meritua edo hobena, beraz, beste inorena baino.

Uraren emanak ez dakit, baina denborak egin zuen bere bidea. Eta hala, aurretik beste hainbati bezalaxe gertatu zitzaigun geuri ere. Konturatzerako, utziak genituen ibai ertzeko denbora-pasak eta erabat kale-zulotu ginen. Behingoan etorri ziren futbola, elkarren arteko borrokaldiak, lehenbiziko zigarroak eta etxe ondoko jolas-aretoko arratsalde luzeak. Nagusiagoei begira ikasi genuen petakotan, makina falta egin gabe jota, partida partidari lotzen. Jukeboxean, beti zegoen gure gustuko kantua aukeratuko zuenik. Ohar-

tzerako, ordurako bizitzaren billarreko mahaian geu ginela, bola zuriak inork pentsa ez bezala jo eta diren norabide guztietara bidali gintuen inoiz elkarri betirako lagun izango ginela hitz eman genion haiek.

Piris zertan zebilen, ez nuen inork kontatu beharrik. Urteak ziren gorpuzkera aldatu zitzaiola. Ez zuen arratoiak harrika akabatzen zituen jaseko mutil haren arrasto mendrenik. Ibilia zen nabarmen okerrago, eta poztu egin nintzen itxura batera bizkortuta ikusita. Aldi zuenean, konfiantzan hurreratzen zen niregana. Ez zuen alkoholik edaten, eta taberna kanpora irteten ginen, giltzez eginiko hamaika zauri zituzten egurrezko aulki-bizkarretan esertzera, platanondo zabalen itzalean. Mendira joateko aprobetxatzen genuen ahal genuen aldiro, ez goregi ere, hauspoak ematen zizkion lanengatik. Edo kostarantz bestela, arratsaldea non edo non eserita, honetaz eta hartaz jardutera. Biok genuela uste dut gaztetan urraturiko adiskidetasuntarrata haiek batzeko beharra. Nik, nahita ez nion gaia ateratzen. Zaldia, birusa, mamorroa bezalako hitzak erauzi nituen hiztegitik, eta ekiten zionean, etenik gabe mintza zedin uzten nion. Abila zen horretan, gordetzen zuen istorioekiko zaletasun hartatik. Ikasten

hasita omen zebilen atzera, soinuarekin eta irudiarekin zerikusia zuen zerbaitetan zegoen matrikulatua.

Eta hitzak hitzari deituta, nola ez dakidala, tximinoarena atera zen oroimen partekatuaren solasera. Orduan kontatu zidan, ez nion sinetsi, urteetan inori azaldu ez ziona. Nonbait, gaizki-ulertu bat izan zen dena. Egun batean zirkuko aurkezleak bota omen zuen, txistea egite aldera edo, hain zela okerra publiko artean zigarro erretzen zebilen matxangoa, non zemai egin zion makila zerurantz harrotuta: “egunen batean lurpean sartuko haut, tximu alu hori! Hortxe bertan, ibai ertzean. Joango zaik, bai, lapurretarako gogoa!”.

Ahotsa modulatzen antzeztu zidan zirkuko gizonaren erretolika.

“Hori bai, ez hutsik. Hago lasai horregatik, izango duk zer jan eta edan, zaletxo alaena! Baita tabakoa ere, nahi adina. Datorren urtean pasatuko gaituk hire bila!”.

Piztuta zituen begiak.

– Umeek bezala ulertu beharra zagok mundua, ez zagok besterik. Eta Winston, pentsatuko duk zergatik.

Ondarroan arrastan zebilkion anaiak izaten zuen beti, entrepotekoa.

– Churchill nor zen ere ba al genekian ba!

Zigarro-paketea hartu mahai gainetik eta zilar papera atera zion barrutik. Lipar batean desegin zuen osorik, belarri bat kendu eta bi atzamarren artean biribiltzeko. Eroritako hortzek utzitako zuloak geratzen zitzaizkion agerian barre egiten zuenean.

– Jai al duk?

Kafea hartu ohi nuen tabernan agertzen hasi zitzaidan bazkalondotan. Zain izaten nuen.

– Gure munduaren istorioak kontatu nahi ditiat.

Ez dakit zer zerabilen buruan, apaldua zuen begirada. Tea eskatuko nion galdegin zidan. Ez nion itxura txarrik hartzen, eta okerrago egotea, bazuen: ezgaitasuna kobratzen ari zen, ustez kontrolatua zuen mamorroa eta Elirekin segitzen zuen, elkarrekin sekula ikusten ez banituen ere.

– Ondo ni? Heriotza hobeto! Kristoren memoria dik.

Lagun mina galdu zuen aspaldi gabe. Azken urteetan dena lagata egonda ere, hiltzen ari zitzaizkion ondoan izan zituenak.

Hozten uzten zuen tea. Koilaratxoarekin hasten zen jolasean.

– Ez duk ederra, faktura noiz iritsiko zain beti.

Horrela ekiten zionean, ez nuen asmatzen zer egin, isilik egon besterik.

– Koktel ostia hori bera ari duk jendea garbitzen.

Ahoa betetzen zitzaion osasun sistemak eskaintzen zuen botika-konbinatuarekin. Asko omen ziren urteetan *stand by*-n egonda, tratamenduan hasi eta, okerrera jota, hil zirenak. Horrexegatik ez zuela berak hartzen.

Ez nekien buru ikaragarri argi baten aurrean nengoen ala suizida bat ari zitzaidan hizketan. Kokoriko jarri zen taburete gainean, neure burua inoiz tolestea lortuko ez nuen eran, bi eskuez bildua kikara.

– Arina hago, Piris.

Barre egin zidan zurrutada bat eman aurretik. Chi kunga egiten zutela aspalditik Elik eta biek. Lagundu egiten ziola.

– Besteekin egoten haiz?

Hepatitisa. Hori bai, horixe zaintzen zuela.

Ez zekiela nolatan segitzen zuen Elik berarekin.

– Ez zioat sekula galdetu, uste diat ez nukeela ondo hartuko erantzuna.

Haurtzaroko kontuak aletzen genituen orduan. Eta neke gabe agertzen zitzaizkigun eskolakideen izenak, elkarrekin ibiltzen ginenona futbolean, petakoetan, bi-

llarrean. Tximuaren sorospen taldetik, biok eta besteren bat bakarrik bizi ginen herrian. Beste guztiak joanak ziren, paradisutik eskapo. Ba al nekien Andoni ertzain sartu zela.

Kanpoan, argi itsugarriak erretzen zuen atari aldea. Sargori zegoen, eta hala ere, mahuka luzeko kamiseta zeraman.

– Ohitu egin nauk, jendea besoetara begiratzen adina.

Ez zebilen koskorik ere kalean. Erabat abandonatua zirudien herriak.

– Goazen hemendik.

Egun hartan, ibaiari jarraiki errepideak kosta jotzeko behar dituen hogeita bat kilometroak inoiz inork eragin didan pasierarik ikaragarriena bihurtu ziren. Ez dut uste laga genuenik ez zuzenik ez bihurgunerik inorekin lotu gaberik. Ezarian, jendez eta xehetasunez bete zen kamioa. Bera txofer, gogoak agindu ahala gidatzen zuen, baratxe hartuta errebueltak, zigarroa atzamar artetik soltatzeke. Lasaiago ematen zizkidan orduan azalpenak. Gelditu ere egin zuen autoa pare bat bider. Ateak zarratuta zituen nabe industrial baten kanpoaldean azkena. Hondeamakinak konpontzen zituzten, antza. Jaitsarazi egin ninduen. Urrats lasterrez

igaro genuen errepidea. Sastraka artean, besoa falta zuen marmolezko gurutze bat erakutsi zidan.

– Hemen Juanmari hil zuan, berbena batetik zetorrela. Arbola jo zian. Akordatzen haiz Juanmarirekin?

– Akordatuko ez nauk ba.

Garai batean ez nuen beste nahirik bere auto ostia harekin bazterra jo zezan besterik, arrebari egin zionagatik.

– Ostia, egia. Ahaztua nian.

Adin kontua ere bada, harri egiten da bihotza, gero ez da erraza asmatzen zer egin beratzeko, ezer ez da aski. Denbora behar da, ez gutxi, eta hala ere ez dut uste inoiz leheneratzen denik. Orain duda dut hau esan ote nion, beharbada ez zitzaidan ahora iritsi.

Hamasei hildako zituen zerrendatuak Imanol Pirisek hogeita bat kilometro haietan. Galdetu egin zidan, ea han agertzen ez zenen bat nuen gogoan. Ahaztu edo, behintzat, aipatu ez zizkidan beste hiru erantsi nizkion. Bat, Quintana nagusia, tximak harro, Montesa harekin harroago, mendia janda zabaldu zuten arte beste mordoa eraman zuen errebueltan txikitua geratu zena. Bi, Urtezahar gau batean bazterra jota hil zen geure eskolako fraidea, gimnasiakoa, motelenoi hanka-zainak asunekin berotzen zizkigun hura. Eta

hiru, Lourdes Aizpuru, aurreneko feminista taldea eratu zuena bailaran. Ibaiak ura erruz zeraman gau batean, autoarekin petrila hautsi, putzura erori eta uhala ezin libratuta ito zen. Hala esan zen orduan. Gauerdian deitu zuten etxera.

– Aitaren gorri-hotsarekin esnatu ninduan, telefonoa kakotu eta zer egin ez zekiela batera eta bestera galtzontzilotan.

– Orduan askozaz jende gehiago geratzen zuan bidean.

– Ez diat sekula aita negarrez horrela ikusi.

Paperen karpetatxoa atera zuen gidariaren ondoko apaletik.

– Hi, zer egiten zuen fraide batek komentutik kanpo Gabon zahar gauean?

Aipatu nizkion guztiak apuntatu zituen orri garbi batean.

– Proiektua onartu zidatek. Orain bai ez dudala atzera egiterik.

Besoa lepo gainetik pasa, neure kontra baldarki estutu eta musu eman nion lokian. Berea baino ez zitekeen usain hura. Portuan bertan utzia genuen autoa, garabi herdoilduaren ondoan. Zortea nola datorren behar ez denean, eta han gindoazen, hilezkorrak gine-

la inoiz jantziko ez genituzkeen bi sandalia pare itsasoak ilundutako moilan aurrera. Ilusioa zuen, eta egitasmoa, egia esan, benetan ederra begitandu zitzaidan. Ikusten nuen ez zitzaiola erraza egingo buruan zerabilena ondo lotzea. Erokeria eder bat, harrikada latza izan behar du pertsonak errepidean hildakoen istorioen bitartez kontatu nahi izateko bailararen azken berrogei urteko ibilia.

– Baduk titulua?

– “Ibai ondoko jendea”.

Halako solemnitate aire batez bota zuen. Pentsakor geratu nintzen, berak espero aldean luze. Bokalean, yate txiki bat ari zen sartzen, diosalaka umeak proan pasieran zebiltzanei.

– Gustatzen?

– “Gure tximu Winston” baino hobea behintzat baduk.

– Idiota haiz ba.

Musu bat beste eskertu nuen ukabilkada gozoa besondoan.

– Antropologo amerikar hari hartu diok orduan ideia.

– Zer antropologo?

Ez nuen jarraitu. Beharbada beste nonbaiten entzun nuen, oraintxe ba al dakit bada nori aditzen diodan zer. Berari entzuna ez bazen, bazitekeen neuk asmatua izatea gure bailarako jendearen dohain berezien kontu hori. Iraganak badu hori, bere ahazturekin eta asmakizunekin, zaila da oroimen txatal batek nornahirentzat balio izatea. Edo bere asmakizun bat izan zen bestela, hainbeste konturen artean atzendua zuena.

– Ahaztu ezak. Ezer ez. Txorakeria bat.

– Nahi duk irakurri orain arteko gidoia?

Osagaiak, bazituen. Batzuk bikainak, gainera. Ez dakit zergatik sartu zitzaidan gaizki atera behar zuela proiektuak.

– Morborik gabe, gure bailara ostia honen erradiografia egin nahi diat.

– Hildakoekin?

– Zein hobe gure hildakoak baino zer garen azaltzeko.

Ederra asmoa, baina ez nuen ikusten nola burutu zitekeen erokeria hura. Gauza bat zuen alde Pirisek. Inork gutxik bezala zekien istorioak kontatzen.

– Lagundu behar didak.

Eguzkia etzan baino lehen ilundu zuen. Sargoria zen trumoiari deika. Laster joko zuen, itxura guztia zeukan.

Pirisen larruan jartzen saiatu nintzen. Ibaia zioenean gu esan nahi zuen, bizi ginen mundua eta bizi genuen jendartea, Winston lurpean abandonatu genuenetik itsasorainoko tarte habitatu hura, gozotik adina zeukana gazitik, sotila baina harroa, eta ankerra, gaiztoa, korapilatsua, ulergaitza, zer ez ginen izan gure gurasoen munduarentzat. Deiadar betean zer esaten genuen eta zer utzi dugun ikusita, nola agertuko ote gara ondorengoek epaitzen gaituztenean. Hori guztia kontatu nahi zuela uste dut.

– Baldinbaitere, lagunduko ez diat ba.

– Astindua izan behar dik.

– Hik eman, errukirik gabe.

Unforgiven, Piris.

Ohartu orduko, farol muturrean geundela hasi ziren aurreneko tantak, txitxirio aleak bezain potoloak. Zartatu egin zen zerua. Labarpean, argiak piztuta zihoazen auto guztiak abiadura nabarmen motelean. Errioaren bestaldean lasterka bizian ekin zion jendeak, toallak buruan. Orduan hasi ginen geu ere. An-

txintxika desibili genuen bidea, tximu eginda heltzeko moilako kafetegiko estalpera.

Barreari ezin eutsita begiratu genion elkarri goitik behera, beste garai batean erakusten jakin ez genuen samurtasunez. Kikara eta jogurt pote hutsez beteriko aluminiozko mahai artean, toalla bat eskaini zigun ama batek, erdi izututa begira genuen ume ilegorri batena, hain izan behar genuen jite negargarria. Berriz estutuko nukeen, eta nola, jakitera hura genuela elkarrekin igaroko genuen azken arratsaldea.

Filma ez zuen sekula amaitu. Hasi ere, ez dakit inoiz kamerarik ere hartu ote zuen. Gidoia, bazuen. Izenburua ere bai. Indarra falta. Zilborreko litsa baino geldoagoa nauk, biluztu zitzaidan. Ezagutzen nuela, banekiela nolakoa zen, istorioak asmatzen artista, lanerako ez hainbeste. Ez dakit askoz gehiago, ez baitzidan aitorpen eten bat besterik utzi handik puskatera, iluntze hartan kostatik etxerakoan autoak labain egin eta jo genuen hormaren aurrean, Elik erosia izan behar zuen krabelin sorta batekin batera.

# Gizon hori

– Nor da gizon hori, ama?

Ordutik, oinaztura gau beranduan bezala etorri izan zaio, oso gerora arte bere neurrian ulertu ez zuen ika-mika batean katigatuta ama nor zen ez zekien gizon harekin.

Artean trena ibaiari jarraika zebilen. Geroago kenduko zieten lurra errailei eta bilduko harri kozkorrak eta trabes ilunak, jendearen garraioan dirua galtzen zen aitzakiarekin. Udako arratsalde bat zen, hondartzatik bueltan. Horixe bai dakiela seguru, etxerantz baitzetozen. Adin horretan ez zuten trenik hartzen ez bazen kostako joan-etorria egiteko, eta horrexegatik uda behar, derrigorrean.

Korrika batean beti, txistu hotsa nasan, pala, eskuarea eta baldea zoru gainera, deiadarka ama, ez geratzeko atzean.

Bueltarakoan, loak hartzen zituen inoiz. Leher eginda uzten zituen Joxean eta biak hondar gaineko ibiliak, seko mankatuta olatuen astinduek eta eguzkiak berak ere. Bestela ere, aparte antzean zegoen

geltokia, eta padura zeharkatuta, orain desagerturiko villetatik aurrera jo, zubia gurutzatu, errio bazterretik igaro eta malkarrari ekinda azkenik iristeko ere, denbora behar zen ur ertzerainokoa egiteko. Joan-etorrian, ordubete inguruko bidea andre sasoiko batentzat, egun-pasarako trepetak aldean, artean hamar urte ez zituzten biki beti nekatuei ahal zen moduan tiraka.

– Nor da, ama?

– Ez dizu axolarik.

Eta hondartzatik atera aurretik, ohiko erituala, hutsik egin gabe bete beharreko hura. Denbora behar izaten baitzen azalean txiklearen moduan itsasten zen galipot txaplatak erauzteko. Baselinarekin garbitzen zen ondo brea, olio pixka batekin bestela. Sentitu egiten ditu oraindik ere amaren igurtziak oinetan, atzamar gozoak labainka errieta txikiarekin batera. Norberaren kulpa balitz bezala baporeen tankeetatik zetorren zikinkeria hura hain erraz batzea, orain inon ikusten ez duen eszena bat.

Eta hala datorkio azala olioztatzen zion esku bera, bestelakotua zeharo, amorruz kentzen aldetik besotik eutsi dion atzaparra.

– Utzidazu bakean.

Nahiaren eta gogoaren gainetik nagusitzen zen betebeharra zen garai hartako umeentzat hondartzara joatea, eginbehar sozial bat. Eta joatea zerbait zen, baina itzuli ere, egin beharra zegoen. Bagoira igo eta batera, nekeari gailentzen zitzaion burdinaren usaina datorkio azalaren errea gozatzeko kremarekin nahasian. Gaur balitz bezalaxe du akorduan bagoia tuneletan sartzen, leiho guztiak zabalik, bidaiariak biltzen zituen freskura, sabaiko argiaren dardara, ilunpeak pizten zituen haurren uluak, ur tanten ploplotekoa etengabeko erorian eta horman hazten ziren garo hosto bikainak. Gero, apurka, argia tunelaren amaiera iragartzen, dena handitzen.

Nolanahi den, joana den zentzumenen mozkorraldia.

– Hago gurekin, Ixiar.

Gizonaren begirada, lagunek laineztua, eskua kakotzen amari.

– Hago gurekin, aspaldiko kontuak kontatuko ditinagu…

Treneko istorioak, belaunaldi baten sentipenen pizgarri. Hamaika halako dituzte adinkideek, hala ateratzen dira ordukoak gogoratzen jolasten direnean. Zer esanik ez Joxeanek, neba bikiak. Bartzelonatik

etorri eta edozein aitzakiarekin etxean bildu ohi direnean, gero eta sarriago berritzen dituzte biek, ilobak aurrean badaude batez ere, ama artean ongi zegoela elkarrekin bizi izandakoak. Eta edozertaz ari direla ere, han agertzen da beti tuneletik irteten, ibaiaren emariari laguntzen, geltokira ailegatzen, iraganeko elementu ezinbesteko trena, itzuliko ez diren gertaeren paisajean.

Egoera sinestezinetaraino.

Akordatzen Hitlerrenaz?

Oraingoak ez diren zarrastadak eta joanak diren izaerak. Akordatuko ez nauk bada, Joxean, bere artean Idoiak. Nerabezaroa ere atzean utzia genian ordurako. Hondartzatik ez, biak ados jartzen ez diren jairen batetik kuadrillan zetozen etxerantz lehenbiziko trenean, gaua farran emanda. Bagoi hutsean, herriko bi gizon zeuden aulki batzuk aurrerago, buruz buru biak, auskalo zeri begira leiho lausotuaren bestaldean. Nola hasita ez dakite, Bigarren Mundu Gerraz.

Bazuan ba hura, alemana, Hitler… biziko duk oraindik?

Akituegi zetozen algaraka hasteko. Begiak doi bat zabaldu eta elkarri irribarre txikia eginda itxaron zioten bestearen erantzunari.

Hilko zuan honezkero... Badakik noizkoa zen! Kaboa edo zuan ni soldadutzan nengoenerako.

Europan bizitzeko beste era bat, hogeita hamar urte lehenagoko Berlin garaituko errautsetatik libre.

Eta orain, hainbeste urteren ostean, harian datorkio makina, bideko edozein oztopo garbitzeko westernetako burdinazko babes hura zuela aurretik, eta lauzpabost bagoi berde ilun ondoren jendez mukuru, langileek jenderik gabe nahi izaten zituzten balkoitxo beltz eta guzti. Zurezko zerrendaz eginiko aulkiak eta ama hantxe eserita, gizon haiek dituela inguruan.

– Nor da gizon hori, ama?

Gizon hura Antonio Garate zen, Hijos de Damian Garate altzaritegikoa, enpresa sortu zuenaren seme gaztea eta bertako gerentea bizi guztian. Urteak behar izan ditu dena berregiteko, urteak jakiteko nola katramilatu ziren denen bizimoduak historiak ahanzturaren zulora zeraman gertaera haren ostean.

– Nora hoa, Ixiar? Ez al gara ba lagunak?

Hondartzatik etxerakoan izan zen. Bi umeek harrapatu ez zuten zerbait esan zion Garatek amari, ahokada bat burlaizean, gerora ere berregiten hasita, ondo ibili al gara, batzuk bai bizi, majo firin-faran ederrean,

ez Joxeanek eta ez berak zehatz gogoratzerik ez duten halako zerbait irudikatzen dutena.

Bainuetxeko geltokian igo ziren, bospasei gizon ondo-jantzi, nabarmen, ospakizunen batetik-edo itxuragatik, ohi baino gorago hizketan guztiak eta habano erretzen pare bat, afaneko.

Artean zutik zen Garate trena martxan hasi zenean. Aurreneko balantzaren aitzakian, emakumearen ukondoz ukondo eseri zen. Aulki muturrean hasieran, behartuz-behartuz, bikiak zutiarazi eta emakumea leiho irekiaren kontra estutu zuen arte.

Probokatzeko, diotso Idoiak nebari.

Probokatzeko, buruaz Joxeanek.

Gizon sendoa zen Garate, ama baino zaharragoa. Argiak zituen begiak, bi putzu glaziar emakumea goitik behera aztertzen.

– Bizi? Ez zuek bezain ondo, Antonio.

– Harrotzeke, Ixiar, harrotzeke…

Betidanik ezagutzen zuten elkar, nola ez ziren ezagunak izango kale berean bizi izan baziren biak, ezkondu arte.

Listu gogortua ezpain-mintzetan.

– Ez hadi horrela jarri. Zer esan dinat ba, ezagun dela ondo bizi haizela…

– Zuk kendutakoak, horiek gabe ere bizi gara, bai.

Dema-usainean egokitu ziren inguruan Garateren lagunak, besoak aulki sorbaldetan bermatuta. Biribilean aldra, altzora bildu zitzaizkion emakumeari haur biak. Oilar bakarra zegoen, alabaina, plaza hartan. Eta xaxatzaileak soberan aukeran:

– Ederra bota dik, Antonio. Esaiok zerbait...

Bilin-balaunka ekin zion trenak bihurgunetik irten orduko. Sasien arrastada bagoiaren kontra, presaka sartzen diren besoak leiho irekietan barrena. Irri burlosoa Garateren ezpainetan.

– Egon hadi, nik konponduko diat hau eta.

Erabateko isiltasuna egin zen. Garate atzamarra luzatuta, bere burua erakusten.

– Nik kendutakoak, Ixiar?

– Zuk kendutakoak, bai. Gure amari behintzat bai, eta seguru ez dela bakarra izan.

Joxeanek ahaztuak ditu zein ziren Garaterekin batera zirenak. Berak ez. Badira umetatik bizi guztian laguntzen diguten aurpegiak.

– Lapurra deitzen ari haiz muturrera?

– Zeuk esaten dituzu denak, ez nik.

Tunelak ito zituen gizonak murtxikaturiko hitzak. Anplifikatua sartzen zen leiho zabalduetatik harrabo-

tsa, gurpilak errailetan lerratzen. Hozkirri atseginak bildu zituen. Birikak betetzen zizkien zoko-usainak. Zer egin pentsatzeko tartea. Non edo non, toallaz eta hondarrerako ume-tresnaz betetako kapazo bat jausi zen goiko apaletik. Dardara egin zuen bonbillak ostera ere, beroak mazpildutako jendea argi-ilunetan gorde arte.

Burrundara apaldu eta kanpoko argitasunak barrua bete zuenean, elkar zaintzen segitzen zuten.

– Bi hauek dituzu umeak? Ez daukate ba aitaren antzik.

Garateren lagunetako bat izan zen, zimelena. Isilik egona zen ordura arte. Ezagutzen zuen hura ere Ixiarrek, senarrarekin batera ibilia zen urte pare batez elkarteko kontuak eramaten. Ingenieroen etxeetan bizi zen heldu zenetik. Herrian, bera zela esaten zen fundizioko istripuan elektrokutatuta hil zen langileari zulora jaisteko agindu ziona.

Burua laztandu zion Joxeani:

– Ama guapa daukazue.

Izerdi tantak lepa-zimurretan behera, umeldua zuen alkandoraren kuello ertza. Babes gabeko txokoan uzkurtu zen neba. Masailak gorritu arte ekin zion barreari xaxatzaileak.

Trenak soro lehortzen hasiak zeharkatu zituen. Sugatz eginean ari ziren errepidearen kontrako alorrean. Behetik gora belar zamatzen andrea, gain-gorririk gizona meta gainean. Une batez, automobil bat jarri trenaren parez pare eta elkarrekin lehian ari zirela iruditu zitzaien haurrei, nor lehenago iritsiko bihurgunera. Pinudiaren atzean, lantegi berriaren hormetako xafla gorriek bestelako jantzia ematen zioten inguruari. Lainotuago zegoen dena zenbat eta barrurago jo.

Besterik entzun gabe jaiki zen emakumea. Garateren atzamarrak sentitu zituen beso eguzkiak gorrituan.

– Nora hoa, Ixiar?

Kolpetik kendu zuen gizonaren eskua aldetik. Haurrak bere aurretik atera pasabidera eta bagoia igaro zuten hirurek. Kanpoko balkoitxoan zeudela, berbaroaren hotsa sumatu zuten ateko kristalaren bestalde. Ez zen minuturik pasa trena hurrengo geltokira heldu zenerako. Erabat geratzeke ireki zuen emakumeak atea. Jaitsi eta, utzitako bagoiko leihoetara gero eta buru gehiago agertzen zirela, hurrengo bagoira igo ziren.

Elkarri hitzik egin gabe egin zuten etxerakoa. Geltokitik irten zen saldoa saihestu nahi izan zuen ema-

kumeak, komuneko jira egin behar zutela izan zuen aitzakia.

Konketen kontra jarri zituen umeak. Gaizki itxitako kanila bat. Kiratsa zetorkien ate marroien ostetik. Makurtuta hitz egin zien.

– Aitari hitzik ez, entzun?

– Zer esan dizu, ordea?

– Hitzik ez, esan dut. Ahaztu.

– Nor da baina gizon hori?

Plazatxoan, ea etxera zihoazen galdetu zieten bikiei Eroriaren monumentuan zebiltzan neska-mutilek, gelditzeko berekin jolasean.

Orain, ia berrogei urte geroago, gizonaren izena denen ahotan dabilela, nekerik gabe berritu zaio guztia Idoiari. Antonio Garateren desagerketaren berri izan eta Joxeani deitzeko beharra sentitu du etxean sartu orduko. Ez horregatik, baina horregatik ere bai. Amarekin ezin, norekin hitz egingo dut Joxeanekin ez bada, ez banaiz egundo inorekin mintzatu Garatez, etorri zaio. Hala hil zen aita, trenekoaz ezer jakin gabe. Berehala konturatu da: etxeratu gabe egongo da neba. Badaki Maresme aldera ateratzen direla aspaldian. Semeen futbol taldeko lagunen gurasoen

etxean afaltzen ere, badakite. Horrexegatik ez dio poltsikokora hots egin nahi, ez da hain garrantzitsua ere.

Botak erantzi, jogurta hartu hozkailuko goiko apaletik eta sofan etzan da, mantatxoa altzoan. Gogorik gabe piztu du telebista. Gorroto ditu gauetako eztabaida saioak. Hasieratik bertatik baldintzatutako iritziz beteak, nekagarriak zaizkio gonbidatu gehienen antzezpen histrionikoak. Beste zerbaiten bila dabilela, aldamenekoen buila-hotsak datozkio. Ari dira berriz ere. Bizitzera etorri zirenetik, etxearen parte dira hormaren bestaldeko oihuak. Eta ez daki zer duen nahiago, bost minutuan mututzen diren liskarrak ala bestera daudenean, oheburuaren morse seinale amaigabe horiek hormaren kontra. Eskerrak Netflixen harpidetza egin zuen. Aurreko larunbatean bukatu gabe ikusi zuen serie atala aukeratu eta bolumena igo du.

Ilunpe lodian esnatu da. Pantailan, detektibeen autoa abantada bizian doa baso itogarri batean barrena. Liluratuta daukate aspaldian Eskandinaviako parajeek. Elurrak estaltzen du ilunpeak janzten ez duena. Planoa itxi eta hurrengo sekuentzia hasi denean, ez zaizkio ezagunak itxuraz liburutegi publiko bateko artxiboak arakatzen ari diren andre-gizonak. Madarika-

zioa lehertu zaio ahopean. Irudia geratu, atzera egin eta hiru atal egin dituela lo konturatu da. Beranduegi Bartzelonara deitzeko. Whatsappez idaztea erabaki du hala ere, ea neba itzarririk harrapatzeko zortea duen.

– Zer egiten dun esna?

– Hirekin hitz egiteko gogoa.

Gustura entzuten du Joxeanen ahotsa, gertu dagoela sentiarazten dio. Telebistan, irudia geldian dago. Definizio lainoa duen gizonezko baten aurpegi izoztua ageri da pantailan, keinu zatar bat egiten.

– Antonio Garate falta duk etxetik.

– Eta?

– Falta dela, Joxean. Goizean pasieran irten eta ez dela itzuli. Beste konturik ez zabilek hemen.

– Non hor? Munduko tokirik ederrenean?

– Bai, hementxe bertan. Gaitarako hago, e?

Irribarre txikia loratu zaio. Grazia egin dio. Bihurriki darabilte biek amaren lagun bati entzun ziotenetik berak ez zuela hiltzeko penarik, ezpada herria uztekoa, munduko tokirik ederrena.

– Hori al dugu dena? Amari zeozer gertatu zaiola pentsatu dinat.

– Ez, ama ondo zagok. Gaur pasatu nauk etxetik. Viviannek botikak bukatzen ari zaizkiola abisatu zidak.

Telefonoa sorbaldaren eta belarriaren artean duela, mantatxoa tolestu du. Tonua aldatzea erabaki du. Beste ahalegin bat egin beharko du Joxean harira ekartzeko. Nebak berak hartu dio aurrea, ordea.

– Zer zuen Garatek? Burua galtzen hasita?

– Zer duen, Joxean. Gaurko kontua duk. Aspalditik zagok gaixo, baina ez etxerako bidea ez topatzeko adina. Goiko presa aldera egiten dik osteratxoa egunero.

– Hori bazterren batean hilda zagon honezkero.

– Ibili dituk bila, baina ezer ez. Beharbada beste norabait jo dik. Bost ordu barru geratu gaituk segitzeko.

– Gaituk? Ez esan ostiajale horren bila hoanik hi ere…

– Joxean, mesedez.

Gauzak erremediorik gabe okertuko direla etorri zaio Idoiari. Bere burua bezain ondo ezagutzen du bere beste erdia. Poztu ere egin dela pentsatu du. Telefonoa ez izatera, eskuetatik oratu eta batak bestearen gorputza sentitu arte erakarriko zuen neba, begiradan harrapatuko zituen haren begi gaztainkarak, bereak baino iheskorragoak beti. Baina urruti dago, eta edanak ausartago bihurtuta dabil beharbada.

– Ahaztu egin al zain zer egin zion amonari?

– Ez ezak segi hortik...

– Eta nola erabili zuen gure ama trenean?

Berotzen sentitu du odola. Nola izango du ahaztua, baina ez da hori kontua, dio bere bostean. Eta ahaztearena ere, oso zaio argudio maltzurra. Zer da ahaztea? Gaiztoan, inoiz esatea espero ez duen esaldia ekarri du aho atariraino: hik ere ahaztua al duk ama duala hemen? Jode, Joxean, neuk bakarrik zaramaat haren ardura! Urteak dituk ez dela kalera atera, hik kanpoan daramatzaanak ia, eta eskerrak Vivianne daukagun.

Kanporantz begiratu du. Kristaltxoak sumatu uste ditu farolapean dauden autoen gainean.

– Orain ez duk neguak hire mendekua beteko duen esperantzan egoteko unea. Nahi duana izango zuan Garate bere garaian, baina orain hor nonbait galduta dabilen agure errukarri bat duk.

Bere hitzek eragin duten isiltasuna aprobetxatuta eten du. Erabat itzali du gero telefonoa, deituko dion susmoa hartuta. Oraintxe ia amarekin mintzatzeko bakarrik darabilen egongelakoari ere, entxufea atera dio. Badaki ekina izaten Joxeanek.

Eguna zabaltzen ari duela, lehenengoetakoa agertu da eliza atarira. Ez du ia begirik bildu Joxeanekin hitz egin duenetik. Ez dio baina, nebari leporatuko lo eza. Handia da dabilen mugimendua, batez ere babes zibilekoena eta ertzainena. Mundua bilduko da denbora gutxian, Everest tontorra ere jotzeko moduko ekipazioarekin asko. Taldeka banatu eta herriko azken etxeak atzean uzten ari direla, gaua uste aldean hotza izan dela ohartu da. Badaezpada hartu du telefonoa, itzalirik darama. Sasoi batean kamineroen etxea izandakoaren atarian, errepideak garbitzeko palak gordetzen dituzte orain. Elefanteen eskeletoak dirudite, errepiderako gatz-siloen azpian. Ilundu egin zaio bihotza. Arrazoia eman beharko dio Joxeani: topatzekotan, harria bezain gogor topatuko dute Antonio Garate. Baldintza hauetan, hutsaren hurrengoa da adin horretako agure batek bizirik ateratzeko duen aukera.

Bidean doala, ekipoetako irratien erlotsa datorkio. Bere baitara bildua luzatzen du pausoa inguruan espekulazioek edonora bultzatzen dutela bilatzaileen gogoa eta hitza: ez zuela ohiturarik egunero paseatzeko, agindua ziotela ez ateratzeko etxetik, asteak zeramatzala seme-alabak ezagutzen ez zituela.... Kontua da goiko presa ingurua ondo arakatu eta han ez dago-

ela ikusita, edonon egon daitekeela jakinarazi dietela bozgorailuz irten aurretik, zabaltzeko ondo begiak, ibiltzeko zoli, erreka-zulorik beltzenean zein edonoren garajean gordea egon baitaiteke. Eta izateko esperantza, gau bat asko dela, baina badirela aukerak orain-dik Antonio Garate onik aurkitzeko.

Elkarri adore emateko jotako txaloak apaldu eta oinez ekin diotenean, urratsez urrats joan da betetzen. Bat ez bada, bestea. Gizon hori. Ez behin eta ez bitan entzun behar izan du nagusi ona izan dela, alde ederra zela orduko tailerretako giroa gaur egun jabea nor den ere ez dakigun enpresetan dagoenaren aldean. Zenbat lagundutakoa den herrian, izan Caritasen zein futbol taldean, ez dituztela ahazteko kategoria guztietarako opari emandako ekipazioak eta markagailu berria, Hijos de Damian Garate publizitatea zuena barrenean. Halako bukaerarik merezi ez duen gizon on bat.

Ezin eramanda, esatekotan egon da berak ere baduela istorio bat kontatzeko Antonio Garatez. Trenekoa etorri zaio lehenbizi, baina berehala berotu dio gomuta besteak, behin batean, amak pasatutako estutasunetik tiraka, arren eta arren arituta, azkenean Joxeanek amari ateratzea lortu zuen kontuak. Ingurukoen

jardunari entzungor, amaren ahotsa ari zaio oinkada eta arnasaldi bakoitzarekin burua hartzen.

Damian Garateren fabrikan aritu izan zen amona bere bizi guztian. Forratu egiten zituen aroztegitik ateratzen ziren aulkiak. Gazterik alargundua, ezinbestekoa zen soldata hura etxean, nola aterako zituen bestela sei seme-alaba aurrera. Nagusia hil zenean, tratuak aitarekin bezalaxe, bere horretan segituko zuela agindu zion Antoniok. Ez zuen gaizki irabazten, jubilaziorako ere kentzen zizkion semaiko batzuk kintzenatik. Eta halaxe jarraitu zuen, oraintxe tapizaketan, oraintxe biltegiko ardura batzuekin, erretiratzeko ordua heldu zitzaion arte. Paperak egiten hasi zenean, ia hil zuen disgustuak. Ez zegokion saririk, eta arrazoia sinplea zen: ez Damianek eta ez honen oinordekoek ez zioten pezetarik ordaindu Gizarte Segurantzari. Alferrik mugitu zituen zeruak eta lurrak. Gestoria batekin ere ibili zen. Kaka morralean. Gordin azaldu zioten azkenean: enpresak bere buruarentzat gorde zituen lanean ibili zen urte horietan guztietan kendu izan zizkion sosak.

Ez zuen sekula ahaztu Antonio Garateren erantzuna:

Lehenago mugitu izan bazina, konponduko genuen.

Bizi beharra dago dirurik gabe.

Bizi beharra dago amorru horrekin.

Indarrak berritzeko txatarreria atzeko zubiaren karelean eseri direnean, telefonoa piztu, whatsappei begiratu eta izan ez duen dei baten berri eman die Idoiak taldekideei. Itzuli beharra du, Vivianne aritu zaiola hoska.

– Abisua dut, ama makal omen da berriro.

Ospitalera eraman beharko dutela seguruenik. Ea ez den ezer, deitzeko laguntzarik behar badu, animo, onena opa diote guztiek.

Onena opa die berak ere guztiei bilaketan.

Sasi eta garo hezeen artean doi irekitako zidorrean aurrera doala, goizaldean telefonoa eten dionetik zortzi mezu utzi dizkion Joxean bihurtzeko bidean dagoela ohartu da, eta ez du gustuko. Trenbide zaharreko langa igaro du, konturatzerako joko du errepide nagusia. Desasosegua dakarkio beti besterena izan den bulkada hain bere sentitzeak. Mendekariaren zama arintzeko, badu aitzakia: ezin liteke inor bizirik atera gauean egin duen hotzarekin. Ezkerretik ekin dio herrirantz, autoak aurrez datozkiola. Lotsa sentitu du,

baina hala da, Joxeanek bezala, berak ere onena opa die Antonio Garateren etxekoei, ez dezatela aurkitu ez gaur, ez bihar, ez etzi. Piztiek janda ez, baina nebak bezala, gizon hori ondo hila egon dadila nahi du aurkitzen dutenean. Orduantxe helduko da bakea. Eta ez bakarrik garatetarren etxera.

Gero Vivianneri deitu dio, egunero bezala, ama zer moduz jaiki den galdetzeko.

# Uhala

Urrutitik ikusten da etorbide luzean zatozela kupula grisa ezkien artean, dotore harrotua ordeka zabalean. Erromako txatal bat izan liteke, okerreko tokian jaulkitzen utzia. Esaten da basilikako planoak egin zituen arkitektoak ez zekiela, agindua jaso zuenean, non eraikiko zen berak paper gainean irudikatu zuen hura. Bertora gabe diseinatu zuela edertasun hau. Hala goraipatzen dute batzuek hemengo obra-maixuen lana. Eta horrexegatik esan ohi da duela paisaiaren zaina, ez zutelako itsu-itsuan jarraitu Italiatik heldutako planoek ziotena. Episteme barrokoa, made in Pays Basque. Horixe baita eliza hau: ordena, neurria eta denbora, klasikoek harmonia antolatzeko asmaturiko hiru alderdiak, euskaldunek beren erara interpretatua.

Eta bai, benetan dira itsusiak altzairuzko kable horiek kupularen bueltan, baina nonbait, Erromako arkitektoaren atelierretik bertatik dator gaitza. Kupula ez izan linternari eusteko aski sendo. Astunegia burua, horrexegatik hasi zela pitzatzen diote txosten tekniko-

ek. Lehenago beste batzuek Vatikanoko San Petrin egin zuten akats berbera hemen ere. Ez da, beraz, oraingo kontua, sistematikoki han eta hemen gertatu izan den diseinu oker bat baizik. Eraikitzen ari zirela ohartu omen ziren artekez. Burdinazko gerruntzea ezartzea erabaki zuten garaiko arkitektoek bi koskoen arteko tartean, begien gordean. Eta hain justu uztai zahar hau da oraintsu agertu zaiena, begiratzen hasi direnean, herdoilak erabat janda. Barrokoak ere bazituela bere ajeak, alegia.

Eta bai, bat nator kritika estetikoarekin. Nola-halako konponbide moderno honek, kanpoko kableenak, itsustu egiten du, nabarmen gainera, kupulaz dugun ikuspegia. Ez da ederra begirako harria nola estutzen duten ikustea. Eutsiko dioten, eutsi behar liokete, horrexetarako daude. Eta azak ontzeko, horra non hasi zaizkigun folleto turistikoak sinbolismoarekin jolasean. Bobedaren oskola omen kupula, eta zeruaren irudikapena ahurra. Uhala zer den, ez dago esan beharrik.

Terrazako atalasean agertu denerako nion emana begia. Elizkizunean bertan ohartu naiz, labana bezala sorbaldan haren soa. Kafe ordurako, gero eta hurrago sumatu dut, argi-argi. Eta horra non ausartu den azkenean, lagunak beren-beregi atzean utzita. Etortzen

ikusita ere, ezin da ideiarik egin nola gogortzen zaizkigun keizuak eta beldurrak barnean. Ongi trebatuagatik, susmoa da fosil egina. Urteak eman ditut muga igaro gabe; etxekoekin, orain nagoen gisa, esan nahi dut. Lankideekin bai, bileretara-eta Donostiara, Bilbora, baina hau aparte egiten zen orduan, eta ez dago bertan orain ere. Kontrainformaziokoek pasatzen zizkiguten abisuak, zaindu beharra zegoen, eta nor jagole hoberik norbera baino. Eta halakoxea delako halabeharra, noiz ez dakizula sastraka atzetik agertzen zaizu oilagorra, hemen naiz ostera ere, ilobaren ezkontzaren aitzakian.

Finak ditu hazpegiak, edanak doi gorrituak masailak. Belaunetarainoko soineko argia, sandalia goratuak, poltsoa nonbaiten utzia. Tatarrez hurreratu du aluminiozko aulkia. Bekoz beko jarri zait, gintonika eskuan duela.

– Bestaldekoa?

Hasi da jolasa, biok irri isilik.

– Hain ezagun dut?

– Baietz esango nuke. Dena da: jantzia, oinetakoak, orrazkera... zer esanik ez hizketan hasi zarenean.

– Detektibea zara ala?

Tolesik gabe loratu ditugu biok ezpainak.

Kupula ikusi orduko etorri zait dena xirripan. Irudien, usainen eta ahotsen halako anabasa antolatu bat. Gazterik hasi ginen honantz jotzen, gurasoekineta. Bestelakoa zen giroa orduan hemen. Basilikara heltzerako hasten zen festa autobus barnean, herriko haurrak matrikula beltza ikusi eta batera pilatzen zitzaizkigunean ate aurrean mulkoan, besoa luze, *chocolat, chocolat* ziotela. Beretako bat izan nintekeen hemen sortzera.

– Mutilaren aldekoa izango zara orduan.

– Ez da polizia izan beharrik horra heltzeko.

Nahita bota diot, irri leun batez, baina oraingoan ez dio beitari heldu. Edanaren dirdira du begietan.

Orain nik dakita ba, turista frantsesei, alemanei, espainolei Atlas mendietan, Dakarren, Bamakon bezalaxe, halaxe zen orduan hemen; *chocolat*, *chocolat* edota *franco, franco, franco* bestela. Ez noski diktadoreari bibaka umeak, eskean baizik, esku ahurrak zabalik, guk zer emango. Hitz doia ez da gosea beharbada, baina edozer hartzeko beti pronto, hain zegoen urri dena alderdi honetan. Seguru hor barnean badela horrela ibilitakorik, galdetzea da nahi izatera nagusienei, egoki fortunatuz gero, dantzaldia eteten denean.

Biderik eman gabe, ezkontideez hasi zait, ipurterreak datozela gazteak orain, ez bere garaian bezala, are gutxiago nirean.

– Mutur batekoa bata, bestekoa bestea, erraz ibiltzen dira hauek batetik bestera.

Zer ote dakizu ni nola ezkondu nintzen. Berehala konpondu nahi izan du.

– Eta Maiteren eta Jean Mixelen kasuan ez hainbeste. Bi euskaldun Bordelen aseguru etxe handi batean. Ez dago urruti gaur egun, berehala sartzen da autopistaz.

Segi dezan utzi diot.

– Polita osatzen dute bikotea.

Ez da aise isiltzekoa, Erasmus aipatu du, Praga, Kopenhage, Atenas, edonon eta edonoiz egiten dutela hitzordua ikaskide izanikoek, asteburu bat elkarrekin emateko, hegazkin txartelak garaiz erosita, merke.

– Guk izan ez genituen erraztasunak dituzte.

Berrogeita hamar paseak izango ditu, Ane duela izena, nola dudan nik. Eskurik eman gabe, zuhurregi biok, masailak ez doaz elkarren bila. Azkenetan du kopakoa. Den bezain luze zutitu da, doi bermatu ditu besaurreak aukiaren sorbaldan, ea ekarriko didan neuri ere bestetxo bat.

Izotz-koskorrak bezain hautsirik ditu begiak.

– Ezkondu ere, ez lehen adina eta ez lehen bezala. Ezagutu behar zenuen hau orain dela hogei urte.

Hogei urte, Ane? Ezagutu behar zenuen hau orain berrogei, erantzutera noa. Eutsi egin diot. Neuk esango dizut nolakoa zen hau duela berrogei urte, zu ume zinela artean. Orain berrogei urte hor dugun aparkaleku hori autobusez mukuru izaten zen. Kartel handi bat zegoen, orubea pribatua zela zioena, jatetxearena. Eta esan ez diodan hori guztia murtxikatzen jarraitu dut ahopean, zuk ez dakizu zenbat *liqueur Izarra* edaten zen hemen. Horiak arbendola zehatua uzten zizun aho-sabaian; berdeak, mendafinezko musu gozoa. Sasoiko jubilatuz betetzen zen eliza, gehiago entzuten zen frantsesa bera gaztelera edo euskara baino. Hemen erabiltzen ez ziren gabardina gris argiak, ohartu zaren bezala, bestelako orrazkera eta oinetakoak mailadian gora, saldoan, santuaren zilarrezko estatuaren bila behakoak marmolen festa honetan, zerikusirik ez Mixel Garikoitzen sortetxeko apaltasunarekin. Restaurant hau berau nolakoa zen esango nizuke, non zegoen bazkaldu ohi genuen jantokia, nolakoak ziren altzariak, nola jantzita zetozkigun zerbitzariak. Eliza atariko souvenir-kasetatxoak ere, ez ziren horrelakoak,

horiz margotuak zituzten olak eta beltzez letrak, *Recuerdos de San Ignacio*, ikusi egiten ditut oraindik ere, bi ziren, etorbidea hasten zen horretan, alderik alde, *on parle français,* feltrozko zezen beltzak banderilla gorri-horiekin eta flamenko dantzariak santuaren oroigarri.

Hurrengoan gentozenean, ikurrinekin etortzeko. Eskaera bera beti.

Tratua baikenuen zerbitzariekin, hainbeste buelta. Ikurrinak eguberrietako postaletan, ikurrinak oihalezko txaplatetan, kaikuetan josteko, hemen ezin zenean halakorik lortu. Zer uste duzu, Ane, horretan ere usatua naiz.

Orain joana da hori guztia.

Ezpain mamitsuak ditu, aspaldi maiztua elizkizunerako emandako kolorea.

Nongoa naizen galdetu dit. Ezin diot aitortu egia ez esateko entrenatu nindutela.

Izotzen klin-klin hotsa kopa handiaren kupula iraulian. Hezurtsuak ditu eskuak. Urrezko eraztun bat. Pultsera handiegi bi.

Begietara behakoa. Mugan dago, edariak zuhurtziari irabazten dion eremuaren hegian dabil. Baliteke gaur baino lehen ere bion begiradak topo egin izana

hementxe bertan, basilika atariko zabalgunean, nork daki. Bera, haurra artean, gurasoekin etorria orain aldean handiak begitantzen zaizkidan zelai berdeetan jolasean; ni, Paueko polizia-etxera destinatu berri. Izan liteke. Ez dugu inoiz jakingo, Ane. Maite ditut denboraren jolasak.

Ez dut zalantzarik badakiela nor naizen.

Beta izan du zurrumurrua egiaztatzeko Maiteren inguru hurbilean. Erabateko diskrezioa ezinezkoa da, janda daukat hori. Garaia ere, alde dugu. Orain urte batzuk, ez hainbeste ere, ez nengokeen hemen. Garaia, eta erretreta hartu izana.

Zer egiteko asmoa duzu jubilazioa hartzen duzunean?

Beti nahi izan dudana: bilobekin egon, autokarabana bat erosi eta emaztearekin batera bazterrak ikusi, arkitekturaz gozatu, argazki ederrak atera...

Dena da iragana orain, Ane.

Ikusi egin dut etortzen.

Berak azalpena nahi du. Hilobi sekretu baten koordenadak mapan.

Nik bakea.

Bi gintonik dakarzkio zerbitzari kofiadunak, ez dakit noiz eskatuak. Topa egiten dugu. Ez bakeagatik,

noski; geugatik baizik. Hala esan du, gugatik. Halaxe errepikatu dut neuk ere, haren begietan murgil eginda.

– Utziko didazu galdera bat egiten?

Bi begi zerbaiten bila.

Eskua altxatu eta atzamarrak klaskatu ditut neure buruaren gainean. Ez dabil apartean Jean Mixelek eta Maitek gaurko eguna denon gogoan gera dadin kontratatutako argazkilaria. Izerditan dabilen neure adineko gizon bat.

– Foto bat?

Bigarrenez egin dugu topa profesionalak halaxe eskatuta. Zoriontsu agertuko gara biok, haren eskuina nire sorbaldan, nire ezkerrekoa haren eskuaren gainean pausatua. Elkar ukitzen biok, estreinako. Ez dut uste ohartu denik harrapatu dudala, laster baino lehen jakingo dudala nor den.

Haizea pixka bat harrotu du. Orkestrak *Paquito chocolatero*ri ekin dio. Aurreneko konpasak entzun orduko, baldar atzeratu dituzte aulkiak, oihuka hartu dute barnerako bidea aldameneko mahaietakoek. Eta orduantxe bota du.

– Non dago Odile?

Marcel Cerdanen uppercuta, imintzio nabarmenik egin gabe jaso dudana. Bere garaian egunkarietan agertu zena baino askozaz gehiago daki. Epaile instruktorearen txostena da datorkidan lehenbiziko gauza. Filtratu izango zen, baina nola ba, eta nondik nire izena.

Koordenada batzuk mapan.

Ez dudala ulertzen diotsot.

Besaurreak aulkiaren bizkarrean, aurrerantz makurtua du soina. Adina salatzen duten zimurrak ageri zaizkio bular artean. Disimulurik gabeko irribarre gaiztoa loratu du.

– Odile. Badakit han zinela.

Behar aldean asko hitz egiten du jendeak ezkontzetan. Maiz, damu-egun handiak izan ohi dira biharamunak. Izan ere, ohi ez bezala askatu ohi ditu edanak mihiak, lotsagabe bilakatzen da otzanena ere.

Neure alaba izan zintezkeen, Ane.

– Ez dakit zertaz ari zaren.

Bozina-joka igaro da auto bat, erantzuna atzeratzeko nahikoa ez.

– Nor da Odile?

– Egin hogeita hamaika urte atzerantz. Gogoratu behar duzu, han zinen.

Non nintzen, Ane. Esadazu zeuk non nintzen.

Vieux Boucaun, Plage Centraleko parkinean.

– Ez, deskuidatuta zaude, garai hartan Baionan nengoen, euskal kostalde guztiko trafikoaren ardura neraman.

Ez dit sinetsi, badakit. Neu harritu naiz neure zabarkeriaz. Presaka asmatu behar izan dut, ez naiz finegi ibili. Nor naizen ukatzea, alferrik nukeen, hona agertu aurretik jakin dute Maiteren aldeko gehienek hori. Jean Mixelen osaba polizia? Zertan aritu naizen, horixe da inork gutxik dakiena, ezta etxekoek ere benetan. Ezkontza batean gaude, bizimodu berri bat ospatzeko elkartuta. Senidetze bat, Ane, euskaldunok bakarrik dakigun eran ospatzen. Maite dugun eta maite gaituen jendea dago hor barruan, *Paquito*-ren airean gerriak mugitu eta, gorila-hots artean, zapiak eskuan besoei atzera-aurrera eragiten.

Pasa da, utz dezagun iragana bakean eta bizi gaitezen ahalik ondoena, Ane.

Lepoa egingo nuke ez duzula hori izena.

– Jakin beharra dugu non dagoen. Bakea behar du familiak.

– Odileren familia zara ala?

– Ez, laguna nuen. Oso maitea.

Edontzian sartu ditu azkazalak. Ikaratu egin dira izotz trokoak.

– Unibertsitatetik?

– Ez nazazu ergeltzat hartu. Nik bezain ondo dakizu Odile ez zela unibertsitatean ibili.

Zintzotasun basa bihurtu zaio hasierako zinismoa.

Pertsonak eta gertaerak bata bestearekin lotu nahiak hartu nau. Oraindik ere, buelta eta buelta, ez dakit nola gertatu zitzaigun ere. Lehenbiziko aldia zen hain eskura genituena, baina ez ginen gauza izan egoera ondo neurtzeko. Ez zen halabeharra izan, denborak hartu zuen ez zegokion abiada. Andre Durrutyren hotela zartatzetik zetozen parkinean aurkitu genituenean.

Matrikula hura. Zerrendan genuen.

– Non lurperatu zenuten. Hori bakarrik jakin nahi dugu.

Nahi dugu? Zuk eta nork gehiagok?

Espainolak hasita zeuden ordurako, Ane. Beste garai batzuk ziren.

Gaur bezalakoxe eguna zabaldu zuen. Argitasunak urratu egiten zituen begiak. Uhinak emaro zetozen hondarrean hiltzera. Bi andre zakurrekin ibilbidean.

Harantzago, Volkswagen California bat. Uretan sartuta zebiltzan gazteak, surfean.

– Non besterik ez dizut eskatzen.

Labain egiten dute eguzki izpiek basilikaren azal bihurrian behera. Zatoz, Ane, bazka ditzagun begiak. Proportzioak, aztertuak ditut, iritzira. Eta berehala nago arkitektoaren tokian, nola jasoko ote zuen abisua Erromako atelierrean. Erabakia hartu beharra baitzegoen. Burdinazko gerruntzea jartzea kupulari eutsiko bazaio. Itxura batera, agerikoa dirudi deskonpentsazioak. Ordukoa ere, Ane, arkitektura arazoa bilakatua zen azken beltzean. Errepublikak ezin onar zezakeen linternak pisu handiegia hartzerik. Mugan alde bateko indarkeriaz gain, geurean hasita zegoena emendatuz gero, berehala zen kupula mando eginda. Pitzadurak begi bistakoak ziren, agerikoa zen premiazko neurrien beharra behea joko ez bazuen.

Auto barnean zeuden hiru lagunak nire gizonak hurreratu zitzaizkienean. Hondarra geldi hondarraren gainean. Brisa goxoa. Herrian, botikako gurutze berdea ñir-ñirrean. Abisua jaso berri gu, denborarik ez indar gehiago pilatzeko. Entzun gabe, banekien zer eskatzen ari zitzaizkien, zer galdetzen. Protokoloa zeharo zehatza da. Susmoa. Neurrian huts egin nuen.

Pistola zorrotik askatzeko keinua egiten duen eskua. Beso-zangoen dantza. Tiro hotsa. Oihuak frantsesez, oihuak euskaraz. Polizia bat lurrean, deiadarka, ezkerreko hanka astintzen. Ondoko automobilaren atzean gordetik patruila-laguna babestu behar zuena. Orro luze bat. Odola zorua bustitzen. Korrika batean gu denok, eta eskapo autoak.

Ane, arkitekturan ikusten da hau ondo. Begira horra. Ikusten altzairuzko kable horiek? Orduan gu ginen, orain beste batzuk diren bezala, kupulak behar duen uhala. Ulertzen? Eta hura zen momentua. Odileri egokitu zitzaion, beste edonor izan zitekeen. Ezin genuen utzi linternak pisu handiagoa har zezan.

Labenne sarreran aurkitu genuen automobila, eskuinaldeko gurpilak errepide bazterreko ezpondan sartuak. Aski izan genuen auzoko gizon baten eskuari jarraitzea. Emakume bat zela besterik ez zigun esan, iruditu zitzaiola pistola zeramala praketan sartua, blusapean. Eta beste biak? Ez zituela ikusi. Kanpin aldera hartu zuen Odilek, pinuen etorbidean arnasestuka haren urratsen atzetik gu.

Hantxe atxiki genuen, hesi gainetik jauzi eginda atarian bi akazia garai zituen etxe batean sartu nahian zebilela. Eta handik laster beste biak, Ortzaizeko

etxalde batean. Eta besteak Baigorrin. Hariari tira egitea besterik ez zegoen.

– Eta gero? Zer egin zenuten berarekin? Hogeita bat urte besterik ez zuen...

Begiak epeldu ditu. Zurrutada luzea eman dio kopakoari. Bustiak ditu ezpain mamiak. Ez dakit erruki eske ari den, ez dirudi erasora joko duenik.

– Ez dakit ezer, benetan.

Begirik kendu gabe dut.

– Aspaldiko kontuak dira. Ez dakit zer esan dizun Maitek, baina ni trafikoan ibili izan naiz beti.

Gorilek amaitu dute dantza. Algara batean dator jendea jantokitik. Elkarri lepotik helduta datoz andre gazteak, gure aldekoak guztiak. Inguruetako mahaiak hartu dituzte. Esku leun bat sumatu dut sorbaldan, masaila laztantzen didan hats beroa. Alaba da, Jean Mixel besotik dakarrela. Irriz datoz, neuk ere ez ditut bestela ikusi nahi.

– Zer egiten duzu bakarrik horrenbeste denbora, aita?

Jantokitik aterata bezalaxe dut armagnaca mahai gainean, habanoa errautsontzian lo.

– Ordu erdi daramazu hutsari begira. Ea ongi zauden ikustera etorri gara.

Eta barre egiten dute biek, gaztetasunaren hondarrak ematen duen urduritasunak piztuta edontzietako izotza.

# Aldaira

– Dena txerrikeria bat.

Beha geratu natzaio, begi lanbrotu haietan nireak. Arrazoi duk, Larra. Hemendik jakizu zenbatera, bi hilera, seira, urtebetera, nik dakit bada, baliteke beste era batera egotea, baina orain zer, bat etortzea besterik, txerrikeria bat dena, Larra.

Bizi puta hau.

– Zer ordutan geratu haiz?

Joana da gure aldia, urteak dira egun jakineko batzuetan izan ezik desagertuta gaudela gaueko ibilietatik. Ez gara mamu ere, eta ezin etsi itzal izan gabe, badarik ere esan ahal izateko orain berena den bezalaxe, lehen gurea zela taberna hau. Mahai hauexetan esertzen ginela, hemen aldatzen genuela mundua, hemen muturtzen ginela elkarrekin eta hementxe adiskidetzen. Txuxtarrez txuxtar, ezin biziago birikak geure beteenean. Orduan erre egiten baitzen honelako zuloetan, nola gainera, eta argia ez zen goizetik inor itsutzekoa.

Baina nor dago halakorik entzuteko, nor egongo da larunbat goiz batean.

– Eta Danielarekin topo egiten badugu?

– Etxe aurreko tabernara jaitsi hura garai honetan? Hiri egin zaik.

Dagoeneko ez gara. Dagoeneko ez da orduko hartatik ezer geratzen hemen. Auskalo zer ganbaratan dagoen hautsa hartzen *Guernica*-ren erreprodukzio erraldoi hura, ama jotzea baino itsusiagoa zen egurrezko marko harekin, baten batek munduko aberrimin handienaz eskuz tailatua. Opari emanda ere, nork hartuko luke bada. Gurekin batera joan da hura ere.

Ez gara, eta hala ere atzetik datozenak baino gehiago izan ginen.

– Dena eskura eman diegulako. Hala irten ditek txepel hutsak.

– Isildu hadi faborez.

Ez da aurreneko aldia, ez da azkena izango. Maite du Larrak gazteen defentsa baldintzarik gabean ateratzea, nahitara dakarkit eraman ezin dudan musikaren aipua, asto-gorotza muturren aurretik pasatzen ariko balitzait bezala.

– Ez hadi hasi.

– Besterik entzuten al duk ba oraintxe. Konkistaren mendekua duk reggaetoia, Larra.

Heure burua engainatuta bizi nahi baduk, aurrera. Ze esango diat ba.

– Zer diok.

– Iragana edertu eta gure miseriak ahazten ditugula, horixe.

Eta lana. Gazteei ezartzen dizkieten baldintzekin gora eta behera beti. Aski da belaunaldien arteko lehia ateratzea hizpidera. Errimea da horretan. Okerrena ez haizela bakarra, Larra, ez duk besterik entzuten azkenaldian edonon.

– Hain erraz izan genian guk! Begiraiek hauei.

Eta betikoari ekin dio, prestaketa akademikoa dela, prekarietatea, soldata. Nola ez datozen bat gazteek lan mundura ekartzeko dutena eta mundu horrek eskaintzen diena. Erreta dabil aspaldi handian. Badakit alaba duena buruan, egunerokoa du etxean. Lan elkarrizketak, sinistuidak, umiliatu egiten ditiztek, atzerrira joatea aukera ona den neurtzen dabil, diru kontuak ateratzen ematen du eguna alabaren gordean, hari nola lagundu ezin asmaturik. Ezer berririk ez, bazakiat hori guztia, Larra. Masterrak, hizkuntzak, erbestearen mamua, ados. Ez dioena da tornuan, fresado-

ran, mandrinadoran hasi aurretik nola ibiltzen ginen geu ere, pintxe lanetan errekadutan bizikleta laranja haien gainean, hartu kirtena hautsita zuen buztinezko kantxila eta herrian beste muturrean zegoen galdara-tegiraino.

Zer duk, gazte?

Esan didate hau soldeatzeko.

Bulegotik ere heltzen ziren algarak, Larra. Hasi berrien saria.

– Eta Pitu?

– Kamioia hamaiketan hartu behar zuela esan zidak.

Hamaikak eta hogei. Laster izango da hemen, badugu astia bestetxo bat hartzeko.

Dena ez dela ez zuri ez beltz, zer joera dugun. Orduan bota behar izan diot Karmelorena, etxekoa aipatzea dotorea ez den arren.

– Begira Belenen aitarena, Larra. Sartu zuloan, esan zioan enkargatuak. Ni ez noa horra, ikusi zuenean zer zegoen Karmelok. Sartzeko, besteak. Ezetz ba. Eskailerari heldu azkenean berak eta jaisteko lasai, kenduta zutela argindarra. Seguru? Baietz ba, jaisteko eta konpontzeko, matxura harexen erruz ze-

goela etenda produkzioa. Fundizio bat. Pentsa zenbateko galera geldirik egondako minutuko.

– Noizko kontuekin hator?

Hogeita hamar urte, Larra. Hasi berri ninduan Belenekin. Igandero ikusten zian gizona bermut-orduan andrearekin kalean gora eta behera, burua zera baino tenteago. Beti izan dena, putzak hartutako oilarra. Uste duk inoiz etorri zitzaiola zer gertatu zen azaltzera? Denok ez diagu barkatu esateko balio baina, ez zakiat, hurreratu eta esan, Karmeloren alaba zara, ezta?, ez nauzu ezagutzen, baina halako naiz, nirea izan zen hutsa, neuk esan nion lasai jaisteko, kenduta zegoela indarra. Ezagutu ez! Zera! Bale, makurtu burua eta topatu beste hitzen bat barkatu horrek hainbesteko pisua badu, baina esan zerbait, ostia, libratu barru beltz hori. Bai zera, beldurra. Izua pertsona gisa azaltzeko, hori eta ez besterik hark zeukana, horrela jokatuz gero jendearen aurrean urteetan lortutako irudia xaretu egingo zitzaiolakoan. Errazagoa askozaz egin zutena. Semea hartu lanean aita hilaren ordez eta bakea. Segi dezala zibak itzulika. Hala sartu zuan Belenen neba aita hil zen fundizioan. Beste bat zulorako. Horrela konpontzen zituan gauzak, ala ahaztu egin zaik?

– Noraino hoa. Eta hik esan behar? Hor daukak Iñaki!

– Horretan ari nauk ba, gaur bezalaxe hiltzen zela jendea beharrean orduan. Eta gauza bat, Larra. Ez ezak tranparik egin. Iñaki ez zuan gazte hauen belaunaldikoa, ikasitakoarekin bat ez datozen lanei uko egiten diotenetakoa.

Ikasten segitu ezean, eta zenbat ziren bada garai hartan kanpora jotzen zutenak, denok hasten ginen sasoi bertsuan. Antzeko tailerretan, antzeko baldintzetan, antzeko soldatekin guztiok. Obreroen armada bat lan egiteko herritik atera beharrik ez zegoenean, gure mailan behintzat.

Gauzak beste era batera funtzionatzen zuten garai bateko armada azula.

Seietako sirenak jo eta tabernak betetzen zituzten lanaren soldaduak. Ostiralero buzoa paper latzean bilduta galtzarbean, amak, emazteak, alabak garbituta astelehenerako prest egon zedin.

Badoa lankidea oporretara familia guztiarekin, eta Armiñongo autopistako sarreran, horra non ateratzen zaion nagusia kabina arteko gerizpetatik alto ematera. Poltsikoko telefonorik ez zen sasoia. Eguzki errea eta ugazaba kapotaren aurrean hesola baino zuzenago,

besoa luze, eskua zabal kristalaren kontra. Bazekien handik pasatuko zena, emaztearen herrira joaten ziren uda-pasa, Extremadurara, La Serena aldera. Nola ez zuen nora jakingo etxerakoan beti ekartzen bazizkioten hestebeteak. Larderiaren saria.

Bueltatu egin behar duk. Makina bat diagu aste honetan ateratzeko, Israelera.

Enpresa guztian bakarrik berak egin zezakeen lana, nonbait. Montadore onena inguruetan, eta behar bezala planifikatu ez baten batek bulegoan. Berandu ohartu, asko balio duten makinak. Eta buelta etxera, diru truke, baina buelta etorritako bidetik andrea, umeak eta trepeta guztiak umiliazioaren pisutzat hartuta.

Ez zagok horrelako mentalistarik.

Gure gerrako abenturetako bat, Larra. Zenbat horrelako. Ugazabek gaur egun aldean bestela jokatzen zuten garaia. Estutzen zituztenekin lotsa izpirik agertu gabe baxoerdiak hartzen zituzten garaia. Herrietako legea, muturrez muturreko etxekotasun basa hura.

Gero, telefono txikiarekin katigatzen hasita geundenean denok, heuri deitu zitean lantokira etxetik, aitaginarreba hil zela esateko. Ez haiz akordatzen? De-

rrigor akordatu behar duk. Eta enkargatuaren erantzuna?

Baietz dio buruaz. Ez du ahazteko. Nola ahaztuko duk, Larra.

– Eta enkargatuak, zer esan zian?

Bi begi ñarrotu Larrarenak, haren ahotik entzun nahi dut.

Heure ahotik, Larra.

– Zer esan zian?

– Zer uste duk, orain hi joanda piztu egingo dela?

Gantzak behar dira hori botatzeko.

Gantzak eta pertsona ez ikusteko bokazioa. Gaixo kuadrilla bat. Lanaren ustezko balioen metastasiaren biktimak nagusi eta enkargatu haiek guztiak. Eskola patentatu bat.

– Danielarekin hitz egin duk?

– Gaurkoaz bakarrik, noiz agertu behar dugun eta gauzak nora eraman behar ditugun zehazteko. Belenekin sarri antzean hitz egiten duelako zakiat gainontzean dakidana.

Horretan bai, lege zaharrekoak guztiok. Asto-lanerako, ez da batere nekeza gertatu garraio brigada antolatzea. Nahikoa izan da dei bat hiru laguneko taldea berehala osatzeko. Pituk aitaren altzari-dendatik hartu

du kamioia. Ostean, pertsonarengana gerturatzeko, ez dago aitortu beharrik, herren nabarmena dugu hirurok.

Daniela ere Daniela izan.

– Hamabiak hogei gutxi. Deituiok, ea non dabilen.

– Ez dik hartzen.

Danielak ez gaitu inoiz Iñakiren ondoan hurbilegi nahi izan. Bere arrazoiak izan ditu. Iñaki arrastotik aterata ibili ohi zenean, ez ginen gu haren ardura genuenok, baina gu gaberik Danielaren gusturagoko gizona zela ere, hala da.

Desajuste kulturalak, deitzen dio Pituk.

– Laster nauk hor. Bost minutu.

Hartu duen erabakia zentzuzkoa da, denok ulertu dugu. Iñaki gabe, zerk lotzen du bada Daniela hona. Hemen zeukana, neke handirik gabe topatuko du doan tokira doala. Bebarruak beti egongo dira. Beti egongo da etxea garbitzeko eta arroparen jira egiteko norbait behar duenik ondobizien artean, Vivianne dabilen bezala. Dendaren batean akaso, edo zaharren bat zaintzen. Alarguntasuna, poliki geratu zaio. Neuk ere, haren bezin, gauza bera egingo nuke. Gaztea da oraindik, bizitza berregiteko moduan dago, ez dauka zertan bizi lan istripu batek errotik eten dion proiek-

tuak lurperaturik. Eta joder, hor du oroimen eder askoa ere, senarra zuen lagunik handiena. Ez dut uste Belenek gauza bera esango lukeenik nitaz galdetuz gero.

– Hi, lan egin behar diagu.

Hori da, hain zuzen, Danielak eraman ezin izan duena, ahal izan duen aldiro leporatu izan diguna, ez dakigula edan gabe ibiltzen, ez dakiela zurrutari emango ez bagenio elkarren horren ogi eta jaki ote ginatekeen, ezer egiten asmatuko genukeen, ze emakumeengana normal hurreratzeko ere ez dugula balio edana ez bada tarteko.

Igual da egia. Hilabete laster eta ezin berarekin elkartzeko adorerik batu.

– Deituoik Danielari, behean gaudela.

Eta orain badoa. Badoa Daniela eta badoa Iñakirekin hasi zenetik gure kontzientzia erruki gabe zulatu duen barautsa berarekin, Iñakirekin bere diruagatik katigatu zela denon ahotan erabili genuen hura. Eta hala ere, bere erara badarik ere, badakit estimatzen gaituena. Horrexegatik deitu dio Beleni ea nirekin hitz eginda lagunduko diogun etxea husten, nahiago duela horrela aldaira-enpresa baten operazio terapeutiko aseptikoa baino.

Belenek oso ondo ulertu ez diona, bestalde.

Berak izan dira Iñakiren lagunak, defenditu gaitu Danielak. Belenek esana neuri.

Erabakiak di-da batean hartzen dituen emakumea, Larra. Ez duk hilabete pasa Iñakirena gertatu denetik, eta bazoak. Ilun-istantziarako giltza emango ziok bien azken urteetako bizitza gordeko duen etxeari. Senarraren adiskideak aukeratu ditik lagun diezaiogun kutxak, armairuak, mahaiak, aulkiak eramaten, Iñakirekin zikindu zuen ohea gehiagotan igoko ez dituen eskaileretan behera jaisten. Eta ez duk merke-zurrean dabilelako, badakik ondo. Belenek azalduko dik bestela.

– Bahuen ordua. Non sartu haiz?

Pitu ez da inon sartzen. Pitu munduaren gainetik dabil, hala ibili da beti bere txanka luzeekin ia behegaina ukitu gabe, maluta airean bezain arin.

– Ateraidak zerbeza bat.

– Ez, bagoazak, ostia. Berandu duk, Pitu. Zain diagu.

Komunetik pasatu naiz. Txorrotapean igurtzi ditut eskuak, busti dut aurpegia, zabaldu dut freskura garondoetara, eta gu beste batzuen aurretik bezala, gurasoak gure aurretik larunbat gauetan, ezkonberri

gazte zirela dantzan ibili ohi ziren mahai artetik igarota atera naiz kanpora.

Eskuak poltsikoetan, espaloira erdi igotako kamioiaren aurreko gurpilari ostikadaka ari zaio Pitu. Ezer esan gabe du begira Larra.

– Daniela? Gu gara.

Etenda heldu da Danielaren ahotsa atezain automatikotik. Atea bultzatu orduko, bidea ematen didate biek neu joan nadin aurrena eskaileretan gora. Igogailu irteeran ezustean toporik ez egitearren igo dugu oinez laugarreneraino. Urrats bakoitzarekin denbora irabaztea da kontua, atezuan jarriko gaituen eztulhotsa entzuteko esperantza. Umetan inoren etxerakoan bezala, beldur-jarioan eskailburura aterako ote zaigun hala ere. Ez Larrak ez Pituk ez dute lehenak izan nahi haren hitzei segida ematen, elkarrekin adostu gabeko hierarkia batek aginduta goaz ilaran. Ezin diet errurik eman: gaitz zabaldua da gure artean alargun berriei beldurra izatea.

Errukia, aitakeria eta moztadea nahasian. Mandotutako jendearen ezina.

Hemen nago, dio Danielaren ahotsak, atea zabal, karrajuan barrena ezker-eskubi ditugun geletakoren batetik. Sarreran, egongela izan zenean, kartoizko ku-

txak elemenian eta altzari desmontatu batzuk. Bonbilla hutsean dira kable muturrak.

Ahalik eta pieza gehien darama Iñakirekin bizi izandako puzzletik.

– Hemen.

Neu itsu-aurreko. Lehenbiziko aldia da elkarrekin egongo garela hileta egunaz geroztik. Orduan ez zen egokiera. Gero, neu ibili naiz atzeratzen bisita; bera, nik deitu zain egon da. Eta hala utzi dugu denbora luzatzen, eta segurtzat ematen dut ez dudala asmatuko, egon eta gero ere damuak hartuta jaitsiko naizela oraintxe igo berri ditudan eskaileretan behera inoiz itzuliko ez naizen etxe honetatik, neure buruari harrika, esan ez dizkiodanagatik baino esandakoak nola esan asmatu ez dudalako, ezen Danielak badaki han nintzena, nik dakidan bezalaxe berak badakiena. Eta nahi nuke pasatua balego, oraindik betetzeko daukagun kamioia abiatua balitz kalean behera, Pitu txofer, Larra eta biok kabinan, Danielaz eta Iñakiz ez den beste edozertaz hizketan, agindutako tokirantz alai geure gauzetan, bera etxean utzita argia eta ura ixten, bere automobilean eraman nahi dituen azken gauzatxoak batzen larunbat eguerdiak arratsaldeari bide ematen dion tarte horretan, ezen neuk bezain

ondo dakien arren, erantzun egin beharko diot galdetzen didanean, esateko egia, sufritu al zuen Iñakik, eta esan nahi nioke ezetz, azkar joan zela dena, gasak zorabiatu zuela konturatzerako, baina ez zait hala aterako. Eta nahiago nuke negar beroz hasiko banintz erantzun beharrik ez izateko, ito artean lotuko banindu korapiloak, ez entzuteko Iñakiren orroak berriro, arragoan zer edo zer, altzairu urtuaren salda gainera erori zaiola ohartuta, animalienak ere ez diren orroak lau lankideren artean hartu eta kanpora atera dugunean eta zoru bustiaren gainean utzi.

Txerrikeria bat dena.

Eta galdetuko dit ezer esan zidan, eta honezkero jakinaren gainean izango da baten batek halaxe zertuta, ezetz. Esan ez; agindu, Daniela. Hiltzeko han bertan, hiltzeko mesedez laguna banintzen, txakur bat bezala akabatzeko hantxe, fundizio atzeko losa gainean, minaren minez ezin duelako gehiago, besagainetik paparrean behera zabaltzen zaion orban gorribelztu bat. Horixe agindu zidala pertsonarenak ez ziren orroz, hiltzeko, emateko amaiera sufrimendu hari. Babesa, buzoa, elastikoa tiraka urratu eta kendu arren hor barruan jakizu zer kiskaltzen ari zaion sumendi iraulkatua. Kontatu ezin dizkizudanak, Daniela,

oraindik joan ez zaidan azal errearen garzunda hemen sartua, hementxe, nazka hartzeraino betiko edozein animaliaren okelari platerean. Eta badakit dakizula antxintxika batean itzuli naizena labearen barrunbeetara eta parean harrapatu dudan aurrenarekin ateratzen ikusi nautela atzera ere, erre usain hura sudurretik, eztarritik biriketaraino sartua. Txahalarena egiten jendea espaloi bustian, makakorro batean neu ere, herioan lagunari burua txikitzera, eromen hura albait arinen amai dadin. Eta egin dut saioa inguraturik duten lankideen artean burua sartzeko, ukondoka tartea egiteko, giltza ingeles handia eskuan dudala Iñakiri burua txikitzeko prest.

Oraindik bueltaka nabil bake epaitegira. Herenegun azkena. Ulertzen duela nire jokaera aitortu dit instrukzioa daraman idazkariak. Ulertzen duela giltzaren bila sartu izana, badakiela saiatu nintzena, baina ulertzen duela balorerik ez izatea lagunaren esana betetzeko, konfiantzan esaten didala, berak ere ez zuela barrurik izango giltza altxatu eta laguna buruan jota bertan uzteko. Egoteko lasai, ez dagoela salaketarik nire kontra, istripu eguneko gertaera guztiak argitzen dabiltzala, tramite hutsa. Iñaki saldak eragindako erreak hil zuela sinatu du auzi-medikuak. Laneko se-

gurtasunaren teknikariaren txostenaren zain daude oraindik. Baina gezurra, ez da. Ezin izan nuen, baina ni laguna hiltzera joan nintzen, Daniela.

# Lehen bestela ziren gauzak

– Oraindik harritzen nauten gauzak egiteko abilidadea duzu, Maitane.

Irri isilez hartu du amak, afaltzeko daudela, eguna zertan eman duen kontatzen hasi denean.

Arkupeetako mahaietako batean eseri da, bazkalostean herri guztia bere zereginetan dabilela. Astegun buruzuria da, jai du, eta goizetik hartu du amaren herrirakoa, azkenean. Aspaldian zerabilen ideia buruan. Zertara, ez du garbi. Egin beharra zuela, bai. Hutsik daude mahai guztiak, tabernaria bakarrik dago barra atzean, beltzez jantzitako neska atsegin bat. Ez du ezer hartzeko gogorik. Te berdea eskatu du. Beti eman dio lotsa handia ezer kontsumitu gabe egoteak terrazetan, baita zerbitzaria kanpora ateratzen ez bada ere.

Ez du zertan, baina halako zirrara batek dauka lotua, erantzunik gabeko jolas moduko batek: ez daki inork ezagutuko duen, ez daki inork ezagutzerik nahi duen. Lehen, aitona-amonak bizi zirela, sarriro agertzen ziren. Orduan, agian orain aurrean izanda ere

ezagutuko ez lituzkeen lagunak zeuzkan, etxera ere bila joaten zitzaizkionak. Aurrena amona, urtebeteren buruan ezin bakarrik bizi-eta aitona, biak joan zirenetik, zulo handi bat egin zen. Gurasoak osaba-izebekin lehen adinean moldatzen ez eta horixe egin zen, zulo handi bat, pertsonak, paisajeak eta bizipenak irentsi zituena.

– Eta inor ikusi al duzu?

Haurtzarotik sentitzen ez zituen parajeetan barrena ibili da eguerditik. Kale artean lehenbizi, ibai aldera jo du gero, zerbaitek bertan bizi izandakoa itzuliko diola sinistu nahian, tailer artean, etxeak amaitu zaizkion arte. Aldatua ikusi du guztia, min ematerainoko hondakinak piztu zaizkio gogoan. Etxean, aitak betikoa bota dio, ea zer uste duen dela denbora, zertara joan behar izan duen. Errekan gorako amuarraina dela erantzungo dio amak, eskerrak, horretan bere aldekoa atera dela, esan gabe esateko benetan darabilena: ez duzu ikusten neure ordez joatea erabaki duela?

Gurasoek Kapadoziatik bueltan ekarritako poltsa handia zabaldu eta marrazketako kaiera atera du. Mahai gainean, zurezko kutxatxotik kanpo ezarri ditu pastel-margoak, te kikararen ondoan lerroz lerro. Atzekoz aurrera begiztatu du bloka. Inoiz begiek ehi-

zatu eta eskuak halakotutako bideetan dabil. Oporto gorriaren koloreen dotoreziak dauka liluratuta aspaldian, eta urdin ilunarenak.

Neska bat kikara bat duela mahai gainean. Amaren erreprodukzioak etorri zaizkio, ikasleekin institutuan erabiltzen dituenean berari txikitatik erakutsi izan dizkionak. Ez da inor egongo Renoirrek beste irudikatu duenik bera dagoen postura. Bost, sei obra ditu akorduan. Giro gozoan ageri dira emakume gazteak, Paris aztoratu zuten gatazka sozialetatik urrun, plazer neurtuaren kamera hiperborikoan sartuta guztiak. Liliz apainduriko kapelaz, gizon bizar ondo arreglatuen konpainian ia beti, egonean, irriz, ezpainak erdi loratuta. Ezagun du nahiago zuela Renoirrek jendea margotu parajeak baino. Dotore daude denak, ez dira nerabeak, ezta bizitzak mazpilduak ere. Atsegin naroaren aroan daude. Keinu abegizkoak erakusten dizkiote ikusleari, halako sotiltasun burges, baikortasun lauso bat. Beti iruditu izan zaio Renoirren lan oro alaitasunmintzez jantzia. Mahai gainean, kafea edo tea ez ezik, ardoa, fruta zabalduak, botilak, platerak, kopak... bizipoza mahaian dagoenaren bidez transmititzeko obsesioa balu bezala. Hopperrek ez duena. Andre gaztea bera dagoen bezala dago, bere gogoan bildua, zangoa

zangoaren gainean, ezer ez inguruan ikuslearen begiak besterik. Bakardadea elementu moderno legez, ez plaza batean, kafetegi huts bateko arkupeetan baizik. Bakardade horrexek berak ezartzen dio emakumeari ikusgarri egiten duen fokua.

Itzultzen denean, badaki zer galdetuko dion amak:

Etxeko inor ez duzu ikusi?

Aitaren puntada zein izango duen bezalaxe:

Zer nezesidade daukazu hara joateko?

Blokaren azala atzerantz bota eta berehala ekin dio zirriborro bizkor bati. Argiarekin dabil itsututa aspaldian, arin batean zenbatu ditu arkupeak, perspektiba kalkulatu du, gorritasuna atera dio argitasunari. Hala zedarritu du espazioa. Giltzarrien garaiera markatuta, erraz datozkio marra biribilduak zutabe sendoen bizkar. Zalua du eskumuturra, malgu dabil batetik bestera. Lehian ari dira argia eta itzala. Gorrixka utzi eta gari kolorekoa hartu du, bi lerro bizkor ezarri ditu zirimolan. Baratxe datorkio begiek ikusten dutena paperera.

Lasaiago dabil margolaria inguruan inor ez dabilkiola.

Ez duzu balio jende aurrean pintatzeko.

Beti animoak ematen aita. Gaizki darama etengabean gogoraraztea, jendeari ez dion fobia benetan balu bezala. Ultimatum moduan hartu dio behin-berritan diotsonean artea egin nahi badu, izateko ausart ala dedikatzeko dekoraziora. Zergatik guztia eta ez duelako nahi alabak margotzen segitzerik. Ez du gogorik aurre egiteko, amak ekingo dio bere ordez.

Utziozu bakean, egoera okertu baino ez duzu egiten.

Hozten hasitako teari hurrupada eman eta mahai ertzean pausatu du eskumuturra, zigarro koloretsu bat pastel-margo urdina airean.

– Polita dun, diferentea. Harriak bizirik dagoela ematen din.

Ezustean hurreratu zaio ahotsa, egindakoari begira dabilela. Lotsa estali nahi izan duen irribarrea loratu dio.

– Neuretzat da, ez da ona.

Aldamenean eseri zaio, aulki guztiak daude libre.

– Erakutsiko?

Hirurogeita bosten bueltan dagoela iritzi dio Maitanek, gehiago ere bai beharbada. Nahasiak ditu ileak, lakartuak eskuak. Ez dago zikin, jantzien aukerak egiten du bestelako. Erretiratu gabe dabilen tankera

hartu dio. Eguerdikoa luzatuta, ondorioztatu du. Ez du mozkor zantzurik baina, fresko ditu begiak betaurreko garbien bestaldean. Renoirrek ikusi ez zuena, halabeharrak batutako bi emakume ostatu batean solasean. Ardo merkea eskuan duela bata, pastel-margoek zikindutako atzamar puntekin kikara urruntzen bestea. Etorri berriaren aurrean zabalik datzan marrazki-kaier bat.

Te kikararen ondoan utzi du edontzi erdiraino betea.

Bloka hartu dio, lotsagabe agertu gabe. Astiro igaro dira etorri berriaren aurretik azken asteetan margotu dituenak.

– Zergatik ez dago jenderik?

– Nire eskua ez da jendearen oinak bezain azkarra.

– Gezurra. Fijatu naun nola darabilenan.

Aurpegiak eta soinak margotzen ausartzen zen garaia gogorarazi dio. Goizaldean, gaueko adorerik gabe, izara artean laguna mendean hartuta. Kurba posible guztiak laztanetik arkatzera.

Hatsa hartu dio Maitanek, ardo lurrin arin bat. Badu, hala ere, atzeraka eragiten ez duen zerbait, zehazten ez dakiena zer den. Aurpegiari darion gozotasuna da agian, mintzatzeko manera, begien naroa,

masail bietan egiten zaizkion zulotxoak. Eta ez dabilela baldar. Larregi luzatu ezean, eroso dago.

– Koldarra naiz horretarako.

Eta aitortu egiten dio, margoekin ez ezik, argazkikamerarekin ere ezinezkoa zaiola jendearekin bekoz beko jarri eta klik egitea.

– Nahi bai. Askoz ederragoak dira argazkiak pertsonekin.

Baina lotsa da, errespetua. Ehiztari bat bezala sentitu izan da inoiz, justu objektiboan zituenean begiratu diotenean. Harrapakinaren begiak hilko duen fusilari so. Horregatik dabil oraindik ezinaren bila, paisajeekin errendituko ahal den.

– Paisaje urbanoekin. Natura hutsak ez dit ezer esaten. Jendea egotekotan, ageri ez bada ere, hor dago.

Besoak soinetik urrundu ditu, hegan darabiltza eskuak.

Ideologia kontua da azken batean. Nor da bera inor bere ustezko asmo estetikoen arabera erabiltzeko?

– Neuri ere ez zitzaidakenan gustatuko.

Zehaztu egin behar izan du. Ez da arteaz ari, begiradaz baizik.

– Hemen tabernetan bakarrik bahabil, indioa haiz.

Hoztua du tea. Nor dabil noren gainean gehiago jakin nahian.

– Hi ez haiz hemengoa.

Denbora zeramala agertzeke aitortu dio Maitanek, zintzo. Lehen, sasoi batean, asteak ematen zituela bertan, opor garaian-eta.

– Ederra hiria Bilbo.

Eta edontziari heldu dio ostera ere emakumeak, ezpainekin ukitu gabe uzteko segidan.

– Lehen asko joaten gintunan, New York baino urrutirago zegoenean.

Mapan kokatzen asmatzen ez dituen kaleak izendatu dizkio, azken urteetako plan urbanistikoek erabat aldatu dituzten auzoak. Lotsatu egiten da aitortzen ez dela inoiz egon toki horietan, etxean bertan jarri izan dizkiotela debeku-marrak aipatutako garai hori ondo pasatu eta gero ere.

– Baina hire hizkera hori hemengo dun.

Eman dion konfiantzak ordaina merezi duelakoan atera du hizpidera ama, nola joan zen hara ikastera, denborarekin bertan geratzeko. Lana, aita, umeak. Bizitzak dakartzan zimurrak, zertan zehaztu ez duen zuloa gero. Hizkera, amarena dutela nebak eta biek.

Etxean ikasia, lagunekin-eta erabiltzen dutenaren bestelakoa.

Ama nor duen galdetu dio, jakin nahi du ezaguna zaion, abisua aurrez:

– Gazteak zaharra errazago beti ere.

Izen-abizenak eman dizkio, etxeko gaitzizena gordeta, nahita.

– Izen horrekin auskalo zenbat dauden herrian.

Gehiago galdetu gabe etsi du, hala iruditu zaio behintzat.

– Ikusiz gero ezagutuko dinat igual. Baina orduko hainbeste jende falta dun herritik...

Gurasoak hil zaizkionetik, ama ez da ia herrira itzuli, berak dakiela. Eta aurretik ere, zenbat bada. Nebaren gaixotasuna izan du aitzakia, baina beti pentsatu izan du egon behar duela erbesteratu sozial kategoria bat, ama bezala, jaioterritik borondatez alde egin eta aukera izanik, itzultzen ez direnentzat.

Erabakia du ez diola ama agertzen den argazkirik erakutsiko telefonoan.

– Ea, utzi berriz.

Inguruetara begira ari da, urduritzen, biluzik sentitzen hasi da oraindik izenik galdetu ez dion emaku-

mea orriak atzerantz pasatzen hasi eta marrazki bakoitzean luzaroago gelditzen hasi denean.

– Esku ona daukan.

Ez da esaten dioten lehen aldia. Galdetu beharra sentitu du.

– Zeuk ere margotzen duzu?

Algara motza egin du emakumeak.

– Hobe bai. Herri hauetan, ezer egitekorik ez badun, edo halako zeozertan hasi edo zeharo gaiztotzen haiz.

Ausartu egin da jolasean sartzen.

– Eta zu zer zara, zintzoetakoa?

Zaharrak zaintzen eta lokalak garbitzen atera behar izan duela bizimodua erretiroa hartu aurreko urteetan. Minimoa, baina lortu zuela zerbait kobratzeko lain kotizatzea.

– Laster naun.

Aulkia atzeratuta jaiki da, begirik kendu gabe jarraitu dio Maitanek tabernan barrena, komuneko ateraino. Eguzki galdatan dagoen plaza hutsean, bi ume doaz andre gaztearen aurretik, beren itzalekin jolasean. Horra atzetik ateratzen ausartuko nintzen argazki bat, pentsatu du. Umeak itzalari nola, alde egitea

etorri zaio berari ere. Ez da horretara joana amaren herrira.

– Pazientzia pixka bat izan behar da berarekin, besterik ez.

Tabernaria da, hiru pintxo dakarzkio emakumeari. Adinkideak izango dira. Umetan beharbada inoiz elkarrekin jolas egindakoak. Irribarre egin diote elkarri.

– Kalean ematen du eguna. Ez dut uste etxean ezer kozinatzen duenik.

– Lasai. Ez nago gaizki.

– Aspertzen bazaitu, joan eta kito. Ez dizu gaizki hartuko.

Itzuli denean, marmar itoan jesarri zaio ondoan, maldizio txiki bat. Herren arin heldu da, orkatila bihurritu omen du komun irteeran. Berehala itzuli zaio lehengo aurpegiera atsegina, ez dirudi min handitan denik.

Mahaipean begiratu du. Itzala sartzen hasia da arkupeek eskaintzen dioten tarte handitik.

– Ondo zaude?

Jaiki egin da Maitane, tentuz, margoen kutxa eta bloka jaso ditu. Hura du joateko unea, eman du eman beharrekoa bien artekoak.

– Ez dun aurreneko aldia. Lehenbailehen lotu eta bakea.

Platertxoan dagoenari ekin dio emakumeak. Astiro bildu du berak poltsa zoru gainetik, ez zaio erraza agurrerako hitz egokirik topatzea. Jaten amai dezan itxaron du. Esan beharra dio lasai etxeratuko bada.

– Hortxe daukat autoa, eramango zaitut nahi baduzu etxera bidean.

Begiak piztu zaizkio, bi zulotxoak nabarmendu masail mamietan.

– Utz nazan anbulatorioan. Badaezpada ere pasatu egingo naun.

Itxura batera oraindik handitzen hasi gabeko orkatila igurtzi du.

Hasia da arratsalderoko mugimendua. Guraso gazteak ikastetxeetatik berehala aterako diren haurren bila. Denda batzuk zabalik dira. Laster irekiko dituzte besteak. Gainontzekoek aspaldi utzi zioten ezer saltzeari. Gazteek lokal moduan erabiltzen duten bakanen bat kenduta, sare metalikoen osteko gutun jasogabeek eta egunkari orri zaharrez estalitako erakusleiho zikinek salatzen dute egoera.

– Zer zen hau eta zenbat galdu duen.

Erraz doa, neke handirik gabe pausatzen du oin muturra zoruan.

Mamuz beteriko parte zahar bat. Merkataritzak abandonaturiko guneetan, enotekak, banku sukurtsalak eta litxarreria dendak baino ez dituzte zabaldu aspaldian. Eta hala ekin dio, geldialdia egiteko aprobetxatuta, ezagutu behar zenuen hau garai oparoenean, desagertutako munduaren gidarena jotzen: hemen ultramarinos bat zegonan, hemen Fidel barberoa, hemen konfiteria bat...

– Aditu egiten dinat oraindik polboroiak egiten zituenean zabaltzen zen irin gozoaren usaina, almendra eginarena.

Aldarrian dabilkio, ez dela aspaldikoa basamortu hau, giza-klima aldaketaren ondorioa harremanetan gertatu zaigun idortze hau.

– Hemen pentsu biltegia zinan gure osabak, eta hemen ondoko hau, drogeria bat zunan, herrian geldi-tu zen azkena.

Eta itxura hartu dio, berarekin hizketan ari dela ere, atea zabaldu eta dendan sartuta, lurrinak hartzen dabilela, xaboi likidoak eta egindako tomatea gordetzeko hautsak, edonorako bernizak eta hilak pizteko amoniakoak, metroka saltzen zen estraza papera eta

granelean zerbitzen ziren kolonia urak eta perfume gozoak, aditzeraz besterik ezagutzen ez dituen mila salgairen artean pozik.

– Ez dun nostalgia, garai hura ez zunan hobea.

– Zer da orduan.

– Nik zer zakinat ba, azkena geratzeko beldurra igual.

Ez dio ulertu, ez da adin handia duen emakume bat ere.

– Lehengo gauzak egiten azkena izatearen beldurra.

Orain hurrengoan amak erakutsi zion webguneaz hitz egin nahiko lioke. Erakusketa birtual bat, Amsterdamen, metroa luzatzeko lanak direla-eta, Amstel kanala lehortu dutenean handik ateratako gauzekin egin dutena. Gizateriaren benetako museo bat. Garbigailuetatik historiaurreko hezurretara, txanponak, josteko makinak, labanak, telefonoak, oinetakoak, indusketan hasi eta lokatzetatik ateratako zazpiehun mila objekturen bidez berregin ahal izan dute hiriaren historia. Eta otu zaio jendeari ere ez ote zaion antzeko zerbait gertatzen adinean gora joan arau, ez ote doazkion pilatzen egunen lokatzetan inoiz ezagutu izan dituen gauza horiek guztiak, beren usain, kolore eta testure-

kin, eta areago, ez ote dugun antzeko museo sentimental bat osatu garai batean bizirik ezagutu eta halako batean betirako joan diren haiekin guztiekin. Museo bat, oroitzapenen pedagogia egiteko beste biderik ezin asmatuta.

Hezetasunak fatxada jandako etxe bateko balkoitik, ohegaineko bat zintzilik. Berehala ezagutu duen usaina.

– Orain, berriz, Maroko ematen din. Edo Pakistan. Bitxia dun, lehen denok kalean nahi. Orain, berriz, ahal duenak, txaletera ospa. Joan direnen etxe zaharretan sartzen ditun hauek besteak jardineko belarra mozten dabiltzan bitartean.

Denborak higatutako errotulu baten aurrean gerarazi du.

– Hau Theveneten taberna zunan. Gure zuloa.

Kristal bertikalak dituen lokal estu bat da. Kanporaino dator kebab burruntzien lamara. Hutsik dago, gizon bakarra dago barra atzean, telebistari begira. Berriz abiatu orduko amaitu dio esaldia. Automobilaren atea zabaldu dion arte nagusituko da isiltasuna gero.

– Hementxe hil zitenan nire orduko mutil-laguna.

Eta atzera ere, ez da ausartu gehiago galdetzen.

– Badakin nola ziren orduko gauzak. Hamar lagun joan zitunan hiletara.

Ez du indarrik izan galdetzeko nork hil zuen, zergatik, lagun arteko borroka batean izan zen edo droga asuntoren batengatik garbitu ote zuten. Edo bestela, entzunak ditu halakoak, edariak mihia askatuta hitz egin behar ez zuenekin hitz egiten zuelako herrian mugitzen zirenez. Txibato bat, otu zaio. Emakumeak kontatu dizkionak kontatuta egin dituen hipotesiak guztiak. Sasoi hartako zerbait, nolanahi ere. Bilbok lotu gabea artean, ama kale hauetan ibiltzen zenekoa bere orduko lagun eta ametsekin, bera jaio aurretiko mundua, gauzak bestela zirenekoa.

Beteta imajinatu du kebaba: gazteak larunbat batean durumak, pedratak, lahmacumak erosten latako freskagarriekin hildakoaren itzalaren gainean.

Kale artean, emakumeak berak esan dio nondik jo errazen anbulategira.

– Xelebreak gaitun. Lehen presoak egoten zitunan hor barruan, orain medikuak.

Hantxe utzi du, antza ezaguna duen gizon bati oinari buruzko azalpenak ematen autotik irten eta batera.

– Hik segi pintatzen. Eta eskumuinak amari.

Ez daki nola ulertu masaileko bi zulotxoak eragin dizkion irribarre lotsorrari lagundu dion begi-kliska.

Herrenka sartu da emakumea eraikinean, mende bete pasa inguruetako azken kondenatua urkamendira atera zuten ate beretik. Presoen gogoeten gainean gaixoen beldurrak. Ezinarekin borrokan jenderik gabeko margoetan bildu nahi duen giro hori bera. Nori bururatu ote zitzaion kartzela zaharrean egitea anbulategia. Lehen martxa sartu eta abiatu egin da, arin itzuli nahi luke atzera ere. Baina halaxe behar, izan ere zer da bizitza giza flysch basa bat baino, amarena bezalako borondatezko erbesteak ere konpondu ezin duen sedimentazio prozesu etengabea.

Ez du Renoir ikusten halako egoera batean interesatua.

Autopistan sartu aurretik deitu du etxera, ez dio besterik esan aitari, afaltzeko helduko dela. Amak hartzera, bestelakoa izango zen elkarrizketa, baina agian hobe horrela, iluntzerako gordetzea, afari erdian hasteko kontatzen zer egin duen, nola ikusi duen aldatua dena, galdetzeko amari nor izan litekeen ezagutu duen emakumea, ardo gorri merkea edaten ibiltzen den bat, bakarrik eta libre, mutila aspaldixe hil omen zioten bat, Thevenet delako baten tabernan.

– Bizikletan istripu handia izandakoa nagusia, hala esan dit.

Denbora hautsi ez dadin zaintzen duten emakume horietako bat.

– Goraintziak eman dizkit zuretzat.

– Eta ostean, zer berri?

Kontatzen hasi orduko moztu dio aitak solasa. Berak izan ez duen mundu baten jeloskor beharbada, etorri zaio Maitaneri. Ez da aurreneko aldia egiten diona, txarra da disimuluan aita. Zer nezesidade hara joateko. Ez du maite ama herrian bizi zeneko ezeren gainean hitz egiterik, hori guztia atzean geratu dela esanda eten nahi izaten du jarduna, akabo dela, esan gabe esateko sartzeko dena zulo handi batean eta urruntzeko gero handik.

Iraganik gabeko jendea maitatzea posiblea balitz bezala.

– Erabaki bat hartu dut, ez dut dekoraziora dedikatu nahi.

# Modeloa

Zumar zabalen ostean aditu eta berehala zen geltokian eguneko lehenbiziko trena. Nasa huts zopatuan, oinak hotz, bi gizon zituen zain Andres Arrutik. Alkateak eta eskualdeko errekete ohien buruak baino ez zuten osatzen ongietorri batzordea. Goitik hala esanda, eskultoreari Irineo Epelderen baserrirako bidea erakusteko eta gizonarekikoak egiteko agindua zuten jasoa biek nola biek. Epelde konbentzitzea, berez etorriko zen. Udaberrian lanbroa bezalaxe, esan zitzaien. Halaxe helduko zela. Inoren buruan ez zen sartzen uko egin ziezaiokeenik.

Tentuz jaitsi zituen bagoiko mailak Arrutik, berokiaren lepokoa altxatuta gizon biei bostekoa ematerako. Txapela egokitu zuen.

– Urruti al dugu?

Zain zeukaten gizona etxean. Bihurgunean sartu orduko ikusi zuen Irineo Epeldek alkatearen autoa sukaldeko leihotik, zelai jelatuen artean gorantz. Lurmendu ezinean zebilen hiru egunean, hotz egiten zuen, baina haizea aldatua zen azkenik. Eguerdirako

urtzen hasia izango zela etorri zitzaion, berandu baino lehen xurgatuko zuen lur beltzak dena. Bat-batean, sagastiaren atzean gorde zen autoa, zen bezain neurrikoa agertzeko handik gutxira azken malkarrean, aurreko foku biak isiotuta, kateko txakurrak zaunka batean zirela. Epeldek prest zeukan kafea lapikoan, txikoriarekin nahastua. Alkateak berak emana zion bi egun lehenago zorrotxoa, libra laurden azukrerekin batera, gertu izan zezan hirurak heltzen zirenerako. Zertara, ez zion esan, orduan bertan argituko ziotela guztia. Ezer txarrik ez da, Irineo, zaude lasai horregatik. Eta egundo amaitu behar ez zuen gauaren muturrean, heldua zen ordua. Atarian zituen hiru gizonak, teinkaturiko kate adausien bestaldean. Berandu zebilen, ordea. Errieta eman zion emazteari, iragazi gabea zuen lapikoko kafea.

Irineo Epelde atarira irten zenean, aurrez hamaika bider esana ziotena ez zela gezurra ikusi zuen Andres Arrutik bere begien aurrean. Gizon bikaina zirudien Epeldek. Itxura batera, ederki balioko zuen egina zioten enkargurako.

– Sartu, sartu barrura, hotz da-eta.

Oroitzapen zaharrak berritzen zizkion Arrutiri tximiniari zerion egur errearen lurrinak, umetan amaren

etxera joaten zirenekoak. Konturatzerako, alkatea zuen aldamenean, ahapeka.

– Gure gizona da?

– Izan liteke.

Ezkaratzeko lur gogorraren kontra jo zituzten zapatak hirurek.

– Eseri lasai, kafe bero bat gaizki ez zaigu etorriko.

Denbora behar izan zuten Arrutiren begiek iluntasun astunera moldatzeko. Bulegoko objektuak garbi azaltzen ari zitzaizkiola, itogarria zen dena.

– Delegazio honetan, aspaldi aukeratu genuen gizona.

Hizketan segi zezan utzi zion Arrutik, garbi ari zitzaion adierazten ez zuela eskulturaren proiektuan ezer aldatzerik izango. Gizon urduria zen Garcia Pueyo, besteek zer dioten entzun gabe jardutera ohitua. Itxura hori hartu zion.

– Goazen kanpora, lasaiago egongo gara.

Eskertu egin zuen terrazako argitasuna. Apaltzen hasia zen udazkeneko eguzkia. Zigarroa piztu zuen delegatuak.

– Ez duzula erretzen esan duzu, ezta?

Marruma mutua zetorkien kaletik, hiriaren hauspoa punpaka.

– Irineo Epelde deitzen da. Ia metro biko gizona, sorbalda zabalekoa, aurpegiera garbia, sudur markatua... ikusi egiten dut zizelkatua, dotore, begirada urrunean galdua, oinarriaren gainean betirako zut.

Zigarroa ezpainetan, buruan zeukan estatuaren planta egin zuen Garcia Pueyok, soina tente, kokotsa gorantz, esku biak aurreratuta, atseden posturan fusil bati helduko baliote bezala.

– Zaude.

Epelderen argazki batekin itzuli zen bulegoko ilunpeetatik. Eskura eman zion, hurbilagotik errepara ziezaion. Gizon handi bat zen, baserri atarian era behartuan ateratako jarreran. Atzean, emakume bat sumatzen zen, besoak hazta eginda. Amarruan zuten. Esaten zuena esaten zuela, erabakia aurrez hartua zegoen.

– Belengo estalpeko idia baino nobleagoa da. Ez zaizu zaila gertatuko jendearen gustua egitea.

Hiriaren batetik besterakoa zuten begipean: garraiolariak azken orduko zereginetan, elkarrekin solasean igaro ziren soldaduak, egonean zegoen jendea tamarindopean. Brisak organillo baten notak zekartzan, ulertu ezin ziren elkarrizketen zurrumurrua espaloitik. Urrutira, muinoan margotuak ziruditen badiaren

bestaldeko villek. Hondartza gainean, kartzela beltza. Beste garai batean gertuan izan zuen bat baino gehiago zegoen bertan.

Garcia Pueyo balaustradan bermatu zen:

– Aldekoxe bizi zara bizi zaren tokian.

Ez zen inoiz horretaz kexatu izan. Ez zuen ulertu zertara zetorren hura.

– Bueno, baduzu zerbait esateko?

– Zer esan behar dut bada?

Hasiera batean pentsatu aldean, lasai agertua zen bulegora. Mesede egin zion emaztearekin izaniko elkarrizketak. Bat-batean, urtzen sentitu zuen guztia.

– Biok dakigu zer dugun buruan, Andres.

Ikara zimikoa sentitu zuen.

– Ez zara gutarra, baina ez dugu zu baino hoberik lan hau ondo egiteko.

– Ez dut uste.

Sorbaldan sentitu zuen eskua erantzuna eman orduko.

– Ba, sinistu.

Suaren garrak baino argitzen ez zuen sukaldean, Irineo Epelde aurrean zuela, Garcia Pueyorekin izaniko elkarrizketa berritu zuen Andres Arrutik. Ezustean harrapatu zuen enkarguak. Lan gaitza zen, on beharrez

zebilkion adiskide bat izan zuen bitartekari. Aldeko arrazoiak neurtu zituen: artista gisa izena emateaz gainera, dezentez arazo gutxiago izango zuen edozertarako. Barnean zerabilen borrokari azkar eman zion konponbidea. Konbentzitua zuen bere burua uko egiteko arrazoiek ez zutela lana onartzearen adinako pisurik. Nork leporatuko zion irabazleekin kolaboratzea? Nork, bizi beharra zegoenean, umeak zeudenean tartean? Ez zen ideologia kontua, lana zen. Eta ez zen ez aurrena ez azkena izango horrelakoetan zebilena. Nahikoa zorte izan zuen ordura arte. Egon, egongo zen bakarren bat, inbidiak-eta tarteko askotan, enkargua onartu izana leporatuko ziona. Bakarrik bizi izatera, beste bat izango zuen beharbada Garcia Pueyori emandako erantzuna, baina familiarengan ere pentsatu beharra zeukan. Eta bere artean, eskertu egin zuen horrela izatea.

– Irineo, zure beharra dugu.

– Zertarako?

Borren parekoak zituen eskuak Irineo Epeldek. Ardi zahar bat ukabilaz bekoki-katiluan jo eta bertan eraisteko modukoak, gaztigatu zion Garcia Pueyok. Ez du ederra izan behar harekin buruz buru esku huts neurtzeak, erantsi zuen. Neurtu, beste zerbait ari zen

neurtzen, ordea, Arruti. Mahai hartan, alkateak zuen konfiantzarik handiena etxeko nagusiarekin. Justukoa baino hitz egiten ez zuen erreketearen eginbeharra zein zen, ez zuen garbiegi ikusten.

– Badakizu zer den modelo bat?

Hondartza gaineko tamarindoen artean zebiltzanei begira segitu zuten bi gizonek, elkarri hitzik egin gabe. Barandako harriaren kontra itzali zuen zigarrokina Garcia Pueyok, terrazatik kalera begiratu eta espaloi gainera jaurtitzeko gero.

Hatz erakuslea luzatuta hitz egin zion.

– Esango dizut zergatik aukeratu dugun Epelde. Modelo bat zer den, ez dizut nik esango. Baina ez deskuidatu. Modeloa ez da edertasunaren irudi hutsa, artistari

harri blokean barrena zer duen kendu beharrekoa erakutsiko diona. Ez hori bakarrik behintzat. Herriari adorea transmititu behar diona ere izan behar du. Eredua grinan, indarrean, dotorezian. Zer da modeloa, Arruti, ez bada nolabaiteko proiekzioa denboran. Horregatik da ezinbestekoa gizona ondo aukeratzea. Gizona izan behar baitu, gerran izena irabazitako bat, ezta?

Irineo Epeldek biak betetzen zituen, garbi zegoen.

– Zein egokiagorik bera baino?

Gurutzea izango zuen atzean Erorien monumentuak, gizona halako bi. Eta herriko martiri guztien izenabizenak oinarrian zizelkatuak. Hala omen zetorren agindua. Izenena, noski, ez zuen berak egin beharko.

– Nondik?

– Goragotik, Arruti, goragotik.

Eskultoreari, berez atera zitzaion keinua. Terrazatik teilaturainoko tartean, usategia baino ez zegoen leiho-azalak urdin ilunez margoturiko eraikin harearrizko hartan.

– Maite dut umorea duen jendea, Arruti. Pozten naiz gure hautuarekin bat etorri izana.

– Badut beste aukerarik ala?

Aurrean zuen gizonaren begietan ikusi zuen erantzuna.

– Eta zer egin behar da?

– Arrutirentzat posatu, berak aurrena zure marrazkia egin dezan gero zu ateratzeko garbi, harrian egina. Betiko, Irineo.

– Betiko?

– Sinistu. Ez da jaio amaren semerik eskultura hori eraitsiko duenik.

Era ia teatralean ari zen alkatea. Hura zuela hitz egiteko ohiko era etorri zitzaion eskultoreari, Garcia Pueyok bezala.

– Hori besterik ez?

– Zer beste aukera, Arruti?

Pozarren hartu zuen, zirudienez, Irineo Epeldek proposamena. Aulkian kulunkatu zen, eta oso-osoan aitortu zuen alkateak bisita izango zuela eta txakurrak lotuta eta etxea garbi izateko agindu zionean ez zitzaiola horrelakorik pasa burutik. Hazten joan zitzaion barruan laineza. Hasierako kezka saretuta, umetuta ageri zen. Ea ez al zion ilusiorik egiten bota zion tupustean emazteari, ea ez zuen pozten senarra herriaren begietara plazatxoan betikotua izango zela jakiteak.

Erantzunik eman gabe, kanpora atera zen andrea, ontzi bete kondar zuela eskuan, uluka hasiak ziren txakurrei jaten ematera.

Alkateari mintzatu zitzaion Epelde:

– Badakit galdera zatarra dena: dirurik egongo da?

Mahaiaren bestaldetik heldu zitzaion erantzuna:

– Ez duzu nahikoa sari herriko guztiak zeuri begira egotearekin ala?

Umoreko zegoen erreketea. Behartuta legez egin zuten barre denek.

– Eta ez ahaztu basilikara bidean herrian geratuko diren turistak. Hartuko lukete frantsesek halako bat!

Kanpoko hotza heldu zitzaien ate-hotsarekin batera. Epelderen emazteak hitzik egin gabe igaro zuen sukaldea, ilunpetan gordetzeko.

– Ari al da urtzen?

Ez zuen erantzunik jaso.

Tentetu egin zen Arruti. Sukaldeko leiho estutik, zapatapean zapuzteko moduan ikusten zen herria azken belardi biribilduaren atzean. Nabarmen ageri zen errepidea malkarraren babesean. Sakonean, ibaiari jarraiki, trenbidearen arrasto beltza.

Irineok aurreikusita bezalaxe, lurruntzen hasia zen antzigarra belazeetan, eguzki gexak behartuta.

– Dena ondo ateratzen bada, igual izango duzu zerbait.

Alkateak egunak zeramatzan gaiari bueltaka. Non sar zitekeen, zein zulotan lanean Irineo bezalako gizon bat? Estankoak eta gasolindegiak, banatuta zeuden ordurako. Ez ziren gutxi izan eroriak, elkarren artean ere muturtuta zebiltzan senideak banaketa irizpideekin ados ez eta. Udalean, ez zen tokirik. Eta egia aitor-

tzeko, Epeldek eskola motza zuen edozein lekutan sartu ahal izateko.

– Zer da zerbait? Begira nola bizi garen. Kaminero edo, edozertan.

Erakutsi zion baino kezka handiagoaz atera zen Andres Arruti Garcia Pueyoren bulegotik, kontratuaren aitzakian, honek berriz deitu zuenean. Ez zion ezer aipatu nahi izan, baina izua sentitzen hasia zen: jendea jakinaren gainean zegoen berak egingo zuela monumentua. Berak beste zekiten, xehetasun eta guzti. Errekete armatu baten irudia izango zuela, gurutze handi bat gizonaren atzean eta irabazleen aldean eroritako guztien izenak oinean. Zango arinak dituzte albisteek. Utziko ahal zuten bakean.

Geltokira bidean, bainu publikoen parez pare zegoen tabernan sartu zen. Astia zuen trena hartu aurretik. Marmolezko gaina zuen mahai baten ondoan paratu zen. Barrakoak ez zion agurrari erantzun. Gutuna gabaneko poltsikoan zegoela egiaztatu zuen. Han segitzen zuen Garcia Pueyori erakusteko asmoz eraman eta azkenean ateratzeko adorerik izan ez zuen mehatxuak. Zuzenean traidore ez deitzeak lasaitzen zuen pixka bat, neurtua zekarren gorrotoa. Mingarria zela

berak egingo zuela jakitea, zer jan-txakur bihurtu zen, hildakoak jazarriko zaizkiola.

– Zer edango duzu?

– Ardoa.

Beltza eskatzen zion Irineok saioa hasterako. Ikaztoki izanikoan gordetakotik ateratzen zion Arrutik, herriko taxizale batek San Martin Unxetik ekartzen zion hartatik. Egotaldia errazteko da, eransten zuen modeloak. Epeldek bakarrik edaten zuen. Edontzia husten zuenean, kapotea ekartzen zion ondoko gelako armairutik, sorbalda gainean eroso jar zezan, frontean inoiz ibili zuen bezalatsu. Tentu handiz apaintzen zizkion Arrutik tolesak, uhinak gozo eror zekizkion soinean beherantz. Hura izango zuen bizitasun bakarra harriak. Kapotea aldean eta mauserra esku artean. Guardia zibilen kuartelean inguratu zioten, balarik gabe eta perkutorean akatsa zuen bat badaezpada ere, orpoa behegainean, bi borra haiek sendoro euts ziezaioten. Txapela Epeldek berak ekartzen zuen bil-bil eginda gabaneko poltsikoan, gerran erabili zuen berbera, euriak eta eguzkiak Bizkaiko frontean maiztua gorria.

– Ez daukazu horrela ibili beharrik. Neuk utziko dizut beste bat. Harriak kolore bakarra du, Irineo.

– Nik begiko hezurra baino nahiago hau, ordea.

Geltokian itxaroten zion Arrutik, biltegiko mutilak kalamuzko zakuak, banastak, sega kirtenak elkarren gainean pilatzen zituen nasaren ertzean, kantina atariko aulkian jesarrita beti. Elkarrekin egiten zuten gero padura inguratzen zuen zidorretik labar zurien gainean herriko armadore bati erosia zion estudioraino. Koartzak agertzen zitzaizkien bidean, hegaberak, uroilandak. Dunen gandorrean, harenondokoen zurtoin iharrak hazten ziren. Marea behera bazen, abandonaturiko baporeen hezurdura beltzak erakusten zituen errioko lupetzak. Itsasoko brisak agurtzen zuen bikotea etxea begi-bistan agertu orduko.

– Joan-etorria behintzat ordaintzen didate eta...

Sasoiko igotzen zituen etxerainoko harrizko mailak. Sarrerako ate gainean, horman itzala bezalaxe zabaldua, huntz iluna.

Eta hala, ariz eta ohartzerako, Irineo Epelderen bizitzan barneratzen hasi zen Arruti. Hura zuen, harrizko egin aurretik, gizona eskaintzen ari zitzaion aukera. Bazkalondo haietan, zertaz hitz egin asmatu zuten elkarrekin: eguneroko beharrez, familiaz, gerraz. Margotzen hasi aurreko solasaldi haiei esker jakin zuen nola heldu zen Epelde frontera, nola borrokatu zen Lemoa-

txen San Ignacio tertzioarekin, nola zabaldu zen haren ospea 333 kotako erasoetan egindakoagatik.

– Ahoa ikatza baino beltzagoa zuten nafarrekin. Eta egia esango dizut, ez dakit zenbat hil nituen, Andres.

Beste gizon bat zuela aurrean iruditu zitzaion Arrutiri, arrunt samurragoa aste batzuk lehenago baserrian ezagutu zuen umea baino. Eta beragan erakutsi zuen konfiantza zinez eskertuagatik, aitorrezina zitzaion beldurren bat tarteko, ez zizkiola emaztea eta seme-alabak egundo aurkeztuko ohartu zen. Halaxe atera zen, ez zen besterik, biek ez zuten zertan neurri berean eman. Gainera, Epeldek ez zion inoiz trukean maila berean erantzuteko eskatu. Solasaldi haiek laster entregatu behar zuen eskaerari kalterik egiten ez ziotela sinetsita zegoen. Estudioak, labarrak, padurak babesten zituzten biak kanpoko mundutik. Horrexek berak bihurtzen zituen, baina, era berean, zaurgarri.

Tarteka, damua izaten zuen inoiz Irineori gehiegi sakatu izanaz.

– Nork gobernatzen ditu abereak hemen zaudela?

– Emazteak, nork ba.

– Ez duzu semerik laguntzeko?

– Antzua hartu nuen andrea.

Haurrik ez zutela, baserrira joan zirenean eman zion aditzera alkateak autoan. Galdetu egin zion hala ere Arrutik, ez daki garbi zergatik. Orduantxe ikusi zuen gizona aldartez mudatzen. Ez zebilen ezer gordeka aitortu zionean emazteak ez zuela maite, ez ziola arrimatzen uzten ohean.

– Azken aldia ere, erdi behartuta.

Beldur arrastoa bildu zitzaion bihotzondoan Arrutiri. Ez zegoen horrela hitz egiten entzuten ohitua. Aurreneko aldia zen emaztearen kontrako amorru hura sumatu ziola. Osterantzean, eraz egoten zen Epelde leiho zabalaren aurrean prestatua zion oholtzatxoaren gainean. Geldi, isil, ez zitzaion saioa amaitu baino lehen hurreratuko asto gaineko zirriborroei begia ematera. Ilunabar hartan, Arrutik opari emandako fosil batekin itzuli zen etxera Irineo Epelde.

Asteetako etena etorri zen ondoren, blokea harrobitik erauzi eta, tramiteak beteta, azkenik iritsi zen artekoa. Ordurako, Arrutik eginak zituen egin beharreko zirriborro guztiak. Garcia Pueyoren bisita ere izan zuen. Lehenengoan eman zion ameto buztin gorrian obratua zuen proiektuari. Harrira pasatzea baino ez zen falta.

– Ikusten, Arruti?

– Zer ikusi behar dut?

– Irineorekin eta zeurekin, biokin asmatu dugula bete-betean.

Halakoetan konturatzen zen Arruti berarekin zegoenean bakarrik etortzen zitzaiola gogora gutuna. Emazteak ez ikusteko, estudioan zeukan giltzapean. Ez zuen kezkatzerik nahi. Ahalik eta gutxiena pentsatzen ahalegintzen zen horretan, sinistuta zegoen ondo egin zuela Garcia Pueyori ez erakutsita.

Izenpetu gabe bota zuen idatzi zuenak. Zigiluaren gaineko markak, berriz, ez zion ezer errazten egilea nor izan zitekeen jakiteko. Ez zen beldurra, beldarra zen bihotz ondoan lokarturik zeraman gogortasun hura, halakoetan itzartzen zitzaiona. Seguru zegoen ez zitzaizkiola aurrez aurre azalpen eske joango, gertu zegoen egoera ulertzen ez zutenen begirunea galtzeko.

Ereñotik ekarritako blokean erreketearen burua agertzen hasia zela izan zuen Irineo Epelderen bisita. Ez zetorren eskultorearekin hitz egitera, gizonarekin egon nahi zuen. Harri ederra zen, gorrikara, beren-beregi aterea zuten harrobiko zainik ikusgarrienetik. Trenez egin zuen bidea Gernikatik.

– Ni ez naiz hori. Mutur-joka ibili naizela ematen du.

– Lasai, baldarrean nabil. Agertuko zara hor bazaude.

Aldatua ikusi zuen, ez zen aurreko egunetan begian begi izan zuen Irineo.

Goiz guztia eman zuten estudioan, irten gabe. Zertara joana zen. Ikustera nola geratuko zen jendearen aurrean, bazuela kezka hori. Baina bere irudiari atzea eman eta hizketan hasi zen, inoiz inorekin aritu izan ez balitz bezala. Leihotik sartzen zen argia hila zen oso, itsasoak beruna zekarren. Ordura arteko ez bezalako gizona agertu zitzaion Andres Arrutiri, izutu zuen zerbait ikusi zuen herriarentzat eredu izan behar zuen haren begietan. Emazteaz hizketan, hitzak elkarri lotu ahala, iruditu zitzaion Irineo Epelde Lemoatxeko erreketearen amorruari ari zitzaiola bidea ematen.

Handik ez hainbestera Garcia Pueyo azaldu zitzaionean ate joka, egun hartan Epelde aurrean zuela izan zituen sentipenak lotzen hasi zen Arruti.

– Arazo potoloa daukagu, Andres.

Erdi itoan zetorren delegatua. Nola zebilen eskulturarekin jakin nahi zuen, amaitua ote zuen, baina batez ere, zizelkaturik ote zuen aurpegia.

– Esan, egina daukazu?

Orduan ere, ez zen erantzuna entzuteko gai izan, Arrutiren aurretik joan zen karrajuan aurrera, estudioko ate bikiak zabaldu zituenean geratu zen. Horma alderik alde hartzen zuen leiho zabalaren aurrean, hantxe zegoen Irineo Epelde, handi, zen bezain eder. Kapoteko zimurrak ateratzen zebilen Arruti. Oinak harri barruan zituen oraindik, klarionez ondo markaturik, harpikoak noiz aterako zain. Baina aurpegia, atea zabaldu zionean esaten saiatu zen bezalaxe, osatu berri zuen, horretan eman zituen azken egunak. Sudurra zorrotz, kokotsa gorantz, begiak zindo txapelpean, marrazkietarako eroso posatu zuen Irineo bera zen itsas zabalari begira zegoen hura, Garcia Pueyok berak aginduta bezalaxe, nahita gaztetua doi bat.

– Beranduegi.

Etsita utzi zuen bere burua bermatzen Garcia Pueyok harri gorrizko erraldoiaren kontra.

– Zertarako beranduegi. Epe barruan gabiltza.

Uzkurtu egin zen bisitariaren begirada larriarekin.

– Irineo hilda agertu da.

Non, noiz, nola, erantzunik gabeko galderak izan ziren guztiak.

– Bera eta emaztea, biak. Ez dago ezer garbirik.

Lemoatxeko heroiaren soa galtzen zen puntuan, harrotua zebilen itsasoa. Ezin konta ahala ardi zelai azulean. Atzean, hodeien zamak amilarazitako zerua. Ezagutzen zuen haitz guztien izenak zekizkien jendea herrian.

– Eta orain zer?

– Orain, esandakoa. Ez da ezer aldatuko. Zuk segi lanean, ezin dugu egun bakar bat atzeratu.

Aurreneko bider, ez ziola aurpegira begiratzen ohartu zen Arruti.

– Eginahalak egiten ari gara Franco bera etor dadin inauguraziora.

Garcia Pueyori ateraino lagundu eta bakarrik gelditu zenean, Irineo Epelderekin hantxe bertan, kristalera handiaren aurrean emandako orduak berregin zituen Arrutik. Arraroa zitzaion bolumenik gabeko hutsune hura. Ikusi egiten zuen bere parean eserita, baso ardoa taburete gainean zuela, hizketa gozoan bera marrazten hasi aurretik. Begiak bete zitzaizkion. Borrak besteko bi esku zintzo, Belengo estalpeko idia baino nobleagoa. Amorruak hartu zion gogoa, halako errabia beroa zetorkion erraietatik gora, beso-zainetaraino. Buruak eta ez eskuek egin zuten lipar batez bidea. Mailuz eta zizelez txikitzen irudikatu zuen erral-

doiaren aurpegia. Jesarrita segitu zuen, baina. Besoak izter gainetan, burua makur. Harri-hautsez estalitako oinetakoetan begirada, txapela erantzi zuen. Ez zen pena modeloaren barruan aurkitu zuen gizonarengatik sentitzen zuena. Damua bai, elkarrekin izaniko sola-saldiez oroitzen hasi eta, buruan zerabilen susmoa egia izatera, etorkizunak ekarri ziena aurrez ikusteko gauza izan ez zelako.

# Txoria herioren gainetik

Ezjakin alaena, eta ni maoriena ote zen galdezka, izan ere, zer zen ederra hegazti hura.

Berrogeita hamarretik gora izango zituen ezagutu genuenean. Heldu berria zen, inork ez zuen begiz joa The Moonen biltzen ginenon artean, nola bada, adinez ere, askozaz gertuago baitzegoen gure gurasoengandik gutako edonorengandik baino. Bakarrik hasi zen azaltzen afalostean, txanda egokitzen zitzaidanean, lagunik gabe beti.

– Nire edadekoek nahikoa dute zorrak ordaintzen.

Barra ertzeko taburetean ematen zuen denbora, Apollo 11ren zuri-beltzeko argazkiaren azpian, zerbeza iluna eskatu eta inorekin hitzik egin gabe. Pare bat edaten zuen, bururik ere altxatu gabe, kirol-egunkariak irauten zion artean.

Txori zoragarri baten tatooa eta zilarrezko eraztun bat atzamar lodian.

– Alde ederreko eguraldia egingo du ba han.

– Nik ez nuen han hil nahi, ordea.

Ez zigun gurasoen lagunek bezala hitz egiten.

– Daukazun adinarekin? Mesedez.

Barre egiten genion.

– Han heriok zango arinagoak ditu.

Bazuen hizketan hori, bonbak bezalako esaldiak tarteka. Zerbaitetik ihesi etorria zela ulertu genion. Nondik, ez zigun zehaztu. Bizitza guztia omen zeraman kanpoan, eta herriaren deia baino, izua sentitu omen zuen egun batez.

– Nori izua?

– Zehatz, inori ere ez.

Hasieran lausoa zitzaigun dena. Hizkera ere halakoxea zuen, inguruetan inork ez bezala egiten zuen, aspaldikoa balitz bezala. Gaztelera nahasten zuenean ere, eta joera zuen, hemengoa ez bestekoa zuen. Barkamena eskatzen zigun maiz horregatik, lehenengoan ulertzen ez genituen hitzengatik, eta horrexek txokatzen gintuen, izan ere, zahar edo gazte, zenbat dira bada barkamena eskatzen dakitenak gure artean. Ozeanoaren bestaldeko doinua zuen, inork asmatu ezin izan genuen arren zehazten nongoa. Rio Bravotik Ushuaiara, Habanatik Atacamara, geuk bakarrik dakigu zenbat jira eta buelta eman genion denborarekin denon artean osatzea lortu genuen mapari ebakera hura kokatzeko

– Eta zer da zango arinak izatea?

– Zango arinak izatea da asperduraz behintzat ez hiltzea.

Gurekin jolasean ari balitz bezala aritzen zen, ez ohikoa zelako geuri ere gustagarria zitzaigun maneran. Eta halaxe, egunak laburtzen eta hozten hasi zirenean, iluntzeetako olgeta bihurtu zitzaigun. Kostatu zitzaigun izenez ere deitzea.

– Dardoetan jokatu nahi, Ramon?

Maoria ez zen tatuaje hura The Moonen hegan.

Ukondoa bilduta, gure aldean asko pentsatu gabe jaurtitzen zuen dianara.

Hala jakin genuen sandinistek Nikaraguan irabazi zutenean joan zela aurrenekoz mundu hobe baten eraikuntzan igeltsero izan zitekeela sinistuta, alfabetizazio kanpainan parte hartzera. Horiexek haren ahotik atera ziren hitzak, mundu hobe baten eraikuntzan igeltsero, izena bera lauso zitzaigun iraultzari eskainia gogoa eta denbora.

– Nagusiei irakurtzen erakustera?

– Nola da hori, Ramon?

Konturatzerako, katuaren eta saguaren legean katigatuta genbiltzan. Jendea urri zebilen tabernetan ordurako, aste barruak basamortu bilakatuak ziren. Eta

han izaten ginen, noiz agertuko Ramon bere txokora, Mare Tranquillitatisen pausaturiko espazio-ontziaren argazkiaren azpian. Egunari amaiera emateko era atsegina zen hura hizketan entzutea, bereak baitziren hitzak batez ere. Geuk tentatuta beti, inoiz entzun gabeko hamaika kontu agertzen zen gauero The Mooneko barran. Momentuan ulertzen ez genituen istorio asko, lotura zailak. Ramonek alde egin, sarritan adiskideek lagunduta taberna zarratu eta etxeratu orduko osatzen genuen gainontzekoa, gau hartako momenturen batean edo bestean berak, nahi gabe bezala, erortzen utzitako hari muturrei tiraka. Datak izaten ziren, edo toki izenak gehienetan, edo pertsonenak, guretzako entzun gabeak beti. Bakarrean aritzen ginen aurrena, gero geure artean hizketan eginda osatzen genuen puzzlea. Berak bazekien egingo genuela; guk bagenekien berak bazekiela. Ramon seduktore intelektuala zela esaten zidan Aitziberrek garai hartan. Ez zebilen oker. Lehenbiziko araua, betetzen zuen. Ramon ez zen batere harroa, edo hala iruditzen zitzaidan niri behintzat.

Izenetan, bat geratu zait datu zaparrada hartatik, Georgino Andrade. Berarekin egon zela esaten zigun hura hil bezperan, eta hain etxeko egin zitzaigun,

Georgino Andrade mito bilakatu zitzaigun. Sandinistek boterea iritsi eta egin zuten aurreneko gauza izan zen alfabetizazio kanpainarena. Munduko txoko guztietako milaka brigadista bildu zituen ilusioaren haizeak, milaka igeltsero Nikaraguako behartsuenek irakurtzen eta idazten ikas zezaten. Sandinista zen Andrade, Honduraseko mugatik gertu hil zuten, irakasle atzerritarrak babesten ari zela. Han zen Ramon gazteago bat egun hartan, guardia somozista ohiek eraso egin zietenean. Hiltzen ikusi zuela zioen.

Sistemak ezkutatzen zigun errealitatea zen Ramonek zabaldu ziguna, hala errepikatzen genuen. Gordeaz ematen zuen esaten zuena baino gehiago. Eta guk halako zerbait behar genuen asperdura mortal hartatik ateratzeko.

Askori hamar aldiz bizita ere inoiz ezagutzea gertatuko ez zaion pertsona bat zen.

– Baina zergatik joan zinen hemendik?

Eta mundua antzaldatu egiten zitzaigun Ramoni entzuten. Iragan berri zen udazkeneko argia zirudien, ederra eta berezia, beste garai batekoa ez dakit, baina akidurak zikindu gabea behintzat. Lehenbiziko aldiz, gure hiztegian ametsik xaloenean egundo sartu gabeko hitzak erabiltzen harrapatu genuen geure burua,

mundu zuzenago baten esperantza, justizia soziala, herrien arteko elkartasuna eta horrelakoak. The Moon sortu zutenei, Pellori, Marianen nebari eta hauen lagunei legena ateratzeko moduko berbamodua Ramonen kausaz ilargian nagusitu zena.

Heldu behar zuen, ikusten genuen Alaitzek eta beste neskok. Taldeko mutilak jeloskortzen hasita zeuden. Susmoa zena berehala bihurtu zen trumoi. Ahohandi bat zen Ramon, asmatutakoak ziren kontatzen zizkigun istorioak. Azkenean, garbi esan ziguten. Ez omen zuen beste helbururik gutakoren bat harrapatzea besterik, itsu batek ere ikusiko omen zuen hori.

Minduta sentitzea, ulertzekoa zen, dardotan ere, irabazi egiten baitzien. Abila zen Ramon, 301ean aritzen ginen batez ere.

– Denbora zerbaitetan eman beharra genuen han.

Helduei eskolak eman eta gero, esan nahi zuen. Kubatik bidalitako eskuliburuak erabiltzen ziren alfabetatze kanpainetan, Europatik helarazitako eskolagaiei esker atontzen zituzten gelak. Geure begiz ikusi genuen gau batean, geuk bezperan eskatuta, ekarri zizkigun argazkietan: zurezko etxolak oihanaren ahoan, eta banderak masta puntan, patioaren erdian, *Territorio Victorioso de Analfabetismo.* Irudietatik ha-

rantzagokoa, aditu egiten genuen, Reagan zaunka eta CIAk hazitako *contra* hozkadaka maisu-maistren orkatiletan. Gerra bat zen: armak liburuen aurka. Hara mundua haragi bizitan: kitzikagarri zitzaigun epikotasun solidarioa errukiarekin batzen zitzaigun eremu zehaztugabe hartan.

– Andraderena ere asmatu egin duela esaten ari zarete?

– Buztanikara bat dun. Zuetako bati jo arteko onik ez din horrek.

Neska-lagunak beste batengatik utzi zuenean konturatu omen zen, biluztu zitzaigun gau batean, ez zegoela hemen lotzen zuen ezer. Ez zuen hil arteko lan batean hasi nahi.

– Lagunak, deitzeko era bat da, soldadutzatik etorri eta ezkondu egiten ziren.

Aitziber eta biok bakarrik geunden batean izan zen.

– Zikloaren hasieran geunden. Gurasoen bizimodu bera eramateko prestatzen ari zen institutu garaian mundua aldatu behar zuen jende hura.

– Zaputza hartu zenuelako alde egin zenuen orduan, elkartasunak deituta baino.

– Hemen ametsik bete ezin nuelako joan nintzen.

– Norberaren ametsez ari zara ala kolektiboez?

– Ametsak ametsak dira beti.

Zerbait pitzatzen hasi zitzaigun Ramonen jardunean.

– Eta orduan iraultzaren deiaren kontu hori...

– Zerbait berria gauzatzeko aukera gehiago nuen han.

Eta buelta berriro, kostara oraingoan, gobernu sandinistak miskitoekin egindako trakeskeriak leuntzera. Justizia ekartzera heldua zen gobernuak ez zuen, antza, nahikoa sentsibilitate erakutsi jatorrizko herriekin. Iraultzak zimurrak zituen, zeharkako mekanismoak piztu behar izan omen zituen ilusioaren indarra mantentzeko. Hizkuntza gutxituen arteko zeretik heldu zion miskitoen arazoari. Liburuekin berriz ere gure Ramon.

– Ez nuen sekula burnia hartu.

Gorotz handi bat dena.

– Benetan?

Eta iruditzen hasi zitzaigun, urteak igaroagatik, atergabean ari zuela goibel aire batez kontatzen zigun hura. Xehe-xehe, bihotzaren zolan zeramala lika eginda, ez zela ozeanoaren bestaldean geratu han bizitakoa, eta okerrena zena, ez ziola hemen libre izaten

utziko. Orduan ohartu ginen, nik uste, liburuek armak erabiltzetik babesten zuten bezala libratzen zuela alfabetizazioaren inguruko jardun hark bere bizitza afektiboa kontatzetik. Baina susmoa baino ez zen, bat gehiago ordurako.

Behin, Ekaitz etorri zen berriarekin. Etxean Ramon atera hizpidera eta alabaren bat ote zuen Ameriketan, hala esan ziola aitak. Adin alde handirik ez zuten, bazutela elkarren ezagutza. Drogekin ere ibilia zela garai batean, Nikaraguako hura sortu eta arrastoa galdu zitzaion arte. Nolanahi ere, ezer garbirik ez. Urte gehiegi eraman zuen ilunpeetan, herrikoen begietatik gordean. Nahikoa inor galdetzen ez ausartzeko.

Langarra zen, itzal, laino. Naufragio apakina olatuek halako batean lehorrera itzuli zutena. Handik atzera kontatu zizkigunak, porrotetik porrotera bizitakoak, haurrek jostailuak ohepeko kutxan bezala pilatzen joan ziren, inongo ordenarik gabe, tropoiloan. El Salvador, Bolivia, Chiapas... irakasle, inprentako langile, publizitate banatzaile, turista europarren gida, ostalari... Orriaren margenean beti, inoiz iristen ez zen gizarte hobe baten ametsean, hantxe.

– Zertan, Ramon?

– Eusten.

– Eta hemen, zer egiten duzu orain?

– Aspertu. Hango heriotzak behintzat ez harrapatzeko.

Eutsi, eutsi hemen ere, zer egingo zuen lanik gabe galdetzen zidan. Tarteka, ateratzen zitzaiola zerbait, baina ezer gutxi. Udaleko zerbitzu sozialek eman berri zioten laguntzatik bizi zen. Eskerrak arrebak utzi zion gurasoen etxe zaharrean sartzen.

Berriz ere iheserako prestatzen ari zen susmoa hartu nion.

Neguko iluntasuna saretzen hasi zen, egunak luzatzen. Lagunak ez ziren dagoeneko The Moonen biltzen, argi gosea zutela zioten. Gainera, ordurako amaitua zen Ramonen nobedadea, ez zen arean arrastorik geratzen hasierako lilura hartatik. Etortzen, berdin segitzen zuen, betiko orduan. Bi jokalarirentzat bakarrik prestatzen nuen dardoen makina.

Bakarrik geratzen ari ginen.

Inor ez zebilen gau batean, The Mooneko kanpoko argia itzali arte itxaron zuen. Lagundu egingo zidala biltegira poto handiko botila hutsak kaxa ozpinduetan sartzen. Kamerak beteta, eskaileretan behera, neure atzetik etorri zen ilargiaren bestaldera.

Aitziberrekin izandako elkarrizketez akordatu nintzen.

Horrek hirekin nahi din.

Argia piztu nuen, seguru nengoen atzetik etorriko zitzaidala. Haren eskua sentitu nuen nireari eusten, soina gainean, nire ahoaren bila haren hatsa. Bertatik bertara nituen txoriaren hegalak, izerdiak garraztuak. Ezpainak estutu nituen. Ezetz egin nion buruaz. Begiak begien bila, erreguka legez. Atzerantz egin zuen. Beha nuen. Denborak behar zuen arnasa hartu zuen. Errudun sentitu nintzen, neure burua madarikatu nuen horretarainoko ustea eman niolako. Behingo bateko erabakia izan zen. Ez nuen, haatik, txarrean konpontzerik nahi.

– Zergatik txori bat?

Orduan hitz egin zidan alabaz, Ekaitzen solasean inoiz lausotan agertu zitzaigun hartaz. Alfabetizazio kanpainan zebilela ez, gerora izan zuela azaldu zidan, argitu gabe norekin.

– Non bizi da orain?

– Han.

– Ez duzu ekarri behar?

Biltegitik kanpora jo genuen. Ez zela ume-umea izango pentsatu nuen. Beragatik zeraman besondoan

txoria. Usadioa omen zen han, alaba izaten zuten gizon askok egiten zuten hegaztiaren tatuajea. Txoriak zer izen zuen ere, esan zidan. Ez dut gogoan. Izen bera jarri omen zion jaio zen egunean. Ohi zuen legez, askatasunari buruzko istorio harrigarri batez apaindu zidan istorioa. Zerbait aldatua zen nire barnean. Txoriarena, ez nuen Interneten kontsultatu. Akabo zen jolasa.

– Umea amaren kargu utzita segitu zenuen iraultzan?

– Han hala da. Ezin duzu hemengo begiz epaitu hangoa.

Ez zen hurrengo egunean agertu, ezta hurrengoetan ere, eta arnasbideetatik zabaldu zitzaidan lasaitasuna. Ez nuen beharrik sentitu gertatutakoaren berri emateko inori, ezta Aitziberri ere. Gauzak are korapilatsuago egiteko besterik ez zuen balioko. Noizean behin gertatzen diren begizta horietako bat besterik ez zen izan, nik zer dakit ba nola azaldu, astiro egosten datorren zerbait bururaino eramateko tentazioa, jakinki hurrengo egunean akabo dela. Sedukzio jolasek badute hori, are gehiago goitik behera badatozkizu. Erantzun bat ala beste bat izan dezakeen soluzio

zuzenik gabeko egoera bizi beharreko bat, besterik gabe, zertarako eman buelta gehiago.

Dozena erdi bat aldiz ikusi nuen Ramon ondorengo asteetan, eta sekula ere ez bakarrik. The Moonera agertu zen hurrengoan, bere ondotik alde egiten ez zuten hiru gizonezkorekin etorri zen, neu nengoela barran. Ematen zizkien azalpenei erreparatuta, herrira iritsi berriak ziruditen. Hala hasi ziren azaltzen The Moonera tartean behin. Berak ordaintzen zuen beti.

Eskatutakoa hartu, dardoetan partidaren batzuk jokatu eta joan egiten ziren. Ez zuen haien kontra gurekin erakutsi zuen nagusitasunik. Sueltoago egiten zuen algara. Hizkeragatik, ozeanoaren bestaldekoak ziren guztiak. Eroso ikusten nuen, bere benetako mundua norekin partekatu aurkitu izan balu bezala. Behin bakarrik izan nuen berarekin lasai antzean hitz egiteko parada. Ordura arte ez bezala agertu nintzaion, beldur nintzen okerreko ondorioren bat aterako zuen. Berak ere ez zuen ahalegin handirik egin ezagutu izan nuen Ramon hura izateko. Aitziberrez galdetu zidan, Aioraz, Ekaitzez, gainontzekoez, ea ondo zebiltzan guztiak, zer egiteko asmoa genuen udan, ea kanpora nindoan. Erantzuna bost axola zitzaion galderak guztiak. Lasaitu adina tristatu ninduen bion hoztasunak.

Pena sentitu nuen, ondo azaltzen ez badakit ere zergatik. Biok galdu genuen guztiagatik beharbada. Amorragarria zitzaidan desegiten ikustea hainbeste ez zela ere Ramonek gugan piztea lortu zuen hura. Garbi zegoen helduak ginela tontorrera, goitik beherako malkarra genuen orain. Irribarre erori hura ikusi nion azken eguna izan zen. Gizon presoa izaten segitzen zuen, baina beste zerbaitena ordurako.

Edarien ganbera konpontzera etorri zen teknikariak eman zidan albistea. Goizeko kontua zen, hala ari zirela esaten. Sasoiko gizon bat agertu zen hilda errepidean, pintura fabrikatik gorako bihurguneetan, oiloen etxaldera heldu aurretiko horretan. Hautsiak zituen zango-besoak, eta kolpe handia zuen burualdean. Ia jo omen zuen bide erdira ateratako bultoa alban aurkitu zuen kamioizaleak. Litekeena zela auto batek harrapatu eta ihes egin izatea. Irratian, eguerdiko albistegian eman zuten. Ez zekiten nor zen, hipotesi guztiak omen zeuden zabalik, betiko hitzak. Auto gidariaren bila omen zebiltzan. Lekuko eske ari ziren.

Handik hiru egunera, trokeleria abandonatu batean aurkitu zuten odol putzuarekin lotu zen gertaera. Ikerketak beste norabide bat hartua omen zuen. Bazitekeela, esaten hasi ziren, fabrikako odola errepidean

aurkitutako gizonarena izatea. Arakatua zuten orubea ikerketan. Kobre lapurretan ari zela, zergatik ez dakitela, goi samarretik erori zenean. Lagunek jaso eta sartuko zuten autoan, seguruenik bizirik, ospitaleren batera eramateko asmoz. Baina bidean hil eta, zer egin asmatu ezinik, kamioilariak aurkitu zuen tokian utzi zutela. Horrekin zebilen polizia eta horrelaxe argitaratu zen egunkari guztietan.

Nor zen, hori zen argitzeko falta zena. Filtrazioen arabera, ez zirudien inguruetakoa. Etxetik urrun, hemengo heriok harrapatu zuen, nonbait. Argazki bat ere zabaldu zen hedabideetan, identifikazioan lagunduko zuelakoan. Hildakoak besondoan zeraman tatuajea zen, hegazti batena. Bihotza uzkurtu zitzaidan. Txori bat hegan, marrazki maoria izan zitekeena. Begiak galdu nituen hegalen marra bakoitzean, buruko gandorrean. Ez nuen askorik behar izan jabaltzeko. Ramonena izan zitekeen, baina bestaldera zuen burua hark, eta laburragoa hegoa.

Biltegiko gauean kasik ezpain artean aterpetu nuen txoria, herioren gainetik hegan.

Albisteak herria aztoratu zuenetik, ez nuen gehiagotan ikusi. Ez bera eta ez berarekin The Moonera agertu izan ziren hiru gizon gazteak.

Susmoa hartuta heldu nintzen neu ere gau hartako kable lapurreta, errepideko gorpua eta Ramonen desagertzea lotzera. Hildakoari buruzko ikerketak isilean jarraituko zuen, ez baitzen albiste gehiago agertu hurrengo egunetan. Bazitekeen tatuajearekin oker egotea, baina Ramon izan balitz arrebak identifikatuko zuela pentsatu nuen. Jendeak ere laster ahaztu zuen dena. Ni, berriz, gaixotu egin nintzen pentsatuta zer izan behar duen zoruaren kontra zukututako laguna errepidean uztea. Ospitalera iritsi ezin, odol beroan hartutako erabakia. Ramon zetorkidan, gauerdian ihesi, gordean hurrengo egunetan, auskalo non hegazkin bat hartu eta izua oinetan, putzu handia behean zuela, Managuako, La Pazeko, Habanako aireportura heldu arteko onik gabe. Pasaportea polizia baten eskuetan. Zegoen tokian zegoela, lorerik gabe ikusten nuen Georgino Andraderen hilobia. Ze urrun ametsak eder eta egingarri zitzaizkion garaitik. Beharbada aireportutik bertatik deituko zion txori izena zuen alabari, berak bakarrik esaten zekien eran, samur, arrai, itzulia zela esateko, ez zuela berriz abandonatuko, bere ondoan izango zuela behar zuenerako, barkatzeko.

# Burnia

Pistola bat zegoela etxean, ganbara garbitzeko erabakia hartu zen bazkalostean jakin nuen. Aitonarena omen zen. Baina ez zuen, argi laga zen hasieratik, inoiz dantzatu beharrik izan. Ibili bai, aldean eraman zuen urtetan, hala esan zidan izeba Pilarrek berriak eragin zidan ezinegonari ahotsa batere harrotu gabe erantzunez. Ahizparen hitz berberak erabilita berretsi zuen amak. Nire asaldura gazteak ez zuen zirkinik txikiena eragin, ordea. Txist eta pist bildu zuten dena biek, eta batak kafea egiten zuen bitartean, azukreontzia eta kikarak jarri zituen besteak mahai gainean.

Ez ohiko objektu bat burutik inoiz pasatuko ez zitzaidan pertsonari lotua, hor dago harriduraren erdia. Haren jabea etxekoa izateak osatzen du gainontzekoa. Horrexek eragin zidan ezinegona, aitona ez baitzen gerran ibilia. Adore nahikorik ez familia utzi eta batzuekin joateko, adinean zaharregitxo besteek frontera behartuta eramateko, olatuaren zain etxean geratzea erabaki zuenetakoa izan zen. Jakina bazekiela helduko zena, baina zekarren amorrua ahalik eta az-

karrena pasatu eta indarra bitsetan berehala desegingo zen esperantzaz jaikitzen zen egunero emaztearen ondoan.

– Zuen aitita lanaren alderdikoa izan zunan beti. Amama gogorragoa zunan.

Galtzaileetakoa esan nahi zuten.

Zigortua alkandorak jostera. Zigortua hiru soldadu etxean apopilo edukitzera.

Lanerako erabiltzen zuen pistola, hori berehala argitu zidaten bi ahizpek, amak aurrea hartuta izebari. Dardara egiten zion eskuak kafe kikara betea batetik bestera eramatean. Etxeko gehiagok ere badu gaitz bera, dardara geldiezin bat zerbait mugitu behar dutenean batetik bestera, Parkinsonarekin zerikusirik ez duena, biek esatera. Suelto egiten du barre, ahizparekin dagoenean bakarrik horrela, baina.

– Zertarako behar zuen pistola bere lanean?

Aitonak basilika bideko zerran egiten baitzuen. Gomutan dut nola joan izan ohi nintzen amarekin eta izeba Pilarrekin, ni oso ume. Goroldioa eta garo etzanak teila artean, denborak eta hezetasunak makurrarazitako estalpe bat zegoen kamio bazterrean, kubo itxurako eraikin horixka zuela lokaztutako bidezidorraren bestaldean: bulegoak. Alferrik omen zen, saiatua-

gatik beti zikintzen nituen oinetakoak gurpilek beratutako lur beltzean. Eta hori ez, baina txirbilaren usaina datorkit oraindik lausotan, eta zahia makinen, olen, langileen txapel beltzen, sorbalden, oinetakoen gainean pausatua. Zerraren negarra enborra zauritzen. Gu sartzen ikusi orduko isilarazten zuten. Kamioiak ere badatozkit akordura, muturra kanporantz zuten harria baino gogorragoko haiek, eta amonaren tarteko-edo egiten zen gizon handi bat bolanteari biraka, gerora kontatuko zidaten, halako batean herri barruan zihoala, espero gabe ume bat atera espaloitik antxintxika, kamioi azpian sartu eta harrezkero betiko gaixotu gizona. Ez omen zuen gehiago txofer egin.

Zertara joaten ginen, horixe ezin ekarri gogora.

– Merienda eramatera. Ez akordatzen?

Irudi lausoak amaren begi harrituekin borrokan.

– Ederra ateratzen zaizu ba!

Amak ahizpari orain bezalaxe eskertzen ziola aitonak ere arratsaldeko mokadutxoa, termoan eramaten genion kafeagatik batez ere, erantsi du irribarrez solasak, ttanttana botatzen geniolako zure amama enteratu gabe.

Eta ezpainekin batera begiak zimurtzen dituzte biek.

Bigarrengoz galdetu behar izan nien burnia aldean eramatearen zergatiaz, gero eta sarriago gertatzen baitzaie biei, elkarrekin daudela, hitzetik hitzera salto-saltoka, hizketan hasi eta ahaztea zertaz ari diren.

Gaur egun ez dago zerraren aztarren txikienik. Edonork ez erosteko moduko etxebizitzak egin dituzte lehen hura egon zen orubean. Bulegoen tokian, auzokideentzat bakarrik den parking zabal bat, barrera zuri-gorri batek babestua eta marrak txukun margotuak galipot zabaldu berrian. Hantxe uzten dituzte automobilak, furgonetak, autokarabanak bizilagunek. Igerileku txiki bat du etxeak teilatuan, baina bata dela edo bestea, ez omen diote hasieran esperotako etekinik ateratzen putzuari. Lagun baten alaba oraintxe bertara joan delako hara daki hori amak.

– Hara bestea, basoan ibiltzeko! Zertarako beharko zinan ba!

Hala zabaldu zitzaidan ordura arte entzun gabea nintzen leihoa, baso-lanean aritzen zirenek pistola eramaten zutelakoa, lapurrak ibiltzen zirela sasoi hartan mendian, eta haiek beldurtzeko. Dirua aipatu zuen izebak, egur-tratua egindakoan jakinaren gainean egoten zela jendea maiz, horrexegatik.

Gerraostean utzi omen zion basoari, zerran hasteko. Ordutik egongo zen burnia ganbaran, auskalo non gordea. Ea ikusia duten, eta baietz ahizpa biek. Ezkondu artekoan, pistola bat, bueltak ematen zituen danbortxo batekin. Biek aipatzen dute danbortxoa. Izebak ez du balarik gogoan. Amak ere ez.

– Errebolberra?

– Oso abila zunan kalkuluan. Zerran hasita zegoela ere, askotan deitzen ziotenan. Ez zekinan idazten, baina arbolaren aurrean jarri metro kuboak kalkulatzeko, eta edozeinek lapitzarekin eta paperarekin baino azkarrago ateratzen zinan kontua.

Gaixotu egin nintzen, errebolber hark hartu zidan gogoa, neuk aurkitu beharra nuen ganbara husten hasi eta edonoren eskuetan erori aurretik. Ez ezertarako behar nuelako, objektuak berak eragiten zidan zirraragatik baizik.

Bata zela eta bestea, dena atzeratu zen. Hori neure alde. Ahal nuenetan, ia astebururo etxera joaten nintzela aprobetxatuta, izebaren etxe zaharreko ganbarara igotzen hasi nintzen. Urte asko neraman bertan sartu gabe. Oroitean gordea nuen bezalaxe zegoen dena: egurrezko zoru handi bat, zutika jarritako ohol ilun zahar batzuek bereizten zutena aldameneko-

arenetik. Gaztaina-egurra, hala esaten zuen aitonak. Oiloak-eta izan zituztelako garai batean, tente eusten zion sareak txokorrean. Hain zegoen, ordea, herdoilak jana tarteka, desegin egiten zitzaidan esku artean. Eta huraxe garbien. Kotatik kanpo, dena zen altzari zahar eta eutsi orduko desegiten zen kartoizko kutxa umeldu. Alferrikako trasteen elemenia iluna, familiaren historia zabor bidez berregiteko beste. Belaunaldiz belaunaldiko Diogenesen erresuma teilatupe hartan. Dena husteko asmoa zuen izeba Pilarrek, igeltseroei porlana botarazi eta hormak jasotzekoa, egunen batean saldu nahi bazen ere.

Hala soltatzen zuen tarteka. Haserre egiten zion gure amak:

– Saldu? Zertarako beharrik ez den bitartean?

Lehenengo bueltan egin nuen hanka-sartzea arratsaldez joanda. Egun argiz baino ezin zen han ezer bilatu, ez baitzegoen argi-indarrik. Arropa zaharrekin joaten ere, bigarren osterarako ikasi nuen. Unibertsitatetik bueltako lau bat larunbat erabili nituen alferrikako zeregin hartan. Amaraun eta hauts artean, itxuraz hainbeste ez zela zabaldutako arratoientzako pozoia ere bazegoen izkinetan. Kutxa zahar guztietan gogoz ikusmiratuagatik, han ez zen pistolarik ageri.

Kalean harrapatuta, aitonarekin lanean ibilitako pare bat lagunekin egoteko aukera ere, izan nuen. Inork ez zuen gogoan. Gezurretan ari zitzaizkidan bestela.

– Zuen aititak pistola? Egurrezko fusila bai, kalean gora eta behera ibiltzeko!

Horrela ekiten ziotenean hasi nintzen neurria hartzen etxean pasatutakoari. Egun seinalatuetan ateratzen zituzten desfilatzera irabazleen burla-hots artean. Gora eta behera herriko kaleetan, banderaz jantzitako balkoietan jendea pilatzen zen ikuskizuna ez galtzeko. Eta han bera, egurrezko fusila sorbalda gainean, erne pausoa, ez hainbeste beragatik, ezpada etxekoengatik.

– Eta eskerrak mutua zen gure ama hori, bestela ez dakit zer egingo zioten.

Errekak berarekin zeraman legarra zen aitona.

Ama berehala nuen uzteko esaka. Gauzak ez direla beti norberak buruan gorde ohi dituen bezala gertatu, horixe adierazi zuen, beste hitz batzuekin esanda. Aspaldiko kontuak direla, bazitekeela pistola hura norbaiti eman edo, beldurrez, erreka-zuloren batera bota izana.

– Aititak berak?

– Edo beste baten batek, zer axola dio.

Zentzua, bazuen. Baso-lanak utziz geroztik, aitonak ez zuen ezertarako behar, eta gero etorri zena ikusita, galgarri ere gerta zitekeen burnia etxean gordetzea.

Etsiak jota nengoela aurkitu nuen, gapirio batean ostenduta, eskuko eskaileraren gainean zangalatrau nenbilela teilatupea arakatzen. Zatar batean zegoen bildua, listariz estutua. Izeba Pilarrek esanda bezalaxe, errebolberra zen. Eta ez urruti obratua: *Orbea, marca registrada*. Moteldua zuen kanoiko metalaren dirdira. Zalantza izan nuen. Kontuz lagunduta, baratxe zabaldu zen danborra. Bost tirokoa zen eta hutsik zegoen. Beldurrik gabe sartu nuen eskua zuloan. Ez zen han balen aztarrenik.

Oraindik ere zergatik ez dakidala, ez nion aurkikuntzaren berri eman nahi izebari, are gutxiago amari. Banekien nola hartuko zuten albistea, eta ez nuen gogo handirik ahizpa bien urduritasunak itota, aurkitzen hainbeste kostatutakoa auskalo non utzi behar izateko. Etxera eraman eta liburu artean gorde nuen, apalategi barrenean. Ezer ez esatea erabaki nuen pistola hartaz pixka bat gehiago jakin arte. Eta banekien nora jo.

Fakultatean bazen Eibarko armagintzaz beste inork baino gehiago zekien irakasle bat. Seguru nengoen berari esker lortuko nuela jakitea noizkoa zen *Orbea* hura. Katalogatutako arma izango zen, arrunta zirudien itxura batera behintzat. Hori jakinda, errazagoa izango nuen pistolaren arrastoa segitzea, eta bide batez, baita nola heldu zen aitonarengana ere. Halaxe atera nuen errebolberra ezkutalekutik. Motxilatxoan sartu eta zakua gidariaren ondoko aulki gainean lagata hartu nuen orduan nuen auto zaharra, izeba Pilarrek berria erosi zuenean opari eman zidan hura.

Eguraldi lardatsa zen, ez zirudien trafiko handirik zebilenik. Ez neraman hogei minuturik bidean bristada bat iruditu zitzaidanean. Abiadura makaldu nuen. Errepideko tantek garbitu orduko lohitzen zidaten aurreko kristala. Ez nengoen oker, oraingoan garbi ikusi nuen kliska aurrez zetorkidan autoaren argietan. Gidariari begiratu eta, parean nuenean, aurrean zerbait neukala jakinarazi nahi zidan keinua egin zidan, garbi ikusi nuen. Orduantxe etorri zitzaidan bristada niri ere: pistola. Kontrola bazen, seguru geratuko nindutela. Errebolberra zaharra zen, agerian zegoen, baina banekien gauzak zenbat konplika zitezkeen halakoetan. Azkar pentsatu beharra neukan. Badaezpada ere,

hobe maniobra arrarorik ez egitea. Irratia itzali nuen, oraindik ez dakit zergatik, buruari lasai lan egiten uzteko agian. Betiko tokian bazeuden, astia nuen. Zorionez, kamioi bat nuen aurretik. Leihoari eragin eta haize hotzak ebaki zidan azala. Tantak sartzen zitzaizkidan barrura. Gidatzeari utzi gabe, motxila zabaldu eta haztamuka bilatu nuen aitonaren errebolberra. Ispiluan begiratu nuen. Inor ez atzetik.

Atertu zuela ikusita, arratsalde hartan bertan itzuli nintzen pistola bota nuen tokira. Ez zitzaidan nekeza egin autoa inguruan uztea. Lasai nengoen, ondo nekien non jaurti nuen. Baserri baterako pista, bihurgune itxi samarra, beste ehun bat metro edo, eta hantxe irentsi zuen petrilaren atzeko sastrakak aitonaren urteetako sekretua.

Han ez zegoen ezer, ordea. Behin eta berriro aztarka arituagatik, han ez zen pistolarik ageri. Aise egin nuen ezpondan behera, sasitza ez zen ez topatzeko bezain sarria. Urduritzen hasi nintzen. Eguerdiak berarekin eraman zuen lanbroa madarikatu nuen, praka barrenak bustitzen nenbilen. Abar baten bila joan eta berehala nintzen txarrantxa mataza hura amorruz txikitzen. Lur hezearen usaina sudurmintzetan gora. Bozina jo zidan auto batek pasaeran. Izerdi hotza etorri

zitzaidan kolpetik. Nahastuta ote nenbilen bada. Lau hankan igo errepidera, bidea desibili eta autoan egindako azken metroak berregin nituen. Tartean, errebolberraren pisuaren pareko harri baten bila ibili nintzen. Petrilera itzuli eta gidatzen nindoala egin nuen keinu bera egin nuen. Hara pisuaren hotsa, hilduratua, sasi artean galtzen. Han behar zuen, non bestela. Badaezpada, oker egon nintekeen, zabaldu egin nuen bilatze eremua. Ezer ez. Hipotesi guztiak aztertu nituen. Itzuli nintzen beste pare bat aldiz ere, baina alferrik. Etxean, arrazoi eman nion amari. Etsi egin nuen ganbara zahar hartan.

– Esaten ninan nik ez hunala ezer aurkituko.

Eta dardara egiten zion eskuak kafe kikara zekarkidala mahaira.

Dardara hura Argentinan ikusi nuen ostera, handik urte batzuetara, amaren lehengusu baten eskuetan. Oporretan nintzen Patagonian, auskalo zergatik, gizonari sartu-irtena egitea otu zitzaidanean. Solairu bakarreko etxe baten aurrean utzi ninduen autobus geltokian hartu nuen taxiak, gerrirainoko hesi berdea etxea inguratzen. Lehengusinaren alaba nintzela, kasu egitera baino ez nintzela joan. Aurreneko senidea nintzen, nonbait, munduaren azken ipurdi hartara hel-

tzen. Bereak izan ziren hitzak, munduaren azken ipurdia. Bisita nola eskertu ez zekiela, arren eta arren, afaltzen geratzeko eskatu zidan, gauza asko kontatu behar genizkiola elkarri. Dei bat egin nuen, pentsiora, ez nintzela agertuko esateko. Bat baino gehiago berak. Nor norekin lotzen asmatzen ez nuen izen-amarauna ehundu zuen telefonoz. Eskutik askatu gabe, enpanadillak gustuko nituen galdetu zidan, eta ohartzerako, eskatzen sentitu nuen. Astia genuen. Autoan sartu eta hondartza triste bat ikustera eraman ninduen afari orduan heldu artean. Udan ere ez zuela alaiegia izan behar begitandu zitzaidan. Zikin zegoen, olatuak bezainbeste. Paseoko aparkaleku hutsa mugatzen, lumaz eginak ziruditen zuhaitzak. Inguruetan ez zegoen ezer zabalik. Zeru iluna itsasoan islatua; eta haizea oro urratzen, hegoaldean nenbilenetik egun bakar batean bakarrik utzi ez ninduen orrazi zakarra. Polizia-auto bat baino ez zebilen, jira eta bira beti bera. Kiroldegiaren aurrean, bospasei lagun jaitsi ziren El Veloz Patagón konpainiako bus zuri-urdin batetik. Automobiletik gehiegi urrundu gabe egon ginen ozeanoari begira.

Gozoa zuen ahotsa, gure familian inork ez bezalakoa.

– Alde ederreko ingurua duzue han.

– Hau ere ederra da.

Ilargi hondatu bat munduan.

Besoa luzatu zuen aurrenekoan ulertu ez nion zerbait galdetzeko. Atzamarrak zer erakutsiko, etxe zapalen teilatuak muino soildu baten gibelean kukuka. Antena parabolikoak zeuden leiho askotan, laztasun hura ez ikusteko begiak.

– Ez zenuke gauza bera esango han goian bagina.

Amaren eta izeba Pilarren dardara bera, autoko giltzei eusten.

– Biak bakarrik bizi dira herrian. Txakurra eta katua bezala egunero, baina elkarren beharra.

Orain gogoan ez ditudan izenez aurkeztu zizkidan heldu ahala jangelan sartzen hasi zirenak, adin guztietako jendea arrotzaren ikuskizunera hurbildua. Bere ondoan eserarazi ninduten, izango genuela elkarri zer kontatu-eta. YPFn, petrolio enpresa nazionalean egin izan zuen lan erretiroa hartu zuen arte. Urte onak izan ziren pribatizazioaren aurrekoak. Eskola duina zegoen, doako medikuak, subentzionatuta zeuden beharrizan oinarrizkoak asetzeko gaiak. Saritu behar zen jendea Hegoaldean bizi zedin. Ordurako esana zidan gure familiako inor ez zela haraino iritsi. Bera ere, ez zen

inoiz arbasoen sorterrian egona. Ama eta izeba Pilar argazki bidez baino ez zituen ezagutzen.

Eta hala ere, zer antzekoak hirurak. Papera eta boligrafoa ekarrarazi zituen, izenez eta mapa zabarrez zikindu nituen orriak. Ezagutu behar zituela, tentatu nuen, animatu behar zuela putzua igarotzera. Begietan irakurri nion erantzuna. Pozik nengoen, bazirudien nire hitzak gai izan zirela ilusioa pizteko. Karpeta batean gorde zituen nire zirriborroak, familiaren ehun urteko historia azkar eta zabar azaldua.

Tropoiloan pilaturiko fotoei begira harrapatu gintuen egunsentiak. Nekatu ahala oheratzera joanak ziren gainontzeko guztiak. Nahitara utzi gintuzten biok bakarrik haizeak hegan eraman behar zuela zirudien jangela hartan, hizpideak ere aspertuta, seguru asko.

Odolaren deia, halaxe esan zuen errainetako batek erretiratu aurretik.

– Matetxo bat? Azkena eta ohera.

Era guztietako ontziek eta bateko eta besteko oroigarriek estaliagatik, argi ikusten zen zer zen. Denboratxoa neraman begirik kendu gabe. Sukaldera joana zela aprobetxatuta, jaiki eta beira-arasarantz jo nuen. Ez naiz inoren etxean giltza biratzeko bezain lotsagabea. Begira-begira harrapatu ninduen itzuli zenean. Ur

beroaren ontzia mahai gainean utzi eta irribarre jostariz hurreratu zitzaidan.

– Zer, honi begira?

Atea ireki eta eskuetan hartu zuen. Amarena izan zitekeen dardara hura ostera ere, apalagoa objektuak zenbat eta astunagoak izan. Erpuruaz bultzatuta, astiro zabaldu zen. Bost zulo zituen danborrak, hutsik denak.

– Bitxia da burni honen historia. Begira hemen: *Orbea, marca registrada*. Las Herasetik nentorren gau batean maskuriak behartuta errepide bazterrean geratu behar izan nuenean. Gau izartsua zen, kristaurik ez zebilen bidean. Egin beharrekoak egin eta, berriro ere arrankatzera nindoala, ondo bereizten ez zen zerbait argitu zuten pickuparen faroek txartaka artean. Hantxe zegoen, auskalo nork utzia eta noiztik, eremu elkorrak ahal zuen moduan zaindua. Ezagun du, baditu bere urteak errebolber honek. Horrexegatik ez nuen poliziara eraman. Zergatik, basamortu erdian bota zuenari galdetu beharko genioke. Beharbada historiarekin zuen zorren bat ordaindu nahi izango zuen horrela, asmaizu.

# Isiltasunak gordetzen duena

Lo beroan dago eguna zabaldu duenean. Zer izan da, harramazka bat, saguzar baten hegaldia, masailean aurrena, musualdean gero, burua zakar astindu duenean eten den laztan arin griskara. Kolpetik biribildu ditu begi biak, geldiro doazkio hedatzen niniak. Orduan hasi zaizkio, nekean barrena eta astiro, ziegaren ertzak ilunpetatik erauzten, kamaina inguruak bezperatzen.

Hotzak harrituak ditu eskuak. Tapaki zarpaila sudurra estaltzeraino igo duenean izerdi kiratsa heldu zaio, egunetako leka da behetik gora datorkiona oinetatik, izterrondoetatik, galtzarbeetatik atzamarrak surtziloetara hurreratu dituenean bart arratseko afariko baratxuriarenarekin nahastu zaiona. Ezin izan du ia begirik bildu, gaua badoala abaildu da.

Zakilaren bila dabil. Alferrik ahalegindu da esnatzen. Patio aldetik, ilaundurik datorkio mundua, indargetua argia, motelduak hotsak, elurte beltz batek es-

talia balio bezala gorputza. Azao sutuak irudikatu ditu mendi bideetan barrena, ibaia jo artekoan.

Kanpotiko ziega batean izan zuten ihesean saiatzen harrapatu zuten arte. Handik behintzat, esperantza zuen munduak. Irin lorrean heldutako idien makakorroak aditzen zituen errota parean, antaparako uraren bristada zilarrezkoa ederresten ikasi zuen. Ubidearen buruan zegoen santutxoan, arimentzako kandelek argitzen zuten gaua. Urrutira, basoen magaletan, lurra goldatu berri.

Gero, zigorra eta trasladoa. Oraintxe bi egun ekarri dute atzera ere, zaldi-kotxez. Ilbeltzak gogortutako lurraren usainak ordezkatu du badiako kresala. Goizeko seiak ziren heldu zirenerako. Kuluxkatik itzarri zenean irakurri zioten sententzia.

Kaperako morroiloaren karrankak jirarazi dio burua.

– Esna hago, Manuel?

Ez ditu galburuak hazten ikusiko.

Ia gau guztia berarekin izan duen jesuita sartu da zabalik utzi duten atetik, zaintzailearen itzal, lehentxeago esan dizkionak ahaztuta, nonbait. Zer duen galdetuko balio, bera baino izutuago barrundatzen duela esango luke. Gizona indarrez hiltzen ikustearen

kontua da, beharbada. Animaliak ez ditugu geuk hiltzen bada?, pentsatu du, ondo portatu delako atzamar lodiak besterik lotu ez diotenean. Ez da pertsonekin oso bestelakoa izango. Ez dio jesuitaren otoitzei erantzunik eman. Edonola ere, amaitzen utzi dio.

Galeria eskailburuan, taldetxoa bildu da. Ahotsak sumatu ditu beste ziegetan. Adore emateko goratzen direnak gehienak, infernuan ustel dadin opa diona bakarren bat.

Eskandalua baretze aldera eman da isiltzeko agindua.

– Gizona nola hiltzen duten ikustera umea?

Beharko joan, erretoreak agindua du herenegungo sermoian, eramateko etxeko txikiak ere urkamendira, leziatzearen garrantziaz hizketan entzun dute pulpituan elizara joan direnek. Nahitaezkoa dela bertaratzea esan du behin berriro, aita tiroz hil duen dohakabe haren galbide eta hondamenetik ikas dezan kristau onak mundualdi honetan ikasi beharrekoa. Bikoitza izango duela zigorra. Gizakiena hemen, eta benetan damutu ezean, Jainko Ahalguztidunarena han.

Bota ahalean ari du taldea kartzela atarira irten denean. Zeru goienetara begiratu dute denek seinaleren baten zain. Zalantzan egon dira, baina ez du ater-

tzeko itxurarik eta oinez ekin diote urkamendirantz, jende emanaren artean aguazilek zabaldu duten pasabidean aurrera. Kamio bazterretan, ondoko soroetan gora, milaka lagun, sententzia betetzera doazela jakin bezain laster inguruetatik eta urrutiagotik ere etorriak. Errentan jarri dira kaleko etxepeetako ukuiluak kanpotarrek mandoei, behorrei, astoei gobernu ona emateko aukera izan dezaten. Gau guztian egon dira herriko taberna, kafe eta sagardandegiak zabalik. Jaietan baino diru gehiago egin dutela diote mihi gaiztoek. Hainbeste lagun gora eta behera, lorratzek lokatz eginda utzi dute muinorakoa. Via Crucis kofradiako bi lagunek daramate presoa beso banatatik helduta. Atzetik, hiru apaiz, agintariak, zaindari armatuak eta segizioaren inguruan guardasola bezala zabaltzen den isiltasun beldurgarria.

– Umeak hona!

Gurasoen eskuetatik lasai egoteko esanda askatu eta tranpaldoaren aurrean elkartu dituzte, ondo ikus dezaten. Negarrez hasi dira txikienak, babes bila. Improbisazio betean, atzeko ilaretan egoteko baimena eman diete etxekoei. Kexu dira goizean goizetik daudenak. Dena atzeratu du euriak, eta samaldak azken maldari ekin dionean antolatu gabe daude artean au-

rreneko multzoak. Sagastietan, adarretara igota, mundua dago. Zenbat eta gorago egin, mozkor oihuak entzuten dira tarteka, ingurukoek ixt eta ixt, erabat isiltzea lortu ezin den harrabotsa.

Moteldu egin da denbora, dena doa geldiro haurren begietan. Heldu da araldea muinora. Ordekan egin beharrekoak dira azken metroak, jendea gainean dela. Egurrezko mailak igotzen hasi denean egin du zalantza pixka bat, bilin-balaunka ekin dio lotuak, sendo eutsi diote besoetatik daramaten kofradeek, eror ez dadin heldulekurik gabeko eskaileretan behera.

– Nobedadea egin zaiola diote.

Umearen aurrez aurre erori da gizona. Anuntxik bost urte ditu eta gaixotzeko moduko blaia aldean. Aitzakia horrekintxe gelditu zaio ama etxean, ez du ulertzen nola behartu litekeen inor horrelako otsokeria bat ikustera, are gutxiago umeak.

– Ez zatoz?

Bronkioetatik dabil. Eskuetatik kendu diote libratu nahian ohe ondoan babestu zaion alaba.

Leziatu beharra daude ume hauek.

– Eguraldi honekin zer behar dagoen ere...

Eta begirik galdu gabe segitzen ditu Anuntxik gatibuaren oinak dardara txikitan azken metroetan. Zatar bustiak harraskan bezala egozten dute ura, dotoreago batzuk ditu zain oholtzan.

– Azkar bueltatu, gaixotu gabe.

Gizon motz baten larruzko botak presoa eserita lotuko duten tantaiaren ondoan. Borreroa omen da. Burgostik etorri dela zabaldu da. Non dago Burgos, errepikatu du Anuntxik berak ere.

Segizio guztia tranpaldo gainean delarik ekin dio sermoiari jesuitetan helduenak. Banan-banan aletu ditu gizon lotuaren bekatuak, nola hil zuen aita beroaldi batean elkarrekin gari-jotzen ari zirela, eta preso zutelarik, nola nahi izan zuen aitaren ondra lohitu, bere emaztearekin tratuan zebilela esanda. Gezurra eta zikina hiltzaileak, zertarako eta diru kontuak ezkutatzeko, hori izan baitzen benetako arrazoia orain arte gorde gogo izan duena, diru zikina. Horregatik merezi du Justiziaren zigorra aurrena, eta Jainkoaren barkazioa gero, eta horrexegatik eskatu die bildutakoei otoitz bat Manuel Garmendiaren alde, aldamenean ordura arte isilik izan duen parrokiako erretoreak hasi duena kredo batekin.

Eta otoitza erlaroa bezala zabaltzen ari dela atertu du. Eta iruditu zaio Anuntxiri gatibua ere ezpainak mugitzen ari dela, gatza dastatzen ari balitz bezala zabaltzen dituela ezpainak eta elkarren kontra gozatzen gero borreroak sorbaldatik heldu eta jesartzera behartzen duenean. Euri tantak begi ertzean dituela, jendeari begira dabil gatibua, confiteor unum baptisma, handik aterako lukeen norbaiten bila, eta orduan jiratu du burua, ikusi du, in remissionem peccatorum, eta orduantxe geratu da Anuntxiren aurpegi zurbila lepa bueltan burdinazko uztaia lotu dioten gizonaren begietan, et expecto resurrectionem mortuorum, eta orduantxe sartu zaio, vitam venturi saeculi, borreroa kalamuzko zakutoa burutik behera jartzen ari zaion unean berean gizonaren begirada barruan. Amen.

Zuek ez dakizue zer den inor odol hotzean hiltzen ikustea.

Egun hartatik ezin izan zuen Anuntxik Manuel Garmendia zeritzan hura atera barrutik. Eginahalak, egin zituen egin zituenez. Etxera iritsi zenean, umearen zurbiltasunak haserrarazi zuen ama blaiak beste, eta inoiz ez bezala ekin zion, alaba ohe ondotik eraman zion ahizparen kontra aurrena eta igandean sermoia-

rekin berotu eta urkamendian kredoarekin baretu nahi izan zuen erretorearen kontra ondoren.

– Ez zabiltza ondo horrela...

Botatako guztiengatik baino bota gabe utzi zituenengatik aitortzan jarritako penitentziak ez zion barrua lasaitu, ordea. Igaro ziren egunak, eta umeak goiz hartan bezain zuri jarraitzen zuen. Zuri eta, kezkatzeko motibo handiagoa zena, mutu. Anuntxik ez zuen hitzik egiten.

Entzun, bai. Barruan zeraman gizonarekin zer egin zuten garrotea eman eta gero, kalean aditu zituen nahi beste istorio, etxean galarazia baitzegoen Manuel Garmendiaren exekuzioaz hitz txikienik egitea. Kontu batzuk guztiz zolarik gabekoak ziren. Borreroak burua ez ezik eskuak ere moztu zizkiola zioen istorio hura bezala. Nork sinistuko zuen hori berak ikusi baitzuen nola jarri zioten uztaia eta nola estutu zuen atzetik Burgosetik etorritako tximinoaren moduko gizon motz hark, lepoa eskumuturraren neurrirainoko haragi zati melenga bihurtuta, burua hamabost libra-ko irin zaku bat bezalaxe albo batera belaundu zitzaion arte.

Eta ezin adierazi gezurretan ari zirela.

Beste batzuk, ez zuen sekula jakingo hala izan zen ala jendeak asmatuak ziren. Ikuskizuna amaitu eta gero tranpaldorako egurrak igotzeko erabili zuten mando-gurdian jaitsita gorpua, denen eskarmentagarri epaitegiko atarian eserita utzi zutela zioen esamesa hura bezala, egunetan beleak, mikak, erroiak mokoka aldean, errotako nagusia agertu zen arte eskaera egitera, erretiratzeko mesedez hildako hura handik, harriek ezin zutela alea xehatu bestela.

– Horiek umeak beldurtzeko ipuinak dira.

– Eta zer du ume polit honek?

– Ez duela hitzik egiten.

Hitz egin bai, egiten du, baina barruraka. Hitzez, nola bestela, adierazten dio begietatik sartu zitzaion gizonari beldur dela munduarena, ez duela gustuko inguruan duena, apaiz maskalaren eskua ahoa zabaltzeko behartzen ari dela ur hartatik edan dezan.

– Honek lagunduko dio.

Hala esan ziela Santa Engraziko apaizak kontatu diote gurasoek zur oneko mahaiaren bestaldean dagoen espezialistari, bertara eraman ohi direla ingurueta-ko haurrak hizketan berandu badabiltza, eta basilikako iturrira, noski, santu gerlariaren oinetan dagoen brontzezko otarrain jiteko kanilapera. Ur bedeinkatutik

ito arte edanagatik, ordea, mutu segitzen duela koskortzen hasitako neskak.

Ezagutzen du medikuak iturria, urtero joan ohi da basilikara emaztearekin.

– Sineskeriak. Jaiotzatikoa bada, garbi dago. Baina honen moduan? Ezagutzen duzue hitz egiten ahaztu zaion umerik ala?

Ezetz guraso biek batera jaun medikuari.

– Zaudete lasai, hasiko da.

Ez dira gehiagotan itzuliko, ez daukaten dirua alferrik botatzen ari direla ondorioztatu dute bueltan direla.

– Ze, ume honek, hitz egin, hitz egiten zuen aurretik, ezta?

Hitz egingo ez zuen bada, oraintxe bezala. Orduan kanporantz egiten zuela, amarekin, aitarekin, senideekin, bisitan zetozkienekin, etxean beti izan baita mugimendu handia, sarrailari lotutako kordelari tira egin-da kanpotik zabaltzen den atea, orduan bezala ez baita inor geratu gaurdaino mahaian jartzeko gonbidapenik jaso gabe, hori ikusi izan du etxean akordua duenetik, eta hala kontatu ohi dio barruan daraman gizonari ere, trebea zela hizketan, barkatzeko bere buruaz horrela aritzea, baina grazia handiz kontatzen zi-

tuela egunerokoak, ingurukoei irribarrea ebasten zien ateraldiak zituela.

– Mutua da?

– Ez, ez du hitz egin nahi.

Behin-berriro bere ondoan errepikatzen entzuten duen elkarrizketa, medikuak gurasoei azaldu ziena hautuzko mututasunarenarekin. Nerbioetako arazo bat duela, antza, muturreraino eramandako lotsa moduko batek daukala lotua. Kontua da berezia dela neska honena, hautua erabatekoa baitu, guk dakigula ez du ez inon ez inorekin egiten, dio medikuak.

Gutxi-asko handik urteetara beragatik galdezka helduko den gazteari gurasoek errepikatuko dizkioten hitzak horiexek, ezkontza tratua egitera iritsita, egunen batean umeak heltzen badira haiekin hasiko den esperantza izpi batez agurtzen dutena.

– Hasiko da, zu lasai.

Eztei-gauan, bere kasa barrez aurkitu du senarrak gelan. Eranzten ari dela zer duen diotsonean, ezer ez, dio buruaz Anuntxik. Nola kontatuko dio beste gizon bat dagoela ohean, hiru izango direla izara arteko jolasean, baina ez beldurtzeko, ez diola inork inoiz barrerik egingo horregatik.

Anuntxik ondo ezagutzen baitu Manuel. Egin zuena egin izanagatik, berarekin bizitzen ikasi du, denborak leundu egin dio euripean beldurgarri agertu zitzaion gazte hiltzailea. Asko hitz egin du urte hauetan guztietan berarekin, luze aritu dira familia handietan seme-alabek aurrera ateratzeko dituzten zailtasunez, aita askoren zitalkeriaz. Manuelen heriotzarekin batera gibel geratu zen gizaldian, horrelako franko izan ohi zen, semeak aitari eraso egitea ukatutako dirua tarteko. Goseari zaion beldurrak dakarrena, edo beharrak bestela. Berak ere badaki zerbait. Hamasei senide dira, komentuetan sartu ez direnek Ameriketara joan beharra izan dute. Kanpoan dabiltzan batzuek ez dituzte gazteenak ezagutzen. Bera da herrian ezkondu den aurrena.

– Hitz egizu ba, Anuntxi...

Gauero erregutzen dio senarrak hizketan has dadin, goizero eskatzen dio arrenka zerrara abiatu aurretik esku lakarra masail gainean pasatuta gozatzeko bihotza arean, ea hala errazago aurkitzen duen hitzak bidea. Alferrik, ez da bihotz kontua. Eta hala ere, hizketan egingo balu bezalaxe hitz egiten diote amari bien artean izan dituzten seme-alabek. Maitasunaz ere, mintzo da Manuelekin. Senarrari esaten ausar-

tzen ez denik ere, aitortu izan dio. Inoiz, ez diola hitz gehiagorik egingo agindu dio bere buruari. Izan ere, berarekin izan ditu beste batzuek Jainkoarekin izaten dituzten solasaldiak. Eta pentsatze hutsarekin, izuak lotu du.

Gauza bat du ona Manuelenak, denbora duela alde. Dagoeneko, hutsarekin bat eginik dago gehienentzat haren izena. Hilarrian likenak nola, urteek jan dute. Eta inon izatekotan, halako irudi lauso bat da, oroimenaren laino artean sare-sare doana, asmatutako xehetasunez beteriko kontakizunean beti. Pentsatzen hasi da: goiz euritsu hartan kartzelatik gorako soro-zelaietan bildu ziren gehienak joanda daude, segizioko guztiak, Burgoseko borrero motza eta Via Cruciseko bi kofradeak bezalaxe. Manuel bera ere, denbora handia da ez duela lehen moduan sentitzen, itzalita bizi du, semea galdu zuenean bezala, hiru hilabeteko zegoela. Agian norbaitek datua gordeko du, bi izpi huts, nola eman zioten garrotea aita hil zuen gazteari mende berriaren atalasean. Hortik atzera zer, basamortua haize zakarrak astindua. Neurekin batera galduko da gizona, dio bere bostean.

Orain, eskuko dardara disimulatu ezinik, damu apur batez begiratzen dio bizitakoari. Pena du adiera-

zi gabekoengatik, Manuelentzat izan direlako senarra zenarentzat beharko zuketen hitzetako asko. Gaur, bizialdia geroago, nola deitzen dion heriotzak heriotzari, bestelakoak direla arrazoiak, beste borrero batzuek, eta protestak protesta, beste batzuk dira azkenean hil dituztenak. Zarata izan dela bazterretan, Radio Parisen entzun du, erdi gordean, alabekin batera. Frantzian, Italian, Suedian, Ingalaterran, Portugalen mundua atera omen da kalera haserrea erakustera. Lisboan, su eman diote manifestariek Espainiako delegazioari. Altzariak atera dituzte kalera, artxiboak erre. Paper kiskaliak hegan direlarik egin omen dute tiro metrailadorez polizia militarrek. Gertuan, fabrikak geldiarazi dira, tiroka jazarri zaio hemen ere polizia grebalariei. Kale barreneko zabalean, pankarta batez estali dute Erorien monumentua. Alferrikakoa izan da aita santuaren erruki eskea ere. Herrikoa da hil duten bat, Mariaren semea. Ez garrotez. Burgosen, argitu du irratiak, fusilatuta hil dute, espetxeko baratzean bete da goizaldean epaileek ezarritako heriotza-zigorra. Eta hiriaren izena entzun duenean, Manuel hil zuen gizon motza etorri zaio gogora Anuntxiri.

Ilunabarrean, pasieran atera da etxeko alabarekin. Honen seme nagusia daramate berekin, hamahiru

urte beteko ditu astebete barru. Portatzen bada, badaki egiten, udazkena da arorik ederrena. Plazatxotik pasa direnean, kendua dago pankarta harri gorrizko erreketearen gainetik. Txapela handi, hanka handiago, urrutian du galdua begirada, betiko legean. Ez ohiko bidea hartu dute, kartzela zaharraren aurretik igaro dira. Horma sendo garaiak, burdin hagak oraindik leihoetan, huntza teilaturaino, hezetasunak ditu janda horma gorrikarak. Saguzarren gordeleku izaten segitzen du, ikusi egiten du haien dantza oraindik. Errota, antapara eta santutxoa, urteak dira lurrarekin berdindu zituztela, etxebizitza askoko hiru dorre eraikitzeko oroimen txatal haren gainean. Urkamendia jaso zuten muinoan, erauzitako sagarrondoen zuztarretan zimenduak, institutua dago orain. Laster hasiko da iloba bertan.

Garia, hogei urte badira ez dela egiten.

Hotz ditu oinak. Urratsak urratsen gainean, itzalak itzalenean.

– Segituko dugu beste pixka batean?

Eta txiri-txiri jo dute aurrerantz, Anuntxi ama-semeen artean, senarraren zerra zegoen parera heldu diren arte. Nola laburtu diren egunak. Urrunean, basilikaren kupula grisa ezkien artean. Argiak piztuta

datoz automobilak erabat. Ustekabean, ez ohiko ilara batek harritu ditu. Guardia zibilen land-rover bat izan da hasieran. Gelditu egin dira, autoen joan-etorriari begira hirurak. Lauzpabost gehiago datoz atzexeago. Eta hauen ondoren, hildakoen kotxe ilun bat, olana militar batez estalitako katabuta duela barruan.

– Mariaren semea dakarte!

Anuntxiri barruak inarrosi dizkion oihu mutua alabarena.

Konboiak herrirantz jarraitu du etorbideko argi moteletan. Denbora beharko du oraindik hildakoaren auzora heltzeko. Pinu ilunak eta jende asaldatua ditu zain.

Anuntxi iratzarri duen oihua. Alderik alde darabil burua, bilobak ikusi du.

– Nik ezin dut.

Orain amona da gatz-aleak mihiztatzen ari dena, izuak gogortuta bezala, ezpain lehorren artean zerbait darabilena.

– Nik ezin dut beste inor hartu.

Eta etxeratu direnean, asaldura ahora, semeari agiraka ama, nola esango zuen amamak hori, bost urte dituenetik badarama hitzik egin gabe. Berekin izan dela bera ere, ez duela halakorik aditu, bizi guz-

tia daramala zain amak hitz bakar bat noiz esango. Jazarri egin zaio, hik ez dakik zer den ama mutu batekin bizi behar izatea.

Anuntxi erretiratua da, ohera doala adierazi die.

Jan behar du begiez semea, dardaraka du ahoa.

– Nahikoa dugu zoro bat familian.

Irratia atergabean ari da Lisboako erasoaz. Enbaxadoreari eman diote hitza.

– Nik entzun egin diot ba, ama. Nik entzun egin diot. Nik ezin dut beste inor hartu, horixe esan du. Mariaren semearengatik ari zen.

# Astronauta

Lanbroa ari du oroimenean, eta langarretan Pelloren autoa da bihurgunea goma-orroan igo eta etxe atariko harri txintxorretan kolpean geratu dena. Ateatean utzi du, gurasoak balkoira atereak direla, eta diosalaka da jaitsi denerako, ilea kizkur, bibotea irribarrez.

Eskua goratuta zabalik, hara Ameriketako presidentea, gure ama agurtu du, gure aita agurtu du. Igotzeko diotse biek balkoitik, hartuko duk kafe bat. Baina pauso laburrez, zapatak zikintzeko beldurrez, etxekonekoak furgoneta uzten duen uralitazko teilatuperantz doa, eta hantxe erreparatu die alkandoran erori zaizkion tantei.

– Soldadua hemen al dugu?

– Atzo jo zian telefonoa, arrestatuta omen zagok.

Ceutan zinen garaia zen. Akordatzen nola idazten nizun?, eta orain ekartzea nekezagoa zaidan hau guztia kontatzen nizun, nola agertu zitzaizun laguna etxera, nola galdetu zigun zugatik, aldatua zebilela aspaldian. Helbidea, ez dut sekula ahaztu: Fortaleza Monte

Hacho. Eta Pello gaizki esaka, ba al dugu hori ere, militar puta hauekin ez dago ezer onik. Noiz etorriko zaren jakin nahi du. Zertarako behar ote zintuen galdetu dio amak aitari balkoiko ateari kisketa eman dionean. Ez dakiela erantzun dio Pellori sorbaldak harrotuta, ez dagoela jakiterik noiz aterako zaituzten zulo zahar hartatik. Zer egin duzun, ez dago garbi. Paseotik berandu heltzeagatik izan dela esanda engainatu duzu ama, zertarako kezkatuko duzu.

– Orain ere erosi duzu lepoko ederra zuk.

Eta Pellori irribarrea zabalagoa egin zaio amaren hitzak entzun orduko. Erlojuari eman dio begia. Ez nau nire gelatik zelatan ikusi.

– Martxa egingo dut orduan. Esaiozu bere bila pasatu naizela.

Etorri bezalaxe doa, eskua gora, lanbroak ile kizkurrean zilarrezko dirdira txikiak egiten dizkiola. Bat-batean, akordatu keinua egin du. Gidariaren ondoko atea zabaldu eta laka potea dirudiena atera du aulkipetik. Auto aurrean makurtu da, zapia pasatu dio matrikulari. Zer du, zer dabil lehortzen, neure artean. Gero, poteari eragin eta oparo arrosatu du, ez ber-bertatik ere.

Amak galdetuko dio.

– Badakizu zertarako den laka ona? Poliziaren radarrek ez harrapatzeko.

Bidaia luzea duela, eta badaezpada. Ez duela dirurik gobernuari isunik ordaintzeko.

– Zer esan behar ote dugu besteok orduan?

Diosala egin die berriz. Autoan sartu eta astiro atera da errepidera. Goitik inor ez datorrela ikusi eta orduan sakatu dio apur bat, ez etorreran adina. Halaxe ostendu da hiruron begietatik.

Handik laburrera esan zenidan The Moon zabaldu behar zenutela, pasada bat izango da, Marian, sozio sartu zinela Pellorekin zubi ondoko lokala hartu eta obrak eginda, inguruetan inon ez zegoen bezalako puba egiteko. Zer? Puba. Orduantxe zen hasia moda, hitza ere, noiz ikasi genuen ba, eta zer eta herrian zuek. Pasada bat ez dakit, baina desberdina bai, hain zen edertasun ez ohikoa, atetik sartu eta batera konturatzen zen tontoena ere. Ibaiko harri biribilak hormak janzteko, Ibizako zuriz margotuak; burdeos koloreko olak zokaloetan, erremate guztietan. Hormetan, ilargialdien grabatu antigoalekoak; behegain grisaren, zeru ilunen eta astronauten hamaika argazki.

– Zer izen jarri behar diozue?

Barra atzean, benetako eskafandra bat, Pellok Londresen, Portobelloko azokan ondo ordaindu eta kamioizale batek mesede moduan ekarria. Estilo aldizkarietan agertu zen lokala. Ez zenuten alferrik nolanahiko dekoradorea aukeratu. Nola zioen erreportaje haren lerroburuak?

The Moon, inoiz itzaltzen ez den argia.

– Pellorekin? Zer dirurekin sartu haiz, ordea?

Eta ohi legez, musu batez estali zenion galdera amari. Ni gazteegia nintzen zertan zenbiltzaten ulertzeko.

Realeko eta Athleticeko jokalariak astegun buruzurian agertzen hasi ziren garaia. Kanpotik enteratzen nintzen, institutuan azkar zabaltzen ziren halakoak. Zu barran, Nacha Pop, Gabinete Caligari, Radio Futura, pop espainoletik asko; Duran Duran, The Pretenders, Simple Minds, codorniu benjaminak gaur egun ura bezala, goizaldera arte irristatzen zen ilargialdia kubaten izotzetan. Ordutegiak behartuta giltza eman eta gero ere, neskak bertan. Jokalarien uharan kanpotik heldutakoak gehienak, moxalak, ez egin barrerik, hala deitzen zenituzten orduan, ikusgarriak gure aldean.

Eta niri abisua beti txori txikiren batek:

– Marian, nesken oinetakoetatik edaten dinate xanpaina.

Eromenak ez zuen askorik iraun. Azkar ikasi zenuen. Zu ez zinen haientzat eta haiek ez ziren zuretzat.

Ilargia zikintzen hasi zenean, Pellok orpoa goratu, oin puntetan Neil Armstrongen urratsean indar egin eta Alexis Leonov zela sinistu zuen.

– Ito egiten nauk herrian.

Hala aitortzen zizun, edo hala kontatu zenigun behintzat orduan. Barra barruan, gero eta gutxiago egoten zen. Barra bestaldean harengatik entzuten zena, amuarraina esku artean edukitzea bezala zen.

Futbolarien agentea omen dun.

Gama altuko automobilen salmentan zabilen.

Tabako gorriaren kontrabandoan aritzen dun.

Zurrumurruekin batera ostendu zen Pello herritik. Bakarrik geratu zinen The Moonen. Astronauta bat ilargian, komunetako eskaileretan zegoen zuri-beltzezko argazki hartan bezala, ispiluarena egiten zuen eskafandraren atzean gordea. Galdetuz gero, sozio izaten segitzen zenutela erantzuten zenuen beti. Eta egia esan, hala izateko itxura zuen. Oso tarteka, baina agertzen baitzen. Aita hil zenean, etxetik pasatu zen.

Ama dut akorduan, malkoei eusteko gogorik ez, berari helduta egongela zaharrean, joan zaigu, Pello, joan zaigu. Eta berak zu bazina bezalaxe estutzen zuen.

Handik berehala izan zen. Larunbat arratsaldea zen kalean topo egin genuenean. Nora nindoan, nirekin hitz egin nahi zuela. Zertaz. Zutaz, The Moonez. Autoa hartu eta zerbait hartzera joango ginen. Zerua mendi artetik zabaldu eta itsaso gainera erori zen arte jarraitu genuen. Tony Hadleyren ahotsak bion zigarroen kearekin batera ihes egiten zuen leiho jaitsietatik. Konturatzerako, arraina plantxan jaten ari ginen portu gaineko jatetxe batean, ardo zuria izotzontzian sartuta. Zutaz aritu ginen, tabernaz. Gustura nengoen, gaztetatik gustatu izan zaizkit hizketan artetsuak diren pertsonak. Eta Pello zen. Ikusi egin nuen etortzen, eta ibaian behera hostoa nola, utzi egin nion neure buruari. Gau hartan, hoteletik deitu nion amari, lagun baten etxean gelditzen nintzela lotan, egoteko lasai, bazkaltzera agertuko nintzela.

Zarata zatarra handik gutxira hasi zen.

Pello putetxeen negozioan dabil.

Ez ninduen ustekabean harrapatu. Sasoi hartan erosi zenion bere partea, The Moonekoa.

– Haserretu egin zarete?

– Lagunak gara.

Hain lagunak ere, hezur eta mami parbulitotatik. Lagunak baino, ezinago elkarmaiteak. Eta lanbroak etenik ez duen horretan biok zaudete The Mooneko barra ertzean, taberna hutsik, zigarro amerikanoa bata bestearen atzetik errausten, gaua bere azken orduak biltzen ostegun batean, ezustean agertuta Pello herrian, beti bezala.

– Alferrik ari haiz, ez nauk hor sartuko.

Xantaiaren usaina lagunaren hatsean. Jaisten ez duen begirada. Berarekin joan zarenetan ea gaizki atera zaren galdetu dizu, zure ezetzarekin berotuta. Dirurik gabe negozioan sartu eta begiratzeko nola zauden orain. Bekaina zimurtu du, sudurra harrotu zaio. Potroetatik zauzkala uste du. Ezetz zuk, ez dela hori. Baina egiarik ez. Amari bakarrik ez, lagunei ere ezkutatzen zaizkie gauzak. Ez duzu barrurik aitortzeko zergatik ez zaren berarekin sartuko eskaini dizun tratuan.

Kopa hutsaren hotsa egur margotuzko barran. Valentina Terexkova Pelloren sorbalda gainetik begira.

– Heuretzat okerrago. Damutuko zaik galanki.

Astronautak ez dira damutzen, muturreko egoerak hartaratzen ditu. Astronautak egon egiten dira. Nor-

baitekin izanik ere bakarrik, hantxe, ordua heldu eta itzultzeko agindua ematen zaien arte, Michael Collins *Columbia* aginte-moduloan bezala. Ezin nahi bezala ibili. Egoten jakin.

– Ez diat uste.

Gaiztotu egin zaizu, lagun bat egin litekeen neurrian. The Mooneko martxaz galdetu dizu. Badaki asko urritu zaizula bezeria.

– Ilargia lagatzeko momentua duk.

Erdeinuzko keinua egin dizu, herria eta abarra. Jendekera hori. Ateratzeko beste trago bat.

– Aprobetxa ezak oraintxe traspasatzeko. Neuk ekarriko diat eroslea.

Ez zeunden inoren azalpenak entzuteko, inork gutxik maite du inori aditzerik norberak buruan darabilena. The Moon ingurua zer bilakatu zen, begi bistakoa zen, eta Pello jakinaren gainean zegoen. Hilabeteak zeneramatzan ezer gutxi hartu eta goizetik gauera ataritik komunera eta komunetik atarira bueltaka zenituen haiek bidali nahian. Bezeroak uxatzen zituzten bezero ustekoak.

– Badakik zer haizen? Kobarde ustel bat!

Egia zen, ez zenuen odolik ume zirenetik ezagutzen zenituen neska-mutil haiek ilargitik bidaltzeko.

Are gutxiago Pellorekin hura utzi eta galaxiara abiatzeko. Hala ikusten zuen berak. Zu, berriz, ez zeunden besteek zutaz zer uste zuten pentsatzeko.

Zarata zatarragoa lehertu zen. Hasieran erreportaje bat izan zen, ez egunkari irakurrienean ere: beti-betiko tabako kontrabandoaren bideetatik heltzen omen zen heroina kaleetara. Itxura batera, inizialak eman izanak kazetariak dokumentu ofizialen bat izan zuela esku artean ematen zuen aditzera. Ageriago utzi zuen dena labarraren kontra txikituta agertu zen legatzaleak. Hilabeteetara, fiskalaren txostena hasi zen filtratzen hedabideetara. Haitzetako bidezidorrak gordeta, guardia zibilek babestu zuten zamaren lehorreratzea. Sarearena atera zen, elkar hartuta lan egiten zutela Komandantziako gizonek eta garai bateko tabako kontrabandistek, hauetako batek Donostian zuen putetxe batean eginda tratuak.

Egun haietan, arroken kontra triskatu zena ez zen izan argazkietan ageri zen ontzi hura soilik. Zu Pello ezertarako ez aipatzen hasi zinen. Nik zure mina gordetzen ikasi nuen.

Pintadak agertu ziren arte.

Fakturak antolatzen ari zinen atzeko partean.

– Hil egingo dute.

Izuak gogortuta atera zitzaidan. Gertu ari ziren jotzen. Pellorekin negoziotan zebilenetako bat igande goiz batean harrapatu zuten, familiarekin bermuta hartzen ari zela. Ikertzaileek bala-zorroak eraman zituztenean zerrautsak estali zuen hurrengo egunean bezeroek berriz zapalduko zuten zola.

Lanbroa ari du oroimenean. Eta euri xehetan Pello eta biok ari zarete garajeko atea presaka zarratzen oihuak entzun ditudanean. Ceutara joan aurretik da. Aita da, gorri-hotsean, ea orain ere zertan zabiltzaten. Ez zaituzte harrapatu, gutxigatik, baina badaki, susmoa du propaganda gordetzen ari zaretela, beldur da ez ote zareten barrurago sartuko, ez ote duzuen, zeuek konturatzerako, hondamendirako urratsa emango. Isiltzeko keinuak egiten dizkiozu, eta apalago, hor duzu aitaren haserrearen zaina, nahikoa dela gerra galdu bat atzera ere beste batean hondatzeko. Pelloren aita atera du ahotik, behin baino gehiagotan entzuna dio Hilario Herrenari nola joan zen Lemoatxeko borroka, orain gudariak, hurrengoan erreketeak, txandaka hartzen egunetan tontorra, bazekiela han zeudela kuadrillako lagunak aurreko lubakian, eta tiro egin behar.

– Zuek ez daukazue aztarrenik ere zer den hori.

Eta zure ondoan Pello, burua makur, erretolika atertu zain, hitz egokienen bila beti, gezurra behingoan asmatzen. Ez zenioten zipotzik sartuko baina gure aitari.

Haren poza soldaduskara joateko deia jaso zenuenean.

– Pello akabatzeko topatu egin beharko dute lehenbizi.

Desagertua baitzen erabat. Zu bakar-bakarrean eskafandraren barnean, besoak antxumatuta barra gainean. The Moonek hautsa biltzen segitzen zuen. Garbitualdi bat eman zenion, margotu egin zenuen. Alferrik. Astegunetako martxa desastrea zen, galdutako egunak guztiak. Asteburuetan pizten zen zerbait. Eskerrak jaiei eta noizbehinka antolatzen ziren kontzertuei. Orduan bai.

– Hire lagun trapitxeroaren berririk bai?

Adinak dakarkiona astronautari, kakaumeak zirenetik ezagutzen zituenak haiek ere. Herrietako kontuak. Eta tabernariak ordu asko izan jendeari erreparatzeko. Ikusiak zituen desorduetan, itzal eginda, The Moon giltzatu eta etxera zindoazela. Bazenekien zertan zebiltzan.

– Badakizue zer dagoen hemen? Hipokrisia galanta. Abadeen pare ahoa bete bai droga kontuekin, eta gero denok binaka komunera.

Bazinen nor halakoak botatzeko, eta bazekitelako ez zizuten gogor ekiten. Haria ere, ez zinen etenzale. Berek eskatu gabe ateratzen zenizkien kaxaka ardoak biltegitik egun seinalatuetan, eguberri bezperetan, jaietan, bestaldekoei eramateko. Pattarrak nahi adina, ginebrak, vodkak, ronak, Habanatik gordean ekarritako zigarro-puruak. Zeuk laguntzen zenien autoan sartzen, kutxekin batera goraintziak batzuentzat beti, heltzen zitzaizkien eskumuinak dagoeneko inon ez dagoen mundu batean zeure lagun izandakoentzat.

Eta apartean, edaria ere sinbolikoagoa zelakoan, moët&chandona.

– Esaiezue datorren gabonetan hemen nahi ditudala.

Formenterako kala batean topatu zenuen Pello, berak deituta, inori ezer esan gabe joateko aginduarekin. Luxuzko jatetxe bat zuen muntatua alde egin zuenetik. Emakume baten izenean zuen negozioa. Emaztea, neska-laguna, nik zer dakit ba zer den, ez diot galdetzen horrelakorik, esan zenidan bueltan. Gezurra. Modako lokal bat itsasoari begira, enpresari erru-

siarren eta aleman modeloen atsedenleku, edonongo espabilatu-jendearen biltxoko, dantzatoki esklusibo bat zuela aldamenean. Ontziraleku partikularra, eta itsasaldia yatean gogoak emandakoan, Bretainiako ostrak, caipirinhak, mojitoak, sudurreko botika nahi adina, gogora etorritako guztia, Marian. Ordain zezakeen bezeria eta bizitza hurrengo goizean amaituko balitz bezalako festak itsaso ertzean papurturiko izarren ekaizpean.

Urruti gure herri triste honetako eguneroko martxatik. Gaizkitxo lagunaren kontura denean dena, hamabost eguneko egonaldia haurtzaroko ibiliez oroitzeko. Argazkietan, irribarretsu beti biok, udako arropez, kolore ederreko. Ze foto eskas, argi bristada itsugarria gauerdian, flashak erreak. Zigarro-txuxtarra eskuetan beti, halaxe egunak aurrera, bizi-nahiari eutsiz eta oroitzapen txatalei tiraka. Urrezko lepokoa Pellok, hemen erakusten ez zenigun aurpegiera zuk. Inguruan, nor zen ia azaltzen ez zenidan jendea. Zuen aldean gazteak beti tartean, neskak nagusi, The Moon bion artean zeneramatenean bezalaxe.

Hurrengo urteetan, irailero, festa ondorengo barealdian errepikatu ohi zenuen bisita. Eta handik bueltan beti:

– Marian, eskumuinak Pelloren partez.

Eta handik bueltan beti:

– Nazkatu naiz, ez noa gehiagotan.

Pelloren bizimoduarekin, hark egindako hautuarekin, harekiko harremanarekin borrokan zeu eta zeure burua. Eta lehia gehienetan bezala, jakineko plantatik ere sobera, inoren aurrean antzezteko hitz eta zeinuak.

Zuk zabaltzerako, herri guztiak zekien Pello non zebilen.

Azkenean aurkitu dut Pelloren telefono zenbakia, ez kosta gabe horregatik. Formenterako argazki eta paperen artean agertu da, kartoizko txartel batean, jatetxekoaren azpian, eskuz idatzia haren izena.

Ez diot berehala deitu, zalantzan ibili naiz, nahita atzeratzen.

– Begira nor etorri zaizun bisitan.

Eta Pello da logelako atean kax-kax jota burua erakutsi duena kuku batean. Argi sartu da gelan, arratsaldeko izpiek doi bat urdindua. Zabaldu ez dudan paketetxoa utzi dizu mahai gainean, hor duzu alferrikako beste oparitxo bat, ur botilaren eta nire liburuaren artean txokotxoa eginda.

– Han adinako beroa duzue hemen.

Erantzi egin du jaka, aulkiaren gainean utzi du tolestua. Inguru-begira dela, baietz, bakarrik gaudela gelan esan diot, hala egiten omen dute horrelako kasuetan ahal bada behintzat, eta halaxe esan diot, ez zaituela zirkinik ere egiten ikusiko, baina dena entzuten duzula. Hitz egiteko lagunari berak bakarrik dakien bezala, kontatzeko gauzak, gustura adituko dizkiozula. Eskutik heldu dizu, parbulitotan eskolatik ateratzen zinetenean bezala, señorita Lolarekin egindako marrazkia zenutela bestean. Ez The Moonen, ez Formenterako egonaldietan seguru inoiz egin ez duzuena.

Egongelara irten garen arte itxaron du errieta egiteko, nola ez diodan lehenago deitu, konfiantza aipatu du, zer dioten medikuek, zenbat geratzen zaizun. Ez dut gezurretan hasteko gogorik izan. Astebete daramazula begiak zabaldu gabe. Bihar-etzitan hasiko direla seguru asko morfinarekin. Eta gero, zain egon beharra. Ez zarela hurrengo astera iritsiko, huraxe dela elkarrekin egongo zareten azken aldia eta aprobetxatzeko.

– Baina zer, nola...

Hautsa, milioika urteko higatzearen ondoriozko partikulak astiro harrotzen ilargian. “Oso usain nabar-

mena da, ikatz errearena, edo tximiniako kedarrarena”, deskribatu zuen Aldrinek, hogei ordu eman eta gero Armstrongekin errauts artean pasieran. The Moonen zenuten prentsa txatala, ertza mailatua zuen marko urrekara batean sartua. Inor konturatu orduko birikak, gibela, burmuinaren barrunbeak hartu dizkizun hauts madarikatua eskafandran barrena.

– Eta tabernarekin, zer egiteko asmoa duzue, Marian?

– Ikusiko dugu.

The Moon, inoiz itzaltzen ez den argia.

Hasperen ironikoak egin dio ihes.

Hautsaren itomena, oxigenoaren hotsa maskara barrutik. Astronautaren azken hatsantuak.

Kanporantz begira geratu gara. Inor gutxi dabil parkinean. Bikote bat, haur jaio berria maxi-cosian daramala parterrean barrena, arbola luzanga hostogabeen artetik. Garai batean presaka eraikitako etxeen atzean, mendi urdinak, bata bestearen atzean etzanjolasean. Eta denboralea egon gara biok isilik, bat-bedera bere gauzetan, auskalo non, berregin ezin diren aukeretan, adiskidetasunaren legeetan, bizitzaren loterian gogoa, lanbroa atergabe ari zaigula oroimenean.